


Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton* Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande* Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue* Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre* Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu* Biziazen Hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia* Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant* Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister* Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia* Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile* Xiberoko antzertia edo pastoralak. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu* Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant* Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012



Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:



JEAN-LOUIS DAVANT

ANTOINE D'ABBADIE, ABBADIAZ



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



JEAN-LOUIS DAVANT

Jean-Louis Davant Iratzabal 1935eko uztailearen 5ean jaio zen, Zuberoako Urrustoi-Larrabile herrian. Laborantza ikasketak burutu zituen Frantziako Angers hirian: hemeretzi urte zituela sartu zen eta hogeita birekin irten, ingeniari tituluarekin (Ingenieur Agricultriceur de l'Ecole Supérieure d'Agriculture d'Angers).

1960an, Hazparneko Laborantza Ikastetxean hasi zen lanean. Bertan ihardun zuen jubilatuta arte. Enbata mugimendu abertzalearen bultzatzaileetarikoa izan zen Davant.

1965eko irailaren 24an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta hamar urte beranduago, hots, 1975eko otsailaren 28an, euskaltzain oso. 1957az geroztik egunkari eta aldizkari askotan argitaratu ditu bere artikuluak, euskaraz zein frantsesez. Horietan jorratu dituen gaiak honako hauek dira: laborantza, ekonomia, egoera soziala, politika, historia, kultura.

1980an literaturan hasia dugu Davant, bereziki olerkian. Pastoral-antzerki ere ugari idatzi du.

Agerturiko liburuak:

-euskaraz eleberri bat, hiru saio, sei olerki liburu, zazpi «trajería» (pastoral), hamar bat liburuxka, eta Idazlan hautatuak;
-frantsesez, *Histoire du peuple basque*, eta *Le « problème basque » en 20 questions*.

JEAN-LOUIS DAVANT
ANTOINE D'ABBADIE,
ABBADIAZ

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

© Jean-Louis Davant

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua eta Inprimatzea Ikeder, S.L.

ISBN: 978-84-95438-89-8

Lege-gordailua: BI-I802-2012

JEAN-LOUIS DAVANT

ANTOINE D'ABBADIE,
ABBADIAZ

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2012

AURKIBIDEA
TABLE DES MATIÈRES

Aurkezpena	IX
Argibide zenbait	I
Sarrera hitzaldia (Euskaltzaindikoa)	3
«Abbadia Ürrüstoi» pastorala	15
Antoine d'Abbadieren bizitza	65
Lore jokoak	81
Abbadiaz artikulua zenbait	107
Bibliografia laburra	165

AURKEZPENA

Asko dira eta aski ezagunak XIX. mendean Euskal Herria gogoan izan zuten atzerritarrak. Horietako batzuk, zer esanik ez, gogoz eta nahiez, bertakotu egin ziren, euskaldunen izatea eta ezaugarriak eurenganatu arte.

Exotismoa, liluragarritasuna ... eta aldi berean, Paristik eta Madriletik hain hurrun eta hain hurbil egoteak ekarri zion Euskal Herriari halako kanpotarren jakinmina eta grina.

Horien artean nabarmendu zen Antoine d Abbadie, Jean Louis Davant euskaltzain osoak liburu honen orrialdeetan gogoratzen digunez. Gogoratu ere, modu fin eta trebean gogoratzen dizkigu euskaltzain zuberotarrak haren bizitza zertzeladak, bidea emanez, dela xehetasun historikoei, dela –zergatik ez- Zuberokoak pastoralaren bertso eta kantuei.

Idoroko dugu bertan Zuberokoak sustraiak dituen Abbadie bidaialaria, jakinmin handikoa, mendearen aurkikuntza zientifikoaren jarraitzaile amorratua, Frantziako *Académie des Sciences* elkarte zientifiko sonatuaren kidea eta zahartzaroan, lehendakaria ere. Orobat, euskaltzale parrokatua, euskara bera, alde eta moldez, sustengatu eta aitzina eraman zuena.

Horiek horrela, aukera paregabea dugu liburu honen bidez jakiteko nor zen Abbadie eta zein haren eginak. Davant gidari segurua da bidaia horretan eta hona ekarri ditu haren inguruko osagarriak, ohargarri eta jakingarri, euskaraz zein frantsesez. Beste behin ere, bete-betean asmatu duela esan daiteke, gerogarrenean ekarriko dituen beste emaitzen aitzindari.

Berriro ere aberastua eta hornitua da *Euskaltzainak* bilduma emaitza honekin. Lenenik ere eginak ditu Davantek halakoak bilduma honetan eta beraz, segida batean ulertu behar da lan hau, idazle baten biografiaren harian. Jarraitu dezagun, beraz, Abbadieren lana gure artean bizi dadin ahaleginetan eta laguntzaile izan dezagun horretan Davant euskaltzain zuberotarrak esku-eskura jarri digun argitalpena.

Andres Urrutia
euskaltzainburua

ARGIBIDE ZENBAIT

Antoine d'Abbadie jakintsuna (1810-1897) irlandar euskalduna zen, baina lehenik irlandarra : Dublinen jaio zen, hangoa zuen ama, eta berak han igaran zituen haurtzaroko, hots haur denborako lehen hamar urteak. Bizkitartean, herritar bezala ikusten dut oso naturalki : enetzat Ürrüstoiko da, eta ez bakarrik ürrüstoitar seme. Aita Abadiako premu eta jabea, hortik desterratu bazen ere hamazortzi urteetan, erbestetik itzuli ondoren oporrez zetorren etxondora, 1799tik berea zuen etxera. Haren ondotik Abadiako jabe izango den Antoinek ere hola eginen du, bereziki gaztaroan, hor bizi den izeba Maria-Maitena « egüzama » delakoaren peskizan.

Gaztetik halako zorabio burgoi bat sortu dit Antoinek Arño anaia gaztearekin Etiopian dozena bat urtez bizi izan zuen epopeiak. Hori bederen egiazkoa zen Abadiatarren istorioa bete duten ipuin, asmakizun eta kondaira jorien artean. Gisa batez Etxahun-Barkoxerena bezalaxe, holakoz kutsatua da. Leienda horien sarean bahiturik egon naiz ni ere luzaz. Baina dela bakarka, dela beste batzuekin batera edo haien ondotik, horietarik askatzera lehiatu naiz eta beti lehiatzen urrats eta pausoka : emeki bada emeki, zatika bederen argitzen ari da familia horren historia, bereziki Antoine jakintsunarena.

Euskaltzaindiko nire sarrera hitzaldian, 1976an, fede onezko ipuinak franko ugari dira, eta guti eskas « Abadia Ürrüstoi » pastoralean ere : hau 1990eko udan antzeztu zidaten, baina 1985koan idatzia nuen.

-Lehenbiziko lan hori liburu honetan agertzen dut osoki.

-Halaber trajeriako testua, antzerkian parte hartu dutenen zerrendarekin.

Gero bi lan gotor :

-Antoine d'Abbadie (1810-1897) : Biografia bati buruz.

-Antoine d'Abbadieren Lore Jokoak.

Azkenik artikulu adierazgarri zenbait, bereziki segidan bi artikulu aski mardul eta lodiak, aldizkari batzuetan agertuak :

-Lore Jokoen ingurumenaz : Bat aldizkaria, Donostia, 1997.

-Abbadia eta euskara : Elhuyar aldizkaria, 73-74, 1993ko uztail-abuztua, « Antoine Abbadia, XIX. mendeko zientzilari eta euskaltzalea ».

-Bestalde Abbadiaren bizitzaz eta obraz idatzi ditudan laburpenak asko dira : horietarik bakar bat agertzen dut, eta nahikoa da, batetik bestera oinarrizko ber berriak errepikatzen baitira orokorki eta nagusiki, ñabardurak eta euskalkia edo euskara maila edo estiloa gora-behera.

-Argitaratzen ditudan beste idazki laburrak tematikoagoak dira, eta horrez bakoitzak zerbait berezia dakarke.

Jean-Louis Davant

SARRERA HITZALDIA

Maule-Lextarreko udaletxe ohian, 1976-VIII-22an

(Grafia gaurkotu diot, eta mintzaldirako puntuazioa idazkerari egokitu)

Andereak eta jaunak,

Mintzaldi hau ez nūke hasi nahi Eppherre anai apezak aipatū gabe. Altzūrūkūtar familia batetako seme, biak izan dira eūskaltzale argiak eta sūharrak. Biek lan hanitx egin dūe eūskaraz eta eūskararen alde.

Gehiena, Guillaume, eūskaltzain osoa zen, ene aitzinekoa, ohore handia beita enetako horren ondoko izatea. Elizkizūnetan erauntsi dū haboroenik, eta litūrgia xiberotarrez ezarri deigū, behar ere, bestela frantses hūtseala kon-denatūrik baratzen beiginen sail hortan ere.

Gazteagoa, Grégoire « Ddiddue », eūskaltzain lagūntzalea, Xiberoko be-riemaile arraheina zen « Herria » kazetan, eta Mauleko ikastolaren zūrkaitz haūtūetarik.

Biak dūala bi urte joan zaizgū betiereko bortūalat, zonbait egūn arte, ha-nitxez goizegi...



Goizegi zait ere horien obraren behar bezala ikertzeko, merexi lūkean zū-hūrtziarekin begistatzeko, hein bat hūrrūntik egin behar beilizate.

Arren, igaran gizaldi edo menteari būrūz ūngūrātūko gira, beste bi xibero-tar eūskaltzalerengana : horik dira Antoni Abadia Ūrrūstoiko (erdaraz Antoi-ne d'Abbadie d'Arrast) eta Agosti Xaho atharraztarra : lehena ene herritarra ; bigerrena ene amaren kartielekoa, zeren ama sortzez Altzaiko dūt.

Biak oso diferentak ziren, desbardin eta despare. Bena biek algarrekin lan egin dūe eūskararen eta eūskaldūnen alde.

Denbora gutiz ikusi behar dugu, xehetarzünetan sartu gabe, nor diren Abadia eta Xaho, algarrekin zer lan egin duen, nolakoa den horien euskaldün-goa, eta oraiko euskaldün-goari zer ekarten duen batak eta besteak.

I

Nor zen Abadia

Mila zortzi ehün eta hamarrean sortu zen Irlandako Dublin hirian. Ama irlandesa zuen : andere Thompson bat ; aita aldiz, Mixel edo Arño-Mixel, Xiberoko jaun ttipi bat, Xiberoan ez beitzen jaun handirik. Ezi artzaingoatik bizi zen gure kartiela. Herriarenak ziren lur hanitx, eta ondorioz jabe gotorrik ez zen.

Halere Frantziako erreboluzione edo iraultza denboran, Irlandala ihes egin zuen Mixel Abadiak. Han ezkontu zen andere Thompson batekin, eta sei haur uken zuten : hirur alaba eta hiru seme. Seme gehiena Antoni zen (bena bigarren haurra).

Laster Frantziako Tolosan kokatu zen familia (1820). Bakantzak Audaux /Adauseko jauregian igaraiten zuten, Biarnoko muga, Ürrüstoirik hamar kilometretan.

Ikasle izigarri argia izan zen Antoni, bai mintzaje edo hizkuntzetan, bai zientzia edo jakintzetan. Sorbonan Arago famatuaren ikasle da. Bere anaie Arñoekin, Etiopiala joateko prestatzen da gisa oroz : bai ezpiritüz, bai korpitzez. Nil ibai edo uhaitz handiaren ütürri-sorgiak atzaman nahi dütüe. Ez dira haietara sekula heltuko ; bena arte hortan beste zerbait kausitüren due, eta ez güti. Jakitatez eta bestela ere, zinez aberastuko dira berak eta Euskal Herria. Lehenik Antoni Bresiliala igorten du Aragok. Han astronomiazko eta geografiazko berrogeita hamar ikertze egiten dütü, mañetismaren gora-beherak ekiaren arabera estüdiatzen dütüala.

Hogeita sei urteetan Agosti Xahoren ezagützeak egiten dütü Abadiak. Adiskidantzatan sartzten dira, eta algarrekin agertzen dütüe aipatuko dütügün bi obrak.

Ondoko urtean Etiopiala badoa Antoni. Han atzamaiten du Arño anaia, hura aitzinean joanik beitzen, bidearen egiteko bezala.

Manatzeko eginik da Arño. Etiopiako politikan sartzten da erdiz-erdi, gerlan ere ari da. Aitzindari egiten due hanko bürüzagiek. Güdüka handi bat irabazten du eta, horren ohoretan, « Ras Mikael » deituko due : erran nahi beita « Mixel printzea », ezi Aita bezala, Arño-Mixel deitzen da.

Oso bestelakoa da Antoni. Borroka ez dü maite. Jentea xüxenka bortxatü beno, üngürüz bildü nahiago dü, bere xedetara heltzeko behar den denbora hartüz. Bestalde ez da hainbat politikaria. Jakintzari baizik ez dü eskerrik : geografiari, astronomiari eta leküko mintzajer lotzen da errotik. Sail horietan oso jakintsü eta famatürik jeltkiko da, eta libürü hanitx izkiribatüren dü.

Zernahi gisaz, algar osotzen eta lagüntzen düe bi anaiek. Bere ikertzeetan, Arñoz eijerki baliatzen da Antoni jakintsüna.

Biak berantago Etiopiako negus edo errege izanen den Menelik handiaren adiskide dira. Bakoitxak bere gisan lagüntüren düe Etiopiaren batarzünari bürüz, bai eta ingeles eta italiarren aztaparretarik begiratzen.

Horri esker, hontarzün ederrak Etiopiatik ekarten dütüe : Antoniri ja, ederki baliatüko zaitzo jakintzaren eta eüskaldüngoaren honetan.



Hameka urtez Etioipian erauntsirik, kartielealat ützültzen dira bi anaiak (1848). Heben kokatzen zaizgü : Arño Ziburuko Elorriagan ; Antoni Hendaiako Aragorrian (1849an erosi züan) ; eta hirugerrena, Xarles, Baigorriko Etxauz jauregian.

Aragorrian, etxalte handi baten erdian (340 ha), Abbadiako jauregia altxatzen dü Antonik (1862-1870). Arxitekta Viollet-le-Duc famatüa dü.

Artean pe horietako andere batekin ezkontüko da (1859), bena haurrik gabe hilen da laueta hogeita zazpi urtetan (1897). Jauregiko txapelan ehortzirik da, altare pean, bere emaztearekin (1901). Honengatik, oso(ki) bereizi zen hain arraro züan anaiarenganik. Haren ehortzetan isilka zen izan, gordaxka.

Abbadiako leihoetarik zelüko izarren ikertzen ari zen, animaleko largabista elibatekin. Lan horren jarraitzeko, Institut delakoari ützi züan jauregia, üngürüko etxaltearekin.

Hamalau mintzaje bazakitzan : hamalau hizkuntza horietan izkiribatürik, erran zahar elibat ützi zütüan, jauregiaren barneko parete (e)ta arterrietan ederki marraztürik : lehen-lehenik eüskarazkoak pefosta.

Zientzia edo Jakintzen Akademian, lagüntzale bezala haütatu zuen ; laster akademikide oso egin züen ; eta azkenean, Akademia hortako president edo lehendakari ezarri züen.

Akademian ez züen nahi zonbaitek, ezi kiristi süharra zen, oso gaizki ikusirik beitzen gaüza hori denbora haietan ere. Arren gorritü behar izan züan Arago handiak. Jakintsü lagüner erran zeien, bixi-bixia : jaunak, gure haütüa-

ren egiteko, ez dizügu Abadiaren barneko sendimentü eta sinester kasü egin behar, bena kanpoko laner bera so egin. Bestelan ere, dohatsü holako sinestea düana. Nik ja, beste hainbeste nahi nikezü !



Geografiaz eta astronomiaz bezainbeste, eüskaldüngoaz axolatü zen. Eüs-kararen amorioa aitarenganik züan, segür ere, zeren oso eüskaltzalea zen Mi-xel Abadia bera .

Eüs-karaz izkiribatü züan Antonik, bereziki « *Zubernoatikako gutun bat* » (1864). Eüs-karatzaz eginik izan ziren azken lanen ikertze bat agertürük ba-züan aitzinetik (1859). Hortan Lucien Bonaparte printzearen eüskal lanak laüdatzen dütü, eta Inchauspe apezaren Aditza, « *Le Verbe basque* », oroz gaine-tik gorai patzen.

Bena izkiribüz beno haboro, aholküz eta dihartüz züan eüs-kara lagüntü. Lehenik pelotari lotü zen. Bera pelotakari eijerra zen eskü-hüska. Eskü joküa-ren alde primak eman zütüan, bai eta arrabote edo bota-lüzearen alde. Xistera plaza libroan ez züan hain begi honez ikusten. Haatik hura ere lagüntü züan. Urruñako arrabotea bere sakolatik egin zuan.

Gero Urruñan hasi zütüan koblakarien zoin-haborokak (1853an izan zen lehena), eta berrogeita lau urtez bere sosez etxeki zütüan. Mügaz haraintian ere, koblakarien bestak eta eüskal jeiak antolatzen zütüan.

Eüs-karaz ontsa mintzatzen ziren haurrer primak emaiten zeitzen Abadiak.

Donibane-Lohizüneko bestetan, lau etan hogeita hamabietik, parte handia hartü züan, jei horietan eüskaldüngoaz azkarki sartzen züala. Horrat deitzen zütüan koblakariak, pelotakariak, mügaz bestaldeko dantzariak, Xiberoko maskaradak eta pastoralak, Heguiaphal bat errejent agertzen zela ordükoz...

Eüs-karazko libürüak ere akülatzen eta saristatzen zütüan tai gabe. Eüskal-dünek deitzen züen « Aita Abadia », arrotzek aldiz « Eüskaldünen Aita », eta berak gogo honez oihü egiten zeien : « Zazpiak bat ! ».

Horiekin güziekin, Hendaiaiko mera edo aüzapez izateko artea ediren züan (1871-1875). Egia erran, herri txipi bat zen düala ehün urte Hendaiaiko hiria. Bena txipi ala handi, ez zatekean denbora hartan ere alkate hon bat iza-tea hainen aisa.

Ez zen sail hortan ere auher egon Abadia : zübü elibat egin zütüan, karri-kan argia ezarri, herriko etxea edo meria eraiki, plaja edo hondartza ere anto-latü, adelatü...

Politikan zoin alderditakoa zen ? Esküintiarra zaitzekan, bena errabiarik ez hertsikeriarik gabe. Hein bat erregetiarra zela üdüri lüke, bena hortan ere ez da gogor agertü.

Napoleon hirugerenaren adiskide zen. Honek Abbadiako jauregian azken harria ezarri behar zeion. Bena hiruetan hogeita hamarrean gerla galdürrik, enperadoreak hantxen behera joan behar izan züan, Biarritzeko mainüak ützirik. Arren harri bat ments edo eskaz baratü da geroztik Hendaiaiko Abbadian. . .

Karlista familia elibatekin ere, harreman tinkak bazütüan Antonik, bereziki Lardizabal eta Olazabaltarrekin.

Zernahi gisaz, ez zen politikazale beroa. Astronomia eta eüskaldüngoia zütüan bere amorioak eta inganioak.

Bestalde oso baketsüa zen, hona eta ezta : ez zütüan aharrak eta istoriak maite ; haietarik hürruntzen zen ahal bezainbeste.

Koblakarien zoin-haboroketan politikarik ez züan nahi : hiruetan hogeita hamaseian, deüs ere gabetarik egon zen, nahiz lehen prima merexi zükean, Zaldu-bi-Ademaren kantore bat, « Biba Errepublikak » delakoa : Errepublikaz trüfatzen zelakoz baztertü züen. Areta ez zen hüllanik ere gorrietarik Antoni Abadia !

II

Nor aldiz Agosti Xaho

Oso bestelakoa, besteak ez bezalakoa eta liferenta zen Agosti Xaho. Urte batez Abadia beno gazteago, Atharratzeko trinketean sortü zen. Hirur anaie (e)ta bi arreba zütüan. Aita herri hortako hüxera züan. Mauleko züan aldiz ama, Lagarde anderea, Agostina de Mirande baten alaba. Gehiena zen Agosti.

Denbora batez amañiarekin Maulen bizi izan zen, haurrean, Oihenart izkiribaino famatüaren etxen. Ikasle haütüa izan zen Oloroeko seminario txipian. Baxotik landa, Parisera joan zen, dretaren egiteko xedetan. Hortarako bere etxe parte hartü züan. Amak abantailatürrik, 12 mila libera hunki zütüan buxinkaka. Abadia batek seroratzean üken beitzütüan hiru milü, horietarik hürrün gira. . .

Halere, sos horri esker, gain-gainetik eskolatü ahal izan zen Agosti. Denbora libürütegitan igaraiten züan, satorra bezala libürü musurkan, errabiatürrik. Ez züan besterik egiten. Jatean ere irakurtzen ari zen : egia erran, aitaren ganik züan kostüma hori.

Salbü, Charles Nodier izkiribainoaren ezagützea eginik, dreta bazter ützi züan, eta literatürari lotü zen. Erromantikoen bürüetarik beitzen Charles Nodier, horrekin oso erromantiko egin zen Xaho : dena sü eta ke, odei eta txilimista, iñazi eta lano, euri eta düründa, zohardi eta ülünpe... Orotarik nahas-mahas, eta zonbait aldiz axeriaren ezteiak !

Ber denboran, bere frantsesa fiagotü züan, eta ekialdeko mintzaje zonbait ikertü, hala nola sanskrita eta Indietako beste hizkuntza elibat.

Ekialdeko errelijioneer interesatü zen halaber, eta errelijionez libürü harriarriak izkiribatü zütüan.

Hogeita hamalauan Bizkaiala joaiten da. Gerla da han, bi erregegeik piztürrik : Karlisten gerla. Alderdi batak, Liberalenak, Euskal Herriko autonomiak edo foruak elki nahi dütü. Besteak aldiz, Don Carlosenak, horien etxekitzea hitzemaiten dü. Arren Don Carlosen alde jeikitzen dira euskaldünak ; beren amoreagatik, karlista egiten dira. Areta ideiaz oso zahar gisa, gibeloi eta gibelkari da Don Carlos : bena beren autonomiak edo foruak begiratü nahi badütü, beste haütürrik ez düe euskaldünek.

Liberala da Xaho, ordünko exkertiarretarik da. Haatik, ikusirik beste alderditik dela euskaldünen libertatea, Karlista horien aldea hartzen dü. Gisa hortan dü izkiribatzen « *Paroles d'un Biscayen aux Libéraux de la Reine Christine* » delako libürüa (Palabras de un vizcaino a lors Liberales de la Reina Cristina) : Kristina Erregiñaren Liberaler, bizkaitar baten hitzak (1834).

Ondoko urtean, Nafarroan isilka sartzen da, han gainti baitabila euskaldünen aitzindaria, Zumalakarregi jeneral handia. Don Carlosek jakiten düalarik, Xaho hantik ohiltzen dü bertan. Ützüli ordüko, bere historia izkiribatzen dü Agostik : hori da « *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* ». J.A. Xaho de Navarre sinatzen edo izenpetzen dü.

Hor ere, abertzale oso agertzen da Xaho. Karlisten aldea etxekitzen dü berriez. Euskal Herriko zazpi probintziak beren gain eta algarrekin esküz-eskü nahi dütü.

Bi gaüza harrigarri erraiten deizgü : bata, Gernika etsaiek deseginen düela, euskaldünen hiri saintüa delakoz, eta hori badakigü ehün urteren bürüan agitü dela ; bestea, libertaterik ez dela Espainian izanen, euskaldünak hanko irautzaren bürü sartzen ez direno, eta hau orai gure begien bistan agitzen ari dena.

Harrigarriena, beharbada, Antoni Abadiak egiten deion batzarria edo honki jina : « *Voyage en Navarre* » libürüaren bildüma bat hontzen deio « *Bulletin de la Société de Géographie* » delakoan. Xahoren süzko izkiribüa eta gaitzeko abertzale-tarzüna edo herrizalegoa laüdatzen eta gorai patzen dütü azkarki Abadiak.

Berrogeita lauan **Ariel** kazeta jelkitzen dü Xahok. Hortik zortzi urtez ariko da literatüran eta politikan.

Mutiko mehats, lüxe bat da, beti sinpleki bezain ontsa beztü, eleganta, eijerki mintzo, maitagarria, bena ber denboran ezinago minbera eta gaitzikor. Norbaitek tzistatzen düalarik, izigarri fiki, zorrozki eta bortizki bere kazetan ihardesten deio. Holaz aisa dü etsai zombait egiten.

Haren artikülü bat norbaiti ez gustatürrik, ezpata esküan esplikatü ziren Xaho eta bestea. Etsaia mihian tzistatü nahi üken züan Xahok, bena besteak artetik saihets ezür batetan zauritü züan.

Lespès izeneko bat züan bere inprimazalea. Oso adiskidetü ziren, eta Lespèsen familian bizi izan zen hil artino Agosti. Hor beti lagüngoia ederrena üken züan. Ez zen ezkontü ere.

Ordaiez, horko seme bati eskola egiten zeion. Jüje izatera heltü zen Lespès gaztea, eta düala berrogeita lau urte Baionan hil da. Oso zahartürrik ezagütü dü Aita Lafittek, eta balüke horrez zen erran.

Berrogeita zazpian, Eüskaldüenen historia bat hasten dü Xahok, Beltzuntzeko jaun batekin esküz-eskü. Oso erregetiarra zen jaun hori.



Ondoko urtean, irautlza da Parisen, eta bigerren Errepublikä nausitzen da han. Baionan aldiz, zelütik zer eroriko zaien haidürü dira, ordükoz. Bena ez dira güziak lo. Errepublikaren aldeko minoria txipi bat bada. Horren bürü pentsa nor den : gure Xaho debrüa !

Zeren oro Errepublikaren alde biltzen dütü : lehenik popülüa, gero armada eta jaunak, azkenekoz Eliza.

Harispe jeneralari « gora Errepublikä » oihü eginarazten deio, eta apezkü-püari kantarazten « Domine salvam fac Rem Publicam », Jauna salba ezazü Errepublikä ! Oro botzik dira, bena ez Xaho. Ezi laster ohartzen da ez dela deüs ere kanbiatürrik, erresumako nausiak baizik. Eta oposizionean sartzen da arrunt.

Garda Nazionaleko aitzindari ezarten düe baionesek. Herriko kontseilüan sartzen da, bai eta Paueko kontseilü jeneralean. Han eüskaldün laborari eta artzainen dretak, züzenak eta eskübideak zaintzen dütü arraheinki. Urte haie-tan, errebolta edo jazarkünte bat bezala izan zen iparraldeko Euskal Herri hontan. Ehünka bildü zen jentea, eta borroka gogorrak izan ziren, bereziki Atharratzen, Oztibarren, Amikuzen eta Mehainen.

Herri lürretako oihanetan kabalen alharaztea eta oletan (etxoletan) behar ziren zur eta egürraren hartzea debetatürik züan Napoleon lehenak. Bena Errepublikak nausitü zenaz geroz, lege zaharra bere osoan berriz nahi züen xiberotar eta baxenabartarrek.

Xede horren alde mintzatü zen Xaho, Haritschelhar jaunak Etxahun-Barkoxez egin düan libürüan erakusten deigün bezala. Kontseilü jenerala Pariseri legearen xüxentze baten galtatzera akülatü züan, eta hola eginik izan zen.

Berrogeita zortzian, depütatügoala presentatü zen Xaho, bena ez züan irabazi. Ondoko urtean berriz eraunsi züan. Bozkan ari zelarik, karrosa arroi-lalat iraüli zeion eta bera mankatü zen. Bere etsai batek, Beaumont konteak eraiki züan, eta egün zonbaitez bere etxen artatü ere. Bena Xaho hil zelako fama kurritü zen. Hogeita hamar mila botz bildü zütüan halere, eta igaitea zonbaitez hüts egin !

Berrogeita hamabian, beste ahairerik entzünen dü Xaho gaizoak. Ariel kazeta debetetzen deio Napoleon III.ak, eta gure xiberotar kartsüa erresumatik ohiltzen dü. Urte batez Vitoria / Gasteizen biziko da Xaho. Aita eritürrik, haren gana tüzültzea eskatü züan, eta ardietsi ere. Hura hil zeiolarik, Baionan kokatü zen berriz.

« *Règles de l'orthographe euskarienne* » delako (libürüxka) bat izkiribatü züan. Eüskal hiztegi bat hasi züan, bai eta eüskal kantoreen libürü bat. Etxahun-Barkoxe ihon ere ez dü aipatzen. Areta, depütatügoalako bigerren bozketan, Xahoren alde kantore bat hontü züan Etxahunek, bai eta Xahori Lespès inprimategian inprimarazi, Haritschelhar jaunak erran delako libürüan ekarten düan bezala. Hots algar ezagützen züen Etxahunek eta Xahok.

Haboro dena, Xahoren bi anaiek Etxahunez egin züen libürüxka bada nonbait, eta ez hürrün : Pierre de Souhy jaunak dü orai horren esküizkiribüa. Arren Etxahun zertako ez dü aipatzen Agostik ? Bera jauna zelakoz ote ? Bena badakigü jente xeheen aldekoa zela errotik, ez hitzez bera, bena obraz ere bai.

Bestalde, oso jaun txipia hingatü zen gaizo Xaho : ahal bezala bizi zen bere kazetatik, libürüetarik eta baten-besteetan etxen eskola egitetik, üsü ja zorren pean itorik.

Etxahunenganako isiltarzünak arrazua hau düke balinba : bozkan ari zela Xaho. Eta nahiz oro sü zen, eta marroa bezala xüxen koskatzen, zonbait aldiz phürü bazakian gäizen üngürütik hartzen : berrogeita zortziko iraültzan zoin abillki jokatü zen badakigü.

Eta beste behin « L'Eclairer des Pyrénées » izeneko kazetaren aurka üken züan eztabaida bizi eta bortitz batetan, hau erran züan : segürki Frantziaren

batarzüna ez züala ürratü nahi, eta federalisma mügaz haraintiarentako üzten züala. Aldiz Zapiak-bat (delakoa) nahi züala badakigü. Bena berrogeita bederatzüko bozken mezperan zen eztabaida hori.

Ber gisan, ez dügü ahatze behar jente hanitxen begietan gaizkiegile bat zela Etxahun. Hon beno hobe ote zen, politikari batentako, horrekin nahasirik bezala agertzea ? Ez zait üdüri.

Misterio horren beste argibide bat hau date beharbada : Xahoren püritanisma. Zeren apez kartsü bat bezala bizi izan da, emazteen eretzeko bezala beste sail orotan.



Berrogeita hamazortzian hil zen, berrogeita zazpi urtetan, Baionan. Hantxo hilerrietan ehortzirik da, harrizko itxüra baten pean. Elizan igaran gabe ehortzi züen : Euskal Herrian gisa hortako lehen ehortzeta izan zen hori, eüskaldün batentako ja, üdüri düanez.

Geroztik Jinkoan sinesterik ez züalako fama oso nausitürik dügü. Berriki agertü den libürü batetan ere hontan gira. Arren Xahoren izkiribü elibat horrez ikertü behar üken düüt, eta düda gabetarik erraiten ahal deizüet Jinkoan sinesten züala Xahok. Filosofen Jinkoa da horrena, Voltaire eta Rousseau bezalakoen Jinkoa, eta ez Jesü-Krist. Gizon handi batentako üzten dü hau, besterik gabe.

Haatik filosofa horietarik bereizten da Xaho, erranez gizonen librazale direla Jinko bakoitx batetan sinesten düen errelijioneak. Salbü bere denborako apezak kontserbadore zaitzon bezala, bortizki jorratzen dütü. Zientzian edo jakintzan konplitüko da hark nahi düan errelijione orokorra, oekümenikoa. . .

Halere eüskararen alde lan egin dü apez elibatekin, eta bereziki Inchauspe kalonjearekin adiskide bezala zen.

III

Abadia eta Xaho: bi abertzale

Hots oso desbardinak dira Xaho eta Abadia : bai sortzez, bai jitez, bai bi-
zipidez, bai sinestez, bai ideiaz. Arren algarrekin zerbaiten egitera zerk lehia-
tü zütüan ?

Alde batetik gazte ziren, biak adinak. Bestetik biak xiberotar hüme ziren,
eta eüskaldüngoia oroz gainetik maite züen. Hots eüskaltzaleak ziren errotik
eta, egia osoa aitor dezagün, abertzaleak ziren, herrizaleak, hots « Zazpiak-
bat » horren aldekoak.

« *Voyage en Navarre* » libürüaz Abadiak egin züan aipamena ikusi dügü.
Ondoko urtean, hogeita hamaseian, « *Etudes grammaticales sur la langue basque* »
libürüa algarrekin agertü züen biek. « Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner »
eskentürük da. Sartzeko hitza Abadiak sinatzen dü, A. Th. D'Abbadie de Na-
varre izenpetürük. Ezi Nafarroako erresuman da Euskal Herriaren bürüa, han
gure bihotza, aspaldiko menteetan.

Bai, Euskal Herriaren amorioan bildü dira Xaho eta Abadia. Areta, ber
amorioa balin badüe, eüskaldüngoia ez düe bardin ikusten batak eta besteak.

Jauna zen Abadia, nahiz xehea, eta ber denboran kanpañakoa. Kiristia zen,
apeztiarra zen, xuria zen : eüskararen salbatzeko, apezzen gain kontatzen
züan^I. Bestalde galanta zen, aharren etsai. Azkenekoz politikan ez zen hain-
bat agertzen.

Zerbaitetako züen « Eüskaldüngoaren Aita » deitü. Eta geroztik ere, ontsa
merexitü dü. Ezi orai artinoko eüskaldüngoaren Aita izan da, iparralde hon-
tan phürü : « eüskaldün-fededünen » Aita, kältürazole hütsen Aita, koblaka-
ri zoin-haboroken Aita. Hots hegoaldean « apolitica de derecha » deit liroien
eüskaldüngoia baten Aita. Bena hori gabe, non zatekean orai iparraldeko eüs-
kaldüngoia ?

Aldez oraiko eüskaldüngoaren profeta dügü Xaho : Enbataren eta EHA-
Sen aitzinekoa, beste zonbait alderdi aipatü gabe. Hiritarra zen, gorria zen,

^I Areta, apez eüskaltzaleekin esküz-eskü erauntsi balin bazüan Abadiak, Elizaren bürü-
zagiekin ez zen hain ontsa jelki. Seminario handian bere diharüz eüskararen irakasteko aulki
baten erakitzea eskentü beitzüan, eskübide hori ükatü zeien diozesako aitzindariak. Gober-
nükio eskoletan bezala, Baionako seminario handian eta Larresoroko seminario txipian debe-
tatürük zen eüskara.

politikazalea zen, borrokaria zen : abertzale politika sozialistaren piper gorria euskaldüngoan sartü deigü. Eta piper gorriz azkar agertzen zaigü oraiko eüskaldün gazteria, iparralde hontan ere.

Bai, gatza bezain fi eta sükrea bezain gozo bazen Abadia, piper gorria dügü Xaho. Bena saldak, hon izateko, ez dü behar ez gatxotx, ez hil. Gatza eta piperra biak behar dütü aski azkar. . .

Ez ote dü Abadia eta Xahoren beharra, bi-bien beharra Euskal Herriak ?

Nahiz nihau politikan Xahotiarra nizan, eta piperrada hein bat mingar maite düdan, xiberotar hanitxek bezala, uste düt bai zerbait ekarri eta ekarten deigüla Abadiak ere : nik ja ez düt ükatüko. Haren erreljionea phürü Xahorena beno nahiago düt. . .

Biak ez balira izan, ni beldür heben egün, gure aita-eta-amen eüskara plainean gozatzeko partez eta ordez, frantses gaixto batetan tarrapataz ari behar günükeala, txipi eta handi hanitx üsü ari diren bezala.

Arren Abadiak oihüstatzen züan bezala : « Zazpiak bat » ! Xahok kantatzen züan bezala : « Jeiki, jeiki etxenkoak ! » Eta Santa Grazin dioien bezala : bürüa altxatzen badügü, bizirenko da Euskal Herria, Allah Goihena !!!

Jean-Louis Davant
Euskaltzaindian sartzean
(Separata) Euskera XXII (2. aldia)
1977 (urtarriletik ekainera) Bilbo

ABADIA ÜRRÜSTOI *PASTORALA*

*XIBEROKO IKASTOLEK EMANIK*¹

1985 udan idatzi nuen, xede bakar honekin : herritar handia ezagutarazi nahi nuen. Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian aipatua nuen, gero artikulu batzuetan ere bai, eta hegoaldeko herri batzuetan are gehiago mintzaldiz, euskaltzain kontu, XIX. mendeko Euskal Jaien mendeurrena ospatzen zutelarik : Beran (1980), Irunekoa Hendaian (1981), Markinan (1983)...² Baina nire idazki eta prediku guzien despit, Antoine d'Abbadie beti berdin ezezaguna egoten zen, iparraldean bederen. Beraz iduritu zitzaidan ezagutarazteko bideirik hoberena zela euskal antzerki zahar eta sekula baino arrakastatsua. 1986an aurkeztu nuen Durangoko udalak bere lehenbiziko Euskal Jaien mendeurrenkari antolatu zuen antzerki lehiaketara, eta sari berezi bat erdietsi. Laster udalak testu osoa publikatu zidan liburutto batean : *pastorala* osoan bere 510 bertset edo bertsoekin, gehi Antoine d'Abbadieren biografia laburra, ohar bat eta emendio bat. Antzezteko luzea baitzen, *pastoralaren* laburpen batzuk proposatzen nituen hor berean, nire idazkia 165 bertsoz gutituz.

Gero Zuberoako bi ikastolek (Atharratzekoak eta Maulekoak) antzeztu zidaten 1990ko udan, Battitta Urruty errejent mitikoa gidari, bi aldiz Maulen, hirugarrenik Donibane-Lohizunen, laugarrenik Arrasaten, bosgarrenik Oiarzunen, arrakasta handia lortuz denetan. Hor lehentze agertu ziren « türk andereak », Luxi Camus Etchecopar « Ximenak » proposaturik, eta nire bitartez Urrutyk onarturik. Durangon agerturiko testua berrehun bat bertsoz murriztu nuen, eta hona nola zen argitaratu libretean.

¹ Libreteko azalean agertzen den titulua.

² Eta geroztik Durangon (1986), Iurretan (1991), Donibane-Lohizunen (1992), Eibarren (1997), Areatzan (1997).

ABADIA ÜRRÜSTOI TRAJERIA³

Idazlea: Jean-Louis Davant

Errejentak: Battita Urruty

Emaileak: Xiberoko ikastoletako⁴ haur, erakasle eta etxeakoak.

Pastoraleko arizaleak

I– Blü / urdinak : « Kiristiak »

Mixel Abadia (aita) : Dominique Uthurriborde, Eiheraberria, Barkoxe.

Elisabet Thompson of Park (ama) : Margarita Etchart, Bildoze.

Antoni Abadia jakintsüna (semea) : Mixel Arotce, Garindaine.

Birjina (Virginie de Saint-Bonnet), esposa : Solange Chimich, Muskildi.

Arño Abadia, Antoniren anai gaztea : André Guïresse, Onizepea.

Xarles Abadia, anai gazteena : Jean-Louis Chimich, Muskildi.

Haurren gobernanta : Anne-Marie Bidart, Maule.

Wolfe Tone : Pepela Mirande, Garindaine.

J. Napper T. : Jean-Do Iriart, Aloze.

Bompard amirala : Pierre Estecahandy, Sohüta.

Humbert jenerala : Jean-Pierre Bordagaray, Urdiñarbe.

Agosti Xaho : Jean-Do Iriart, Aloze.

Arago jakintsüna : Marcel Bedaxagar, Maule.

Guoxo etiopiar printzea : Pette Guïresse, Onizepea.

Larralde-Dibusty, Urruñako auzapeza : Mattin Etchecopar, Irabarne.

Lehremboure abokatüa : Maddalen Araguas, Irabarne.

Harriet apezka : J. Léon Mazusta, Bildoze.

³ Sarrerako orrialdean agertzen den titulua.

⁴ Atharratzeko ama-eskola eta Mauleko Eperra ikastola (ama-eskola eta lehen maila).

Sarako auzapeza : Daniel Rosier, Maule.
 J-B Elissamburu poeta : Dominika Agueraray, Urdiñarbe.
 Elizondoko alkatea : Pantxika Duperou, Onizepea.
 Viollet-Leduc arkitekta : Jean-Pierre Agueraray, Urdiñarbe.
 Santa-Cruz apez karlista : Frantxoa Camus, Onizepea.
 Donibane Lohizuneko auzapeza : Mixele Tauzin, Maule.
 Menelik II, Etiopiako erregea: Pierre Erguy, Ündüreine / Jean-Pierre Davant, Larrabile.
 Etiopiako erregiña : Monique Croharé, Maule.
 Etiopiako enbaxadorea : Bernadette Belleau, Sohüta.
 1. andereñoa : Dominique Mirande-Monge.
 2. Andereñoa : Annick Thobie, Sohüta.
 Bedezia (medikua, sendagilea) : Christiane (Arotce), Garindaine.

Ikastolako baurrak :

Peio Martinez, Aintzane Martinez, Henri Dascon, Otxanda Iriart, Haizea Angulo, Mikaela Guiresse-Duperou, Miren Arbouet, Helena Hoqui, Ekaitz Mazusta, Anita Camus-Etchecopar, Julien Lucuix, Marie Gouilliard, Mikael Armendariz, Emilie Rosier, Amaia Arotce, Maiaita Guiresse-Lephaille, Nicolas Armendariz, Flora Uhalt, Maylis Irigoyhen, Joanes Etxebarria, Maguy Mirande, Ddidue Etcheberry, Elena Hastaran, Gisèle Othatce-guy, Maddalen eta Maite Libilbehety, Joana Arhancet, Johaño Etchebest.

II- Gorriak : « Türkak »

« Türk » aitzindari eta soldadoak :

Natxo Angulo, Idauze
 Jean-Pierre Arbouet, Altzai
 Jean-Marie Ayçaguer, Bildoze (Thompson)
 Allande Etchart, Bildoze (Garant)
 Jean-Jacques Etcheberry, Urdiñarbe (Cornwallis eta Don Pedro)
 Frantxoa Hastaran, Maule
 Marc Irigoyhen, Maule
 Arño Uhart, Muskildi (Browning).

« *Türk* » *andereak* :

Mixele Dronde, Bildoze (Kahina)
Luxi Etchecopar-Camus, Onizepea
Odette Etchegoinberry, Urdiñarbe (Doña Pilar)
Maite Lephaille, Onizepea (Gala)
Marie-Claire Libilbehety, Lexantzü (Doña Carmen)
Pantxika Narbeburu, Urdiñarbe.

Satanak :

Agnès Aguegaray, Urdiñarbe
Marcel Bedaxagar, Maule
Marie-Hélène Bedaxagar-Aguegaray, Urdiñarbe
Jean-Pierre Bordagaray, Urdiñarbe
Karine Chimich, Muskildi
Maite Davant, Larrabile
Maritxu Davant, Larrabile (Marigaitz)
Maddi Jaureguiberry, Maule
Patrick Queheille, Barkoxe (Hattan).

III– Erdikoak eta orokorrak

Abuna, Etiopiako patriarka : Piarres Lacroix, Onizegaine.
Apeza : Francis Martin, Maule.

Aingüriak :

Argitxu Camus-Etchecopar, Juhane Dascon, Santiana Guiresse-Duperou,
Maia Hoquy, Otxanda Iriart, Aurore Martin.

Plaza andereak :

Maite Casabonne, Joana Etchart, Maritxu Lacarrieu, Aintzina Mazusta,
Nathalie Uthurriborde.

Artzainak :

Dominique Aguegaray, JohaÑe Arotce, Jean-Mixel Bedaxagar, Frantxoa
Caset, Jean-Louis Chimich, Olivier Chimich, Jean-Pierre Davant, Mari-Graxi

Davant-Aphaule, Allande Etchart, Jean-Jacques Etcheberry, André Guïresse, Pette Guïresse, Maurice Hoquy, Jérôme Irigoyhen, J.Léon Mazusta, Pepela Mirande, Arño Uhalt, Dominique Uthurriborde.

Artaldea : J-P. Davant eta M-G. Davant/Aphaule, Zabalaina, Larrabile ;
tzintzarrada : Pierre Recondo, Ezpeleta, Sohüta.

Sonüegile : Lucien Afiosek gidatüriko txaranga.

Libret axala : Gonzalo Etxebarria (Uztaro), Barkoxe.

Fotokonposaketa : Lantzer, Ozaze (J-P. Intçagaray)

Inprimatzailea : Imprimerie des Gaves, Denguin (Biarnon)

Lege gordailüa : 1990ko ütztaila.

EDIRENGIA (argitaragabea)

Lehen perediküa

I – Lehen zatia – Abadia eta Irlanda.

1. jekaldia : sataneria.

Kanta 1 : Herriari agurra.

2. Mixel Abadia (Antoni jakintsünaren aita) irlandar abertzaleekin.

3. Wolfe Toneren güdüka eta heriotza.

Kanta 2 : Irlandesen balada.

4. Mixel Abadia ezkontzen Elisabet Thompson of Park irlandesarekin.

5. Familia Irlandatik ützültzen.

Kanta 3 : Agur Irlanda.

II – Bigarren zatia : Kontinentean Antoniren gaztaroa (gazte denbora).

6. Antoni gaztea ikasle distiranta.

7. Antoni Abadia eta Agosti Xaho eüskararen aldeko alkarlanean.

8. Arago jakintsüna Antoni Abadia ikerzale gaztearen gidari.

III- Abadia anaiak Etiopian.

9. Antoni Etiopian Arño anai gaztearen gerizan.

10. Arño, Guoxo etiopiar printzearen lagün.

11. Arño güdalbüü Guoxo printzearen alde.

12. Xarles anai gazteenak Antoni eta Arño amarengana ekarri.

IV – Lapurdin : gizona, jakintsüna, eüskaltzalea.

Kanta 4 : Ene herria.

13. Urruñako Euskal Jaiak, Lore Jokoak barne.

14. Sarako Lore Jokoetan J-B. Elissamburu herritarra nausi « Maria » poemarekin.

Kanta 5 : Maria.

- 15. Elizondoko Euskal Jaiak 1879an : Arrese-Beitia bizkaitar olerkaria müs.
- 16. Antonik birjiniari ezkontza proposatzen.

Kanta 6 : Esposen osagarriari topa !

- 17. Antonik Hendaiako Abbadia jauregia Viollet-Leduc arkitektari egina-razten.

Kanta 7 : Astronomoaren otoitzea.

- 18. Bigarren Karlistadan Antoniren düdak.
- 19. Santa-Cruz apeza karlista maki baten aitzindari.
- 20. Santa-Cruz Eüskal Herritik ihes.

V – Bosgarren zatia – Azken ürratsak.

- 21. 1892an Abadiari omenaldi handia Donibane Lohizuneko Euskal Jaietan.

Kanta 8 : Agur eta ohore Euskal Herriari.

- 22. Menelik II, Etiopiako erregea, italiano armadari bühürtzera.
- 23. Meneliken garaipenaz botzik Antoni.
- 24. Antoni eta Birjina eüskal eskola baten ürgazle.

Kanta 9 : Izar ontzi batetan.

- 25. Antoni azken hatsetara 1897ko martxoaren 19an, 87 urteetan.

Kanta 10 : Abadiaren azken otoitzea.

- 26. Artzainek hil mezüa kabaleer.

Kanta 11 : Artzainen kantorea.**Azken perediküa.**

- Kanta 12 : Ürrüstoiko herria.

LEHEN PEREDIKÜA

- 1- Jinkoak dener zorihon / haurride maitagarriak
Zazpi euskal herrietarik / batarzünean jarriak.
- 2- Egünko gure süjeta / mündüan da famatüa
eüskaldün handienetarik / Antonio Abadia.
- 3- Aita züan Ürrüstoiko / irlandarra berriz ama
Bera jakintsün elki zen / bereziki astronomak.
- 4- Etiopia ikertü züan / bere anai Arñorekin
Eta hameka urtez han / hanixko lan züen egin.
- 5- Hendaian eraiki züan / Abbadia jauregia
Eta hartan adelatü / zelüaren ikergia.
- 6- Jakintzen Akademian / izentatürrik izan zen
Eta denborarekila / batarzüneko president.
- 7- Eüskararen süstatzeko / Euskal Jaiak antolatü
Koblakarien primakak / han zütüan saristatü.
- 8- Eüskaldünen batarzüna / beti beitzüan txerkatü
« Eüskaldünen Aita » izena / ederki dü merexitü.
- 9- Honki hanitx zor deiogü / zazpi euskal herrietan
Eta harekin dabilta / kosmonautak izarretan.
- 10- Omenaldi, gorazarre / Antonio Abadia
Zure ohoretan egün / hona besta bat handia !

I

LEHEN ZATIA

Abadia eta Irlanda**I. jekaldia***Satanak : Hattan eta Marigaitz.*

- Marigaitz I1- Errak Hattan, bizi hiza / asperra egotxi düka ?
Pausüa ützezak orai / arrapitz dadin güdüka.
- I2- Pe hortarik manü zonbait / üken baitütüt azkarrak
Sakolatik behar dütüük / laster elki aztaparrak.
- Hattan I3- Gure beharrik ez diñe / aspaldi hontan gizonek
Feit handirik ez beitüe / Lüziferren xede honek.
- I4- Hain dütüün ürgüllü jankinak / oilarrak handi nahian
Gerla pizten diñe berek / epantxütik ken gitean.
- Marigaitz I5- Isil hadi arnegata / zaparta bat bildü gabe
Auher natreä zotüka / lanean ez izan herabe.
- I6- Katoliko, protestantak / behar dütiagü bereizi
Xuri, beltzak, eüskaldünak / algarren aitzi nahasi.
- Hattan I7- Holako jendarmasarik / izan daitea oitean ?
Aharrak ahatz ditzagün / bi frisaten emaitéan.
- I8- Gero joanen gütüün biak / manü hoién betatzera
Hauts pean lö dauden / inkatzen atitxatzera.
- Marigaitz I9- Holaxe maite hait Hattan / osoki deprüz eginä
Argiaren üdüria / Lüziferren ihakina.
- 20- Jente güzia sar bedi / orai gurekila plazan
Arrenküarak ahatzerik / mündü osoaren dantzän.

Kanta I : Herriari agurra

(Mixel Abadiak)

- 21- Bazoaza, bazoaza, eki soberanoa
Eta ni ere behera, bena zü gabe noa
Biziaren isurian, agian ez betiko
Etxeko, haurride, lagün, herritarrak adio !
- 22- Hilabeteka, urteka, biziaren morkotik
Nola bihikatü diren ene amets ederrak !
Ez dira ene tristürak ardüratzen bazterrak
Bedatsea segür düe bardin negü zokotik.
- 23- Enetzat lekürük ez da lür xoko maite hontan
Peko lano hotzetara isurten nai ühinak
Egoiten denak balazki oi ene bihozminak ! (berriz)
- 24- Zabaltzatik Ühaitzeala eraisten nüzü builtan
Üngüradan azken so bat egiten deizüt düdan
Bena hotzik üzten zütü, herria, ene penak. (berriz)
- 25- Eüskal Herria, sobera zira maitagarria
Zertako zutan sor eta zütan ezin bizia ?
Zoin dohatsü den ez daki heben ohatzen denak. (berriz)

Hitzak : J-L D.

Abairak : P.P. Berzaitz.

2. jalkaldia

Mixel Abadia, James Napper, Tandy, Wolfe Tone (1798).

- Abadia 26- Irlandar adiskideak / züen ganat ihes jina
Errezebitü naizüe / haurride baten bardina.
- 27- Handia da ene zorra / eta horren ordaitzeko
Düdarik gabe nizate / prestik züen lagüntzeko.
- J. Napper T. 28- Irlandesen batarzüna / nahi dizügü zonbaitek
Ber züenak üken ditzen / katoliko, protestantek.
- 29- Ingalaterrak behar ditizü / irlandesak ezagütü
Legeak arraberritüz / oro bardinak honartü.
- Wolfe Tone 30- Nihaur protestanta nüzü / bena lehenik irlandes
Katolikoak baztertüz / etxekitzen gütü ingeles.
- 31- Bardintarzüna behar da / Frantzia hortan bezala
Oro anai eta libro / iräültzaren etsenplüala.
- Abadia 32- Hürrüntik eder iräültza / hüllantik ez da ber gaüza
Hitzetarik obretara / lüzatzen da bide gaitza.
- 33- Katolicoa hertsatzen dü / Errepublika den Frantziak
Eta eüskaldünak dira / fanatikotzat ütziak.
- 34- Hortako niz Irlandalat / azkenean jina
Iräültzaren katexima / ez düzü ene doktrina.
- J. Napper T. 35- Nor bere doktrinarekin / goatzan bertan obratzera
Katolikoek züenekin / Irlandaren libratzera.
- Wolfe Tone 36- Nazione bat da Irlanda / ingelesek nahi ala ez
Jakinaraziko dügü / gure dretaren bertütez.
- 37- Aski ez bada züzena / armak hartü behar dütügü
Lagüntüko gütüzüa / hortako prestatzen phürü ?

- Abadia 38- Soltüra zor dereizüet / eta balinba bizia
 Gogo honez eginen düet / ahal dükedan güzia.
- 39- Arma egile treberik / badago Bilbo handian
 Erakarriren deizüet / zerbaüt itxasoz agian.

3. jelkadia

Agertzen dira ingelesak : Cornwallis errege ordaria eta zazpi soldado, haietan Browning, Garant eta Thompson.

Cornwallis 40- Irlandesak ertzotürik / jeiki zaizgü armekila
Haien hezteko heben niz / erregearen makila.

41- Herroka tinka dezagün / basa horien aitzinean
Hüllantzera ützi eta / batetan tir(a) azkenean.

Agertzen dira irlandesak eta bi frantses : Bompard amirala eta Humbert jenerala.

Bompard 42- Berant eta güti bena / züengana jin girade
Güdükatzera fidelki / libertatearen alde.

Gudüka. Ingelesak nausi. Presoner daude James Napper Tandy, Wolfe Tone, Bompard almirantea eta beste frantsesa.

Garant 43- Frantsesak soldado dira / ontsa trata itzatzüe
Horik aldiz terroristak / ürkatüko dütüzüe.

Wolfe Tone 44- Güdari gira gü ere / Irlandaren askatzeko
Hil behar bagütüzüe / armak egar ehaiteko.

Thompson 45- Ederregi lizateke / hiltze hori züentako
Soka mütür baten püntan / ziradeie jünpatüko.

Jauzi batez jenteen artealat ihes egiten dü Napper Tandyk. Wol Tone preso ezarten düe. Badoatza.

Wolfe Tone 46- Terroristak omen gira / Irlandaren egileak
Soldadoak deitzen aldiz / Irlandaren ehaileak !

47- Gezür horren zerbütüko / indar franko badüzüe
Bena soka baten junpan / ikusiren ez naizüe.

Bitre bat hausten dü eta buzinka batez züntzürrean sako bat egiten.

Wolfe Tone 48- Odol hüstürik hilen niz / Irlandaren soldadoa
Hatsa düdano erranez / « Gora Irlanda libroa ! »

Eta bürdüin marrer etxekara, emeki-emeki lürrealat lerrätzen da.

Kornamüsa entzüten da.

Irlandesen balada kanta emazteek.

Kanta 2 : Irlandesen balada

- 49- Wolfe Tone, Wolfe Tone, Wolfe Tonen bihotza
Maitasunez ebaki da, Eirelanda, zuretzat.
- 50- Eirelanda zatitua, Eirelanda maitea
Zuregatik hetsi zaio kartzelako atea.
- 51 – Odolezko izerdiaz agonia luzean
Azkenekoz ito zaitu askatasun goseak.
- 52- Belfasteko geto beltza sutan dago zuretzat
Oihu gorritz agurtzen du zure azken urratsa.
- 53- Bobby Sandsen azken hatsa denengatik emana
Karrikaren beltzean da lore gorritz ereina.
- 54- Bobby Santzen, presoneren, martirien eskaintzak
Batasunez har ditzala eirelandar bihotzak.
- 55- Protestante, katoliko, eirelandar guziak
Elgarrekin behar ditu herriaren biziak.
- 56- Zapaltzaile beren aurka populua bildurik
Zure hatsaz aska dadin aberria baturik.
- 57- Bobby Sandsi, Bobby Sandsi, Bobby Sandsi agurra
Eirelanda guziari euskaldunen ahurra !

Hitzak : J-L D.

Abairak : ingeles berrikoa.

4. Jelkaldia

Mixel Abadia, Elisabet Thompson of Park.

- Mixel Abadia 58- Elisabet, azkenean / bi-biak gira gertatzen
Bürüz-bürü mintzatzea / beinüan beti txerkatzen.
- 59- Beraz maite zütüdala / behar dereizüt aitortü
Bena besterik zer erran / hitz ederrak zaizt agortü.
- Elisabet 60- Holako zerbaiten lotsa / banizün bai builta hontan
Emazte baten asmüa / xüxen beita gaüza hortan.
- Mixel 61- Enekin lanjer düzüla / zergatik düzü pentsatzen ?
Xede hoberenak ditit / ezkontza deizüt eskentzen.
- Elisabet 62- Zütaz düdarik ez dizüt / estimü handitan zütüt
Zure galtoaz halere / apür bat nüzü harritü.
- 63- Katolikoa beitzira / eta nihaur protestanta
Bi elizen begietan / ni nükezü ogendanta.
- Mixel 64- Ber Jesü-Kristo beitügü / ezkontzaren finkatzale
Elizak ezin dirate / haren legearen hausle.
- Elisabet 65- Ai, gizon ziren bezala / haurrak dütüzü ahazten
Bi eliza direlarik / zointan ote dira hazten ?
- Mixel 66- Katolikoak beitira / heben abantxü güziak
Protestantak daude bortxaz / popülütik bereiziak.
- 67- Bardin da Eüskal Herrian / eta haren aüzoetan
Gustüanago dirate / haurrak katolikoetan.
- Elisabet 68- Ez nizün beste beldürrik / arrazu düzü halere
Haurren geroagatik / hobe date düda gabe.
- 69- Protestanten elizatik / hasirik nintzan hürrüntzen
Katolikoan sartzea / orai düt arren haütatzen.
- Mixel 70- Akort girenaz geroztik / ez gaudela düda-müdan
Ezkontzaren prestatzera / goatzan maitea segidan.

5. jelkadia

Berriz Elisabet eta Mixel.

- Mixel Abadia 71- Sakrifizio handi bat / behar dereizüt eskatü
Irlanda maitea ütüz / herrialat gei dit hüllandü.
- Elisabet 72- Hatsarretik ari nintzan / noizko zatekean ote
Arren hebenko denbora / laster dikezügi bete.
- 73- Ez zeneitan aipatü / bena banakizün segur
Zurekilan ezkontzean / ez nintzatekeala zühür.
- Mixel 74- Emazte güziz maitea / pena handiz dit ikusten
Zure malürra eginik / bizia deizüt itsusten.
- Elisabet 75- Ez, ez, irus izan nüzü / bena heben bizitza
Ez zatekeala betiko / sendi nizün bihotzean.
- 76- Aintera üdan bezala / hegoaldetik jin zinen
Horra ziküzü negüa / ez deizü honik eginen.
- 77- Gure haurrentako ere / ützültzea dügi hobe
Irlandaren izatea / orai beita dohakabe.
- 78- Zure (e)ta haurren amarez / ürrats hori dit eginen
Agur Irlanda betiko / honarat ez niz arrajinen !
- Mixel 79- Zure bihotzaren hona / ezin dit aski laüdatü
Penaz banoa ni ere / Irlanda beität maitatü.
- 80- Zurekin ezkontzean dit / üharte hau esposatü
Heben haurrak üken eta / heben zurekin altxatü.

Agertzen dira lau haur beren gobernantarekin : bi pottiko eta bi neskatxuna. Elisabetek eta Mixelek Irlandari adioak kantatzen dütiie.

Kanta 3 : Agur Irlanda

- Biak 81- Gaelen herri berdea, oi sorlekü eztia
 Habiarik eijerrena hurean pausatüa
 Egün agitzen ziküzü txori hümeer bezala
 Zure axolbe goxotik jauzi egin behar dügüla.
- Elisabet 82- Paradüsüa galdürük, egün penetan gaude
 Baratze berri batetan kontsolatüren gira
 Hüllantü behar beitügü laster Eüskal Herrira
 Bigerren herri berdean laketüren girade.
- Mixel 83- Bi maitarzünen artean beti zatikatürük
 Gure bihotza dateke üsü erdiratürük
 Euskadi eta(a) Irlanda zergatik ez dir(a) aüzo ? (berriz).
- Biak 84- Itsasoan arrain banintz edo zelüan ürzo
 Batetik bestealako ez nüke debetürük
 Orai ardura nizate ipar izarrari so. (berriz).

Hitzak : J-L. D.

Abairea : Niko Etchart.

II

BIGARREN ZATIA

Irlandatik ützüli ondoan, Antoniren gaztaroa

6. jalkaldia

Jelki Elisabet, Mixel Abadia, Antoni Abadia.

- Mixel 85- Antoni gure primüa / orai baxoa badüzü
 Bai eta dreta hasirik / geroari pentsa ezazü.
- Elisabet 86- Dreta ez zaizü gustatzen / hori nihauk ikusten dit
 Beste zerbait har ezazü / jenteek erranaren despit.
- 87- Ikasle hona izanik / ezinago sail güzietan
 Zoinahi haüta dirozü / ikasgia handienetan.
- Antoni 88- Lürra kurritü nahi dit / bazter güziak ikertüz
 Zelüaren segretüak / denen bistolat agertüz.
- 89- Irakasle bat badago / astronomian haütüa
 Sorbonako famatüena / François Arago handia.
- Elisabet 90- Hori da klarki errana / Sorbonan zira sartüko
 Eta familia güzia / Parisen da ohatüko.
- Mixel 91- Berriz gira lanjeroski / Eüskal Herritik hürrüntzen
 Ez ahatz aiten eüskara / harek beigüt(ü) eüskaldüntzen.
- Elisabet 92- Aholkatzen zütüt haurra / eüskaldün egon zitean
 Aitagarik gogo honez / ikasi duzün bidean.
- Mixel 93- Amaren hizkuntza ere / begira ezazü beti
 Irlandar odol beroa zure baitan bizi bedi !

7. jalkaldia

Jelki Antoni Abadia eta Agosti Xaho.

- Antoni Abadia 94- Nafarroan egin düzün / üngürüaren ondotik
Libürüa irakur eta ezinago maitatü dit.
- Agosti Xaho 95- Mereximentürük ez dü / ikusia dü / kontatü
Hanko lau eüskal herrien / borroka ene gain hartü.
- Antoni A. 96- Parkatüko deitadazü / hor naizü hein bat harritzen
Nola ziren zü gorria / xurien alde agertzen.
- Agosti X. 97- Eüskal Herriaren alde / jeiki diren eüskaldünak
Düdarik gabe dütügü / herritar eta lagünak.
- Antoni A. 98- Konprenitzen zütüt Xaho / nihaur beinüz herrizale
Izanagatik xuria / zurekin nago langile.
- Agosti X. 99- Eüskara gabe eüskaldün / izaten ahal da ote ?
Ez, mandoa ez da zaldi / iratzea ez da ote.
- 100- Eüskararentzat gei dizüt / gramatika bat idatzi
Zure fama honaz / behar zeneiket ürgatzi.
- Antoni A. 101- Lagüntüko zütüt Xaho / ene eüskara praubean
Gure arbasoen hitzak / beti bizirik daudean.

8. jalkaldia

Jelki Arago jakintsüna, Antoni Abadia, Arño Abadia.

- Arago I02- Estüdioak ürrentürrik / ene ikasle häütüa
Norat ützüli gei düzü / zer ote düzü xedea ?
- Antoni I03- Honartzen balin banaizü / zureztat dit egin gei lan
Ahalaz Abisinian / Arño anai honekılan.
- I04- Harako prestatü gira / haur denboratik bi-biak
Lan bortitzetan trebatzez / korpitz et(a) ezpiritüiak.
- Arño I05- Erresuma xahar hura / jente xuriaz ützia
Ezagütü nahi dügü / lür, mintzaje, zühürtzian.
- I06- Gure zibilisazione / (e)ta sinesten ütürria
Han ediren gei dizügü / Nil ibaiaren sorgia.
- Arago I07- Eder da züen ametsa / gazte bihotz handikoak
Bena harako ürratsa / ez da nola nahikoa.
- I08- Afrikalako bidea / har dezazüen beno lehen
Lan presanago bat badit / zureztat Antoni Brasilen.
- I09- Astronomian ikertze / paket baten egiteko
Prestik ote zinateke / itsas ontziz abiatzeko ?
- Antoni I10- Afrika bego geroko / zük nahi düzün bezala
Jakintzaren zerbütüküko / joanen nüzü Brasileala.
- Arño I11- Arte hortan aitzinean / Abisiniari bürüz
Bidea eginen deiat / hoinez, esküz eta bürüz.
- Antoni I12- Eskerrak anai hardita / hirekılan ez nük lotsa
Erranak egin ditzagün / agur jaunak, izan ontsa !

III

HIRUGARREN ZATIA

Bi anaiak Etio pian**9. jalkaldia***jelki Antoni eta Arño Abadia.*

- Arño II13- Brasileko üngürüa / nola joan zaik Antonio ?
Ene beitan ari nündüan / noiz hüntüdan ikusiko.
- Antoni II14- Nahi bezala joan zitak / ikertze hanitx eginez
Ützüli baiko Aragog / goretsi nik ene lanez
- II15- Hik ere anai ausarta / konplimentüak hartze dütüik
Zerbütüxu egin deitadak / heben bidea prestatüz.
- Arño II16- Adiskideak badütiat / banoak baten etxera
Berriak bertan badütükek / eginen diagü afera.
- II17- Lehenik lagüntüko hait / apez jakintsüengana
Haiekin aisatüko zaik / egin behar düan lana.

10. jelkaldia*Jelki Arño Abadia, Guoxo printzea eta borren emaztea.*

- Arño I18- Guoxo printzea eskerrak / ützi deitazün arteaz
Zerbütxari naizü berriz / ene lagüntza praubeaz.
- Guoxo I19- Sobera hiz ümil egün / hire bürüa ez apal
Motiko argia beihiz / enetzat hanitx dük ahal.
- I20- Beste mündü batetarik / horra düan so berriaz
Klarki erran behar deitak / zertan dügün aberria.
- Arño I21- Abisinia güzian / manatzen düanik ez da
Non da enperadorea / non leheneko Negüsa ?
- I22- Haren odoleko zira / ondorea har ezazü
Batarzünaren bidean / jaunkillotak goit etzazü.
- I23- Afrika giñatzen beitü / Europako indardünak
Haren aitzi jünta bite / herri hontako gizonak.
- Guoxo I24- Amets ederra dük hori / zinez gustatzen zaitana
Goizegi dük enetako / ez dük zohi erresuma.
- Arño I25- Horri lot zite halere / geroko bideak idek
Ürrentü ez dükezüna / beteko dü beste batek.
- Guoxo I26- Arño gogoia ez dük lo / egündanik has giteala
Aüzo bat beitüt hezteko / hartüko diagü makila.
- I27- Orai arte argitü naik / aholküez güdüketan
Gerlako düan jitea / sartü behar dük obretan.
- I28- Ene armadaren bürü / izentatzen hait egünko
Ederki jokutzen bahiz / ez zaik segür dolütüko.
- Arño I29- Ai ei jauna, gazteegi niz / armadaren manatzeko
Doi-doia hon nintzateke / aholküen emaiteko.
- Guoxo I30- Ez Arño, ezagützen hait / nausi bat hiz, ahari bat
Egün hi hiz aitzindari / ni argitzale orobat !

II. jelkaldia

Jelki etsaien armada : lehenik Gala printzesa, bere amazonekin.

Gala I31- Guoxo handios hori zaigü / horra Negüs izan nahiz
Bena erran zaharrak dío / ni banün eta hi bahiz.

Kahina I32- Bere südür lüze hura / gureganik dezan bazter
Herri hontan nor den nausi / senditü behar dü laster.

Erretiratzen amazonak, jelkitzen gizonak : batetik etsaiak, bestetik Arño eta Guoxo beren soldadoekin.

Güdüka. Garaile baratzen zaigü Arño.

Guoxo I33- Goresmenak hiri Arño / garaipen eder honentzat
Eta hitzeman bezala / hona sari bat hiretzat.

I34- Belaüna lürrean ezar / « printze » hait izentatüko
Heben goiti « Rasi Mikael » / haie denetan deitüko.

Ezpataz soin-hegia bunkitzen deio. Printze berria jeikitzen da.

Arño I35- Ohore sobera dizüt / zureganik erregea
Eginen deizüt halere / fabore baten eskea.

I36- Anai bat badit Gondarren / jakintsünekila mintzo
Xede honez beterik da / herri honi so eta so.

I37- Baimena eskatzen deizü / ibilteko heben gainti
Ordaiez ahala oro / eginen dü arraheinki

Guoxo I38- Abil hoa trankil Arño / anai honaren bideala
Baimena beno haboro / ene geriza badüala.

I39- Bere lan mota güziak / herri hontan egin bitza
Beste lürraldeetan ere / badikek ene lagüntza.

I2. jalkaldia

Jelki Elisabet Thompson eta biru semeak : Antoni, Arño eta Xarles (gazteena).

- Elisabet I40- Semeak zoin iros nizan / züen berriz ikustez
Pariserat ützülik / algarrekin ükeitez.
- I41- Zonbat odol gaizto segür / hameka urte hoietan
Noiz arrajinen zindeien / gogoan biga bostetan.
- I42- Orai enekin zütüet / arrasortürük bezala
Pena güziak beitütüt ahatzerik berehala.
- Arño I43- Gük ere beti gogoan / züntügün ama maitea
Gerla, lepra, süge, gose / lanjer güzien artean.
- Antoni I44- Zure berriz ikustea / tai gabe zen gure kezka
Eskertü nahi zütügü / Xarles igorririk txerka.
- Xarles I45- Afrikalat abiatüz / ama zihaur zütüt ützi
Bena bi anaiak deitzüt / osagarritan ekarri.
- Elisabet I46- Alaba bat seroratzen / beste biak ezkontürük
Nihaur egoiten üsatü / beharko dit heben goitik.
- I47- Züen aita legatsüa / bizirik banü orano
Züez bürgoi lizateke / bena hitzak ez dü gano.
- I48- Jinkoarekin batean / oritzapena dü lagün
Benedikatzen zütüet / egon ziteie fededün.

IV

LAUGARREN ZATIA

Lapurdin : gizona, jakintsüna, eüskaltzalea

Abadiak kanta « Ene herria ».

Kanta 4 : Ene herria

- I49- Ene herria miresten zütüt haur denborako begiez
 Andere handi zira beztitü dentela fizko hegiez
 Zaia zolala heltzen nitzazü doi-doia nizan petiarra
 Haatik eskütik etxeki naizü, eta zütan dit indarra, eta zütan dit indarra.
- I50- Azkorri oroz leihoan zütüt, oi Otsogorri handia
 Pistan behera ikusten deizüt erria edo nigarra
 Eta ibarra junpatzen beitü zure kantore zilarrak
 Ama hoberik asma daitea, ene Xibero maitea, ene Xibero maitea ?
- I51- Ene leihotik ageri düzü beste mendirik halere
 Orzantzurieta, Beltxü, Iparla, Urtsuia eta Baigura
 Ene herria, ez otoi bekaitx, herria düt hura ere
 Ene herria, ez otoi bekaitx, herria düt hura ere, herria düt hura ere.
- I52- Oi sorterrria, zure leküa bester ützi ez düt gura
 Ama bat bera, eta zü zira, Xibero ama haütüa
 Eüskal Herria berriz güzia maite düdan emaztea
 Eüskal Herria berriz güzia maite düdan emaztea, maite düdan emaztea.

Hitzak : J-L. D.

Abairea : P. M. Otaño (Mutil koxkor bat itsu aurreko. . .).

I3. jalkaldia

Jelki Antoni Abadia, Harriet apeza, Larralde-Dibusty (Urruñako auzapeza), Lehremboure abokatüa.

- | | |
|------------------|--|
| Antoni Abadia | I53- Jaunak bildü zütüegü / lapurtar euskaltzaleak
Eüskal Herriaren alde / bihotz oroz langileak. |
| | I54- Arrabote bat eginik / Urruñako herri hontan
Pelotaka süstatzen dü / ahalaz Eüskal Jaietan. |
| Larralde-Dibusty | I55- Beste joküak halaber / müsika, dantza ere bai
Haatik oroz gainetik / eüskara dü lagüntü gei. |
| Larralde-D | I56- Eüskaldünen mintzajea / sobera da mespretxüan
Fama eraik dezaiogün / orai popülü xehean. |
| Antoni | I57- Hortako nahi günüke / hizkuntza Jeietan sartü
Koblakarien primakak / denentako antolatü. |
| | I58- Züen behar gorria dü / kobla lanen jüjatzeko
Eta ere oraidanik / primakaren prestatzeko. |
| Larralde-D | I59- Jüriaren mahaineko / gü hiruak ginateke
Abadiak haütatürük / akort balin baziraie. |
| | I60- Koblak oro izkiribüz / bagüntüke aitzinetik
Xüxenago jüjatzeko / basa izenen gainetik. |
| Lehremboure | I61- Zühürki pentsatürük da / xede hori ene ustez
Nik ja lagüntüko zütüt / Abadia gogo honez. |
| Harriet apeza | I62- Denak akort ez bagina / harritzeko balükezü
Goatzan arren prestatzera / bestak laster ditizügü ! |

I4. jalkaldia

1866an jelki Abadia, J.B. Elissamburu, Sarako aüzapeza

Sarako aüzapeza I63- Hanitx urtez urruñarrek / Euskal Jaiak antolatü¹
Sarakoer zaigü noizbait / ohore hori gertatü².

I64- Jüriaren izenean / lan ederra da primatü
« Maria » izen eztiaz / titrean da izentatü.

I65- Obra horren idazlea / nor ote den ez dakigü
Gütartean balin bada / otoi presenta bekigü.

Elissamburu I66- Bihotzez eskerrak züer / jüje ohoragarriak
Züenganiko saria / zait oso hunkigarria.

Aüzapeza I67- Janbattitt(a) Elizanbüri / ene herritar maitea
Saldoko hoberenak dü / egün üken joaltea !

Besarkatzen dü, medaila bat lepotik ezarten deio, eta makila gorri bat emaiten.

Aüzapeza I68- Zuri esker ürgüllütan / sartzen da Sara güzia
Zure olerki ederra / kantatüko deigüzüa ?

Bere poema kantatzen dü Elissamburuk.

¹ 1851-1863 : Urruñan ospatu ziren Euskal Jaiak.

² 1866 : hirugarren urtea Saran egiten zirela.

Kanta 5 : Maria

- I69- Aztal biribil eta zangar hertsia
Eskuaren beteko zango bihia
Ttiki-ttikia
Golko bat aberatsa, lerden gerria
Erne begia
Nolako panpina den horra Maria
Nolako panpina den horra Maria !
- I70- Erle bat da Maria etxe barnean
Eta landan orobat ari lanean
Behar denean
Apaintzeko polliki behin astean
Noiz ? igandean
Uztai beharrik ez du soinaren pean
Uztai beharrik ez du soinaren pean.
- I71- Solas alegera bat erranagatik
Irri freskorik baizen ez dut izan nik
Mariaganik
Adiskide(e)kin ez du handitasunik
Bainan hargatik
Ez erran Mariari solas arinik
Ez erran Mariari solas arinik !
- I72- Igande(e)tan Maria zinez panpina
Zapata xabalekin soin motx urdina
Berak egina
Elizako bidean arin arina
Mila sorgina
Errege balin banintz zer erregina
Errege balin banintz zer erregina !

Hitzak : J-B. Elissamburu
Abairua : herrikoa.

I5. jalkaldia

1879an Elizondoko Euskal Jaietan, jelki Abadia, Arrese-Beitia poeta, Elizondoko alkatea.

- | | |
|--|--|
| Alkatea | I73- Aurten müga gaintitü dü / zure bestak Abadia
Elizondoko herrian / bozten da hegoaldea. |
| Abadia | I74- Ahal oroz aldikatüz / ospatüko dira jaiak
Batak züen gainti hontan / iparraldean besteak. |
| Alkatea | I75- Irabazle agertü da / poema lüze batetan
Arrese-Beitia jauna / saria beitüke bertan. |
| <i>Aüzapezak makila gorria Arrese-Beitiari emaiten deio.</i> | |
| Alkatea | I76- Nahigabe bat aitortü / behar deizüet halere
Denentako laidogarri / beitate alabadere. |
| | I77- Kantore hunkigarria / Eüskal Herriaz betea
Nigarrez hontü deigüzü / gaixo Arrese-Beitia. |
| | I78 – Espainiako gobernüa / kexa dakigün beldürrez
/ Deüs ez dügü agertüko / zure olerki ederrez. |

I6. jelkaldia

Jelki Antoni eta Birjinia.

- Antoni 179- Biarritzeko maunüetan / urte oroz ikustea
 Ez zitazü orai aski / oi Birjinia maitea.
- 180- Aitortü behar dereizüt / zinez maite zütüdala
 Honartzen balin banaizü / ezkontzera joan giteala.
- Birjinia 181- Eüskal Herria beitüzü / oroz gainetik maitatzen
 Eüskaldüntsa ez nizana / zertako naizü galtatzen ?
- Antoni 182- Eüskal Herrian sortürük / ez nündüzün ez ni ere
 Hürrünean eraikirik / maitatü nizün halere.
- Birjinia 183- Biak maite zütüdüela / badü urte andana bat
 Aitorpen hau eneganik / egoki ote da hainbat ?
- Antoni 184- Ordü likezü engoiti / kartak üngüra ditean
 Ezkontzeko adinean / sartü nintzan aspaldian.
- Birjinia 185- Ene haidürü haboro / ez zütüt arren ützi
 Baietza emaiten deizüt / gogotik bizi güziko.
- 186- Zure lan mota orotan / beti zütüt lagüntüren
 Zure ürrats güzietan / artoski laükünatüren.
- 187- Goatzan arren ezkontzera / üngürüan jakin dezen
 Orozbakoz dütügüla / gure biziak jüntatzen.

Jokülari güziak agertzen dira.

- Biek kanta 188- Nik maite zütüdala / denek beze jakin
 Betiko bizi nahi / nizala zurekin.
- 189- Zuri nüzü jüntatzen / hon ala gaitzetan
 zure lagüntzekotan / biziko gaüzetan.
- Apeza 190- Hitz emanen jakile, Jaunaren ordezeko
 Züen batarzüna dü benedikatüren
 Aitaren, semearen, ezpiritüaren
 Izen güziz saintüan, halabiz biziko.

Esposen kantorea kanta denek.

Kanta 6 : Esposen osagarriari topa !

(*Ahaires : Arbotiko prima eijerra*)

- I91- Ahaire xahar hontan
 Bertset berririk düt hontü
 Adiskideak, adiskideak, züekin nahiz kantatü
 Eta oroz gainetik amodioa laüdatü, amodioa laüdatü.
- I92- Alpetako aldetik
 Ürzo bat hegaltatürik
 Agitzen zaigü, gertatzen zaigü Kostaldean laketürik
 Han ez beita lanjerik, ez ihizlari gaiztorik, bai arrantzale treberik.
- I93- Esposa xarmagarri
 Ezpiritüz ere argi
 Ürrüña hortan ediren düzü bihotzeko zaldün hona
 Bier opa deizüegü bizi hontan zorihona, (e)ta bestean salbamera.
- I94- Adiskide maitea,
 Zelüen ikerzalea
 Zazpi herrien batarzünean eüskaldünen ürgazlea
 Hire güdüka hortan badükek lagüntzalea, eta kontsolazalea.
- I95- Abadia familia
 Eüskaltzale ütürria
 Bizitze berriz, bizitze berriz jagoiti aberastüa
 Egün honar ezazü Xiberotik goraintzia, Xiberotik goraintzia.
- I96- Adiskide Antoni
 Eta zü ere Birjini
 Maitarzünean, batarzünean eta seme-alabekin
 Jinkoak zaint zitzela hanitz urtez algarrekin, hanitx urtez algarrekin.

Hitzak : J-L. D.

Ahaires : herrikoa

I7. jalkaldia

Abadia, Birjinia, Viollet-Leduc arkitekta

- Abadia 197- Viollet-Leduc arkitekta / Pariseko famatüena
 Jauregi bat egin gei dit / ahal düdan ederrena.
- 198- Hendaia xarmagarrian / deüs ez zitazü sobera
 Segür ohore nikezü / jin bazinte gidatzera.
- Viollet-Leduc 199- Obra horren gidatzea / eni zitazü ohore
 Urte güti barne date / jauregi bat heben zure.
- 200- Bena Parisen beinago / kasi denbora güzian,
 Lagüntzale bat behar dit / begi xorrotxa leküan.
- Birjinia 201- Lagüntzalea ni naizü / begia beti xorrotzik
 Manatzen ere badakit / eginen dit franko botzik.
- 202- Senarraren amodioz / haren amaz oritürük
 Irlandar itxüran date / jauregia eraikirik.
- 203- Sartze nausiaren goitik / irlandera z honki jina
 Barnean aldiz prefosta / eüskara düit erregiña !
- Viollet-Leduc 204- Emaztearen nahia / beita Jinko Jaunarena
 Zük erran düzün bezala / eginen dizügü dena.
- Abadia 205- Oi aitaren etxondoa / Ürrüstoiko Abbadia
 Haurride bat badükezü / Hendaiaiko Abbadia.
- 206- Hortik begistatüko ditit / itsaso (e)ta mendia
 Eta izarren ikertzez / kurritüren düit zelüa !

Kanta 7 : Astronomoaren otoitzea

(denek)

- 207- Ekitoltze betean, zelüen loria
Zohardi tipilean, izarren joria !
Müsika isilean, baltsan algarreki
Miliar bat galaxia, mila miliar eki !
- 208- Agur argizagia, agur artizarra
Ametsik ederrenak, orotan maite(e)nak
Egün batez heltüko dira züetara
Aingürüak bezala hegalez gizonak.
- 209- Holako hontarzünak ospean ikusiz
Merexi üken gabe gozatüz dohainik
Norbaiti nahi dütüit eskerrak ützüli
Zoin ereilek zütüe zelüan ereinik ?
- 210- Zure haurrak izanez, ez gira nornahi
Gure primantxa eta ber haurridegoa
Behar güntüke beti gogoan edüki
Lürrean zabal dadin izarren mengoa.

Hitzak : J-L. D.

Abairrea : Beñat Sarasola.

I8. jalkaldia

Bigerren Karlistadan (1872-1876) : jelki Abadia eta Kapagorri (karlisten ofizier bat).

- | | |
|-----------|--|
| Kapagorri | 211- Hendaiaiko aüzapeza / badakizü hasi dela
Lekü honean beitzira / bestaldean berriz gerla. |
| | 212- Harremanen aisatzeko / Eüskal Herriko hegian
Xarren jarri düzü Elio / Mongastuko jauregian. |
| | 213- Arma honen erosteko / diharüa dizügü ments
Alderdi hortarik phürü / heltüko zitzaigü aments. |
| Abadia | 214- Lehen Karlistada hartan / züen alde agertürrik
Geroztik iheslariak / etxeke düüt gorderik. |
| | 215- Bena Don Carlos berrian / ez nüzü hainbat fidatzen
Eüskal herrien galtzea / beitüt harekin üsnatzen. |
| Kapagorri | 216- Eüskaltzaleak gütüzü / haren armadako hanitx
Zük ezagützen benaizü / horren jakile zina niz. |
| Abadia | 217- Zütan badizüt sineste / beraz lagüntüko zütüt
Ahal düdan diharüa / banka batetan pausatüz. |

I9. jelkaldia

Santa Cruz apeza bere güdariekin.

- Santa Cruz 218- Hainbeste aldiz garaile / galtzera doa Don Carlos
 Haren armada ützi düt / espainolez beniz jelos.
- 219- Espainol sobera bada / orai karlistetan ere
 Saldo ttipi hau gitean / ibil herriaren alde.
- 220- Ihor behar gabetarik / ez dügü füsüilatüko
 Aitzinetik falta gabe / nihaurk düt kobesatüko !

20. jelkaldia

jelki garda zibilen emazteak.

Doña Carmen 221- Ai zer populü ñapürra / ahüntz aria bühürria
Bakerik ez dü Espainiak / hor deno Eüskal Herria.

Doña Pilar 222- Zer gizona hi Santa-Cruz / oihan baten itzalean
Ager hakit orai honat / ari gitean xabalean.

Badoatza emazteak. Jelki garda zibilak, Don Pedro kolonela eta Don Juan kapitaina bürrü.

Don Pedro 223- Oi Santa-Cruz arnegata / üsü naik lasterkarazi
Aski gizon deitak eho / gaur behar hait ekürüarazi.

Don Juan 224- Ezkapürük ez beitükek / armak urtuk berehala
Jüjea dük ikusiko / gure hilek ez bezala.

Santa-Cruz 225- Ene motiko zainartak / sobera dira etsaiak
Gerla dügünaz galdürük / zertako hiltze nasaiak ?

226- Espainiako Jüstizian / ez beitügü sinesterik
Ihes eginen dizügü / pasü gorde batetarik.

227- Goatzan lehenik alegia / güdükala hapatakaz
Eta gero berehala / beste gaintialat ezkapa.

Güdüka. Gardä zibilen artetik ibes egiten düe güdariek.

V

BOSGARREN ZATIA :

Azken ürratsak**2I. jalkaldia**

1892an, Donibane Lohizuneko Euskal Jai handietan, Abadia, Birjina, Donibane Lohizuneko auzapeza, jokülari güziak.

- | | |
|--------------------|--|
| Auzapeza | 228- Zuri esker Abadia / lehen aldiko ditizügu
Donibane Lohizunen / Eüskal Jaiak antolatü. |
| | 229- Omenaldi bat zor deizü / gaineala Eüskal Herriak
Akademian beitzira / lehendakari berria. |
| | 230- Merexi dütüzün titreetan / hona zoin düzün haütüa
Eüskaldünen Aita zira / orai denetan deitüa. |
| Auzapezak
Denek | Gora Eüskaldünen Aita !
Gora Aita Abadia ! |
| Abadia | 231- Eskerrak adiskideak / nigarra düt begietan
Honki jin eta batzarri / ükenik düt güzietan. |
| | 232- Bena hau bezalakorik / ez düt sekülan asmatü
Ikustatearen heina / nola behar düt agertü ? |
| | 233- Adin handiala heltürük / laster zütüet ütziiko
Azken mezü baten hatsaz / herria düt ürgatziko. |
| Aüzapeza | 234- Behatü gitzaizü beti / profeta bati bezala
Gero ere dolü gabe / hala dadila oxala ! |

- Abadia
- 235- Etxek ezazüe gora / kantü, dantza, maskarada
Zinka eta irrintzina / gain-gainetik pastoralara.
- 236- Bena hori zer lizate / agor baledi eüskara ?
Tximinokeria batetan / hiltzat günüke kültüra.
- 237- Gezür hori lizateke / eüskara gabe Euskadi
Eüskal Herria hil laite / eüskara isil baledi.
- 238- Ait(a)et(a)amen mintzajean da / herriaren bizia
Politikaren gainetik / batartzünaren bizia.
- 239- Azken oihü bat orobat / botz ahülez eman gei düt
Batarzünaren seinale / züen arana galtatüz :
- Abadiak Zazpiak bat !
Denek Zazpiak bat !

Kanta 8 : Agur eta ohore Euskal Herriari

240- *Leloa* : Zazpi Euskal Herriek bat egin dezagun
Guziak beti beti gauden gu euskaldun (dena berriz)

241- Agur eta ohore Euskal Herriari
Lapurdi, Baxenabar, Zibero gainari
Bizkai, Napar, Gipuzko eta Arabari
Zazpiak bat besarka lot beitetz elgarri.

242- Haritz eder bat bada gure mendietan
Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan
Frantzian, Espainian, bi alderdietan
Hemen hiru eta han lau, bat da zazpian.

243- Zuri gaude otoitzez, Jaungoiko maitea
Lagun zazu zerutik euskaldun jendea
Begira dezan beti lehengo fedea
Zor zaizkon zuzenekin ardiets bakea.

Hitzak : *Gratien Adema-Zalduby* (1828-1907). *Müsika* : *Urko kantaria*.

22. jalkaldia

Abuna patriarka, Menelik II erregeak, erregiña, 1896 urtean.

- Abuna 244- Negus enperadorea / erregeen erregea
 Hona orai Abadiak / igorten deizün berria.
- 245- Italianoak gisala / horra zaizgü indartürik
 Erresumaz jabetzea / xede zintako hartürik.
- Menelik 246- Oi Salomon erregea / ene arbaso handia
 Gain hortarik hel zakitzat / eman zure zohardia.
- 247- Otoi indazüt argia / etsai hoiez garaitürik
 Ez nadin bara errigei / ene herria galdürik.
- Erregiña 248- Oi Sabako erregiña / lehen errege Menelik
 Ekarri zenereiküna / Salomonen obretarik.
- 249- Zük ere lagün gitzazü / amarik miragarriena
 Zelüko Jinko Jaunari / galta otoi garaipena.
- Menelik 250- Ni niz Jüdako lehoa / Jauna zure zerbütüküko
 Etsaiaren aitzinean / ez naizü arren ütüküko.
- 251- Goatzan orai herritarrak / oi arbasoak bezala
 Etsaiaren ohiltzera / erresumatik oxala !

Patriarkak popülüa benedikak.

23. jelkaldia

Abadia, Birjinia, Etiopiako enbaxadorea.

- Enbaxadorea 252- Antonio Abadia / oi adiskide handia
Berri hon batekin hona erregearen mezüa.
- 253- Etsaia garaitü dizü / erresumatik ohiltü
Abisinia da berriz / oso beregain agitü.
- Abadia 254- Ene goresmen beroak / helaraz itzozü otoi
Haren garaipen ederraz / nizala botz eta bürgoi.
- 255- Abisinia batürik / ohiko gisan emanik
Beregain etxeke dizü / libratüz etsaienganik.
- Enbaxadorea 256- Zure ametsa hori zen / Arño anaiarekilan
Guretzat egin düzüe / harek gerla eta zük lan.
- 257- Zerbütüen oritgarri / Negusen ikustatea
Diamantez aberastürik / hona kürütxe saintüa.
- Abadia 258- Esker mila Meneliki / bihotzean hunki nizü
Opari xüme hoik otoi / eneganik emaiotzü.

Teleskopo bat eta estatiua ttipi bat emaiten deitzo. Algar besarkatürik badoatza.

24. jalkaldia

Abadia, Birjina, eskolako haurrak eta errejentsak.

- | | |
|---------------|---|
| Birjina | 259- Eskola hontara jini / Abadia eta nihair
Saristatüren zütüegü / denak errejent ala haur. |
| | 260- Goretsi nahi zütüegü / egin düzüen lan ederraz
Eta hain arraheinki / mintzo düzüen eüskaraz. |
| I. errejentsa | 261- Eüskara nahi dizügu / frantzesarekin bardin
Ihor tzainkü, begi bakoitx / beso motz izan ez dadin. |
| 2. errejentsa | 262- Haurren hazteko eüskaran / züen beharra beitügu
Emanen deigüzüen sosa / ez dizügu hainbat hügu. |

Haurrek eta irakasleek kanta.

Kanta 9 : Izar ontzi batetan

- 263- Izan ontzi batetan bidajez partitü
Nahiz lagünekila mündüa kurritü
Segür bazter zabalak ikusi düütügü
Salbü nihon ez gira osoki laketü, osoki laketü.
- 264- Odei artetik zeizgün agertü bortüak
Ahüñemendi eta Iratiko oihana
Ahüzkiko ütürria eta olalteak
Ordüan han ürrentü gure ützülia, gure ützülia.
- 265- Artzain batek oihükaz berria hedatü
Xiberoko herri nausian jenteak atetü
Pastoraleko kantüak beharrietara heltü
Laster oro batean harat abiatü, harat abiatü.

Hitzak eta müsika : Frantxoa CASET.

25. jekaldia

Abadia, Birjinia, bedezia (medikua), apeza, 1897ko martxoaren 19an.

- Birjinia 266- Jaunak dei egin deizüt / senar gaixoarengana
 Ezinbestean beitago / min eta dolorez jana.
- 267- Düala laur egün orano / Akademian zagozün
 Bena zinez akitürük / hantik ützüli zitazün.
- 268- Goiz hontan ere gaixoa / bere paperer da lotü
 Bai eta indarrük gabe / hortxetorük laster baratü.
- Bedezia 269- Ezinago einherik da / begira ezazü ekürü
 Begia etxek ohetik / eror ez dakizün phürü.
- Abadia 270- Barbera mintza gustüan / badakizüt zer düdan
 Egün hebentik beinoa / ihor ez arren ütüz düdan.
- Apeza 271- Korajea etxekazü / paradüsüaz oritüz
 Sakramentüak oritzü / Jauna gurekin otoiüz.

Kanta IO : Abadiaren azken otoitzea

- 272- Ezintü beno lehen, indarrak etenik
 Aski zahartü baiko, zentzua xüxenik
 Bizia düt ütziaren, agian gizonki
 Ez gogo honez, bena halere zühürki.
- 273- Bürüz-bürü so egin nahi deizüt zuri
 Ene bizi joanari eta gerokoari
 Ahala bete beitüt gütiz gehienetan
 Ürgüllü ez beldürrik ez dizüt zainetan.
- 274- Parkamentü galtatü behar düt halere
 Lümaz beitüt tzistatü noizean etsaia
 Eta lagüna ützi ele hona gabe
 Eta lagüna ützi ele hona gabe.
- 275- Aita zur(e) aitzinean ez nago herabe
 Sortzea (e)ta bizia, zor deizüt güzia
 Sotila izan beküt zük egin auzia
 Sotila izan beküt zük egin auzia.
- 276- Gida nezazü arren baratze hartara
 Ez hona nizalako, bena zure haurra
 Zure nahiz egina, zureganik jina
 Prodigoa bezala ükatü ezina.
- 277- Holtzarte ülün hontan, indazüt esküa
 Beti lagüntü naizün emazte maitea
 Eta zü Chateaubriant, oi zelta handia
 Ene ber lekü hontan zirena zentüa.

Hitzak : J-L. D.

Abairak : Beñat Sarasola.

Aingürüek kanta

- 278- Bibliako gizon bat zen / egün heben zentü dena
 Grado gora bat hartze dü / gizon jüsto, xüxenena.
- 279- Herrian orit ziteie, jarraik honen etsenplüa
 Ezpiritüari fidel / bizi dadin popülüa.

26. jalkaldia

Birjina, artzainak, artaldea.

- Artzain batek 280- Gure kabale maiteak / zor deizüet berri gaixto
 Nausia galdü dizügü / aita hon bat segürrago.
- Artzaintsa batek 281- Eta züek aüzo honak / tziauste denak beilatzera
 Hamazortzi egünez ja / txapela hontan aldika.
- 282- Heben ehortziko dügü / manatü zeigün bezala
 Bai altare honen pean / bakea goza dezala.
- Birjina 283- Ni ere naizüe laster / lür saintü horren altzoan
 Baketürük ehortziko / senar honaren ondoan.
- 284- Bena gureztat dükegü / lür osoa, itsasoa
 Eta leihotik miresten / günüan zelü goxoa.
- 285- Oi gütaz orit ziteie / gureztat egin otoiitze
 Zazpi eüskal herrietan / izan ziteien haurride !

Kanta II : Artzainen kantorea

- 286- Ziberotik Lapurdila, Gipuzkoa, Bizkaiala
Nafarroatik Arabala, goiztiri oroz ekia
Mendi aldetik jin zaigü / behar günüan argia
Dügün laüda, dügün kanta ezpiritü bat zabala.
- 287- Azken elürren herexa üztailan zer zorihona
Ohoïn hona bezain bekan aberats esküzabala
Bihotz batez, aho batez, merexi düan bezala
Dügün laüda, dügün kanta Abadia jabe hona.
- 288- Jakitatea denetan hedatü düzü nasaiki
Lürlanaren lagüntzeko baliatü arraheinki
Kabale primakak ere Eüskal Jaietan haxitü
Gütartean pausatzea ontsa düzü merexitü.
- 289- Jente xeheen mintzajea mespretxütik altxatürük
Ohoratü, aberastü, gisa oroz lagüntürük
Haurrik gabe joan beitzira, kontsola zite nausia
Zure familia düzü gaur Eüskal Herri güzia.

Hitzak : J-L. D.

Abairea : Frantxoa Caset.

AZKEN PEREDIKÜA

290

Eskerrik hanitx oroer / züen batzarri ederraz
Eta gaurko süjetari / egin düzüen harreraz.

291

Züen esküzarta honek / hanitx gütüe lagüntü
Gaizki emanak aitzitik / derzeizgützüe parkatü.

292

Ikusi düzüe denek / nor zen gure Abadia
Orano beita bizirik / haren argia mündüan.

293

Jakintza eta herria / zerbütxatüz arraheinki
Gizon galanta denetan / ohorezki da ibili.

294

Maite züan aberria / lagüntü dü gisa oroz
Eüskaldünen mintzajea / goratü ezin haboroz.

295

Horrez egin nahi züan / hizkuntza bat mündütarra
Eüskal Herrian bederen / etxek dezagün eüskara.

296

Gure hurrek egün batez / ez gitzaian ahalkeraz
Aitetamen mintzajea / mintza gitzaian eüskaraz.

297

Izarren argia bego / bakearen zerbütxüko
Eta ez gerla bideetan / ürgüllütan zartatzeko.

298

Batarzüna egin bedi / mündüaren zabalean
Etsenplüa dügün eman / Eüskal Herrien artean.

299

Horik dütügü Abadiak / ützi deizgün hontarzünak
Izan ontsa jente honak / agur agur eüskaldünak !

KANTA I2 (AZKENA) : ÜRRÜSTOIKO HERRIA

Bernat Etxepareko garaztarraren ildotik, euskarazko lehen libürüa harek beitzüan agertü 1545ean.

300

Ürrüstoiko herria benedika dadila (berriz)

Euskarari eman deio Abadia handia (berriz).

Leloa : Euskara, euskara, jalgi hadi kanpora (berriz).

301

Euskaldüna zen lehen jente güzia heben

Euskara baizik ez beitzen herrietan entzüten.

Leloa...

302

Orai erdi galdürük, bere gisa ützirük

Haurretan ez da entzüten, ez beitzäie mintzatzen.

Leloa...

303

Beharrik hor zütüegü, ikastolako haurrak

Esperantxa beitzüie hautsetik arrapizten.

Leloa...

304

Abadia bezala, otoi jeiki gitean

Euskaldünen mintzajea bizi dadin herrian.

Leloa...

305

Irlandako herria benedikan dagola

Euskarari eman deio ama baten odola !

Leloa : Herria, herria, bizi hadi euskaraz

Herria, herria, jeiki hadi euskaraz !

Hitzak : J-L. D.

Abairea : Antton Valverde, Xabier Letek kantatürük.

*« Xüberoko Ikastolek, pastoral bonen antolazaleek,
eskertzen düe Eusko Jaurlaritza bere dihari lagüntza ekarri deikülakoz.*

*Erremestiatü behar düütüü ere pastoral bonen antolaketan gisa batez
edo bestez lagüntü gutüen jente güziak ».*

ANTOINE D'ABBADIE

(1810-1897)

BIOGRAFIA BATI BURUZ

Antoine d'Abbadie etorkiz irlandar euskaduna da. Aita zuberotarra zuen, ama irlandarra. Bera Dublinen sortu zen eta han bizitu hamar urteetaraino. Horren bizitza sei zatitan banatzen ahal dugu :

- I- d'Abbadie eta Ürrüstoiko herria
- II- d'Abbadie eta Irlanda : haurtzaroa
- III- d'Abbadie Frantziako Tolosan eta Parisen : gaztaroa
- IV- d'Abbadie Etiopian Arnould anaiarekin
- V- d'Abbadie Urruñan
- VI- d'Abbadie Hendaian.

I- d'Abbadie eta Ürrüstoiko herria

I- Ürrüstoi, frantsesez Arrast, Zuberoan Pettar zolako herri txiki bat da, Ühaitza ibaiaren eskuin aldeko azken mendixketan hupatua, iparreruntz ondar herri euskalduna ; d'Abbadie familia, oso zaharra omen da herri horretan : 1187 urtean Palestinan gudukan hil bide zen Guilhemus de la Sala d'Arrast delako bat. Baina XIV. mendean hasten da familiaren genealogia, eta XVII. menderaino xehetasun guti du.

2- Abadia izeneko etxea (*Euskaltzaindiko grafian oraiкотurik, Abbadia izen historikoa bere garaian utziz*), elizari buruz dago, errepedeaz beste aldetik : hau gure Ühaitz bazterreko Ündüreinetik Nabarregosera doa, hots Oloroeko Ühaitz ertzera. Barrioko sargian dagoen arkuak 1676 zenbakia dakar zizelkatuturik eta etxeak XVII. mendeko itxura du kanpotik. Horko jabea, aitatik semera abade

laiko zen, Zuberoan, Biarnon eta Nafarroa behean franko hedatua den kargu berezi batez hornitua : tokiko elizaren babeslea zen, dirudienez haren lurretan egina baitzen ere. Erretorearen izendatzean erratekoa bazuen, parrokiari detxima biltzen zuen, eta horri esker elizako baita parrokiako gastuak ordaindu behar zituen. Gainera etxalde bat bazuen. Laboraria zen, hein bat gotorra, baina ez egiazko aberatsa. Duela mende erdi bat oraino, Abadia etxalde ona zen, bere 27 hektareak (otar eta oihanak barne) eguzkibegiko malda ez-tian ukanez, Ürrüstoiko haran gixenaren erditsutan, baina ber heinekoak zituen auzoko Agerrea, Algalarrondoa eta Zünharia. Oro har, hein bat ongi bizi zaithekeen, baina horren ondokoen aberastasuna ez da Ürrüstoin sortua, dena Irlandari zor dio, salbu euskaldun familia sendo batenganik dotetzat ukan duen jite ahaltsua.

3 – Haatik Ürrüstoiko Abadia ez dago Zuberoako etxe nobleen zerrendan. Beraz horko familiari nondik dator-kio aiton seme-alaba izatea ? Agian Biarnoko jaunetik ? Egia da Zuberoa luzaz egon dela Oloroeko diozesan, Biarnoko zati batekin, Frantziako Iraultzaraino. Bestalde Antoinetik eta haurri-deek ama noblea zuten, eta haren armarriaz ere baliatu ziren.

4 – Antoine d'Abbadieren aitona, Jean-Pierre (1731-1799), abade laiko zen beraz, eta gainera notario. Bigarren kargu horrek ez zion lan gehiegi emanen. Laborantzan ari zelako frog-a badugu, zeren Frantziako Iraultza denboran, itzainkan erauntsi behar ukan zuen behin baino gehiagotan, bere baserriko mozkinak mugako armadara eramanez Donibane Garaziraino. Abade kargua kendu zion Iraultzak, beste guzietan bezala, haatik ez notariotza.

Jean-Pierre d'Abbadiek, Ezpeizeko Marie Lacroix emaztearekin lau haur ukan zituen :

-Maria-Maitena (1771-1856)

-Michel-Arnauld, Antoineren aita zateana (1772-1832)

-André (1774-1791)

-Annette (1777-1799)

Maria-Maitena, Antoineren « egüzama » zateana, 1793an ezkondu zen Pierre de Carricondorekin eta laster alargun egon, haurrik gabe. Horren hilarria Ürrüstoiko kalustrapean dago, euskarazko hilartitz batez apaindua. Itxura guzietan arabera Michelen (edo Michel-Arnaulden) arreba gehien hori Ürrüstoi Abadian bizi izan zen. Antoine aldiz, oporretan hor egoten zen antza denez.

Michel oporretan etortzen zela badakigu, meza bere mahasti zolatik entzuten baitzuen, bidez beste aldetik, familiako iturriek diotenez : abade lai-

koen ohoreak nahi zituen elizan, baina erretoreak ukatzen zizkion, kargu hori ezabatua baitzegoen ...

Ürrüstoi Abadia bere lurrekin, Mauleko de Souhy-Sunhary lehengusu bati utziko dio Antoinenek hil aitzin, eta 1961ean kusi horren ondoko bi anai-arrebak salduko diote aferman etxetierra zuten Challa familiari, eta honek hor dirau.

5 - Antoineren aita Espainiara doa 1791an. Erran ohi da politikaz aterbe-tu zela, soldadu zerbitzutik ihes, baina hau berantago hasiko da, 1793an. Guilhem d'Abbadie d'Arrast apezak, bere « *Monographie de la famille d'Abbadie d'Arrast* » liburuan (I) zehazten du « ihes egin zuela 1791an, André anaia hil zen urtean (17 urteetan !) » (61. or.). Hau 1791ko maiatzaren 16an zendua da. Aipaturiko idazleak ixtripuzko heriotzaren bi arrazoi posible eman ditu : « Ohiturak dakar aizkora kolpe batek hil zuela jokoan. Agerrek dio tximistak jo zuela ... » (58. or.). Michelen desterruak familiako zorigaitz horrekin loturarik ote du ?

Alta bada Michel herritar gazte lagun batzuekin Espainiara lanketa joan da : franko arrunteko joera da Zuberoan XVI. mendetik bederen, Tudelarantz joatea, baita Andaluziarantz, Amerikarekiko tratu gehiena hortik egiten baita. Malagan plantatzen da tratulari baten mutil, eta gero partzuer. 1793 hastean gerla pizten delarik Frantziako Errepublikaren eta Europako erregeen artean, hiru egun barne hautatu behar du : edo Espainiako erregeren mendeko sujet bilakatu, edo hirugarren erresuma batera joan. Londresera doa eta han biziko da, ez dakigu zenbat denboraz, franko nekez idurira, Bordeleko edo/eta Espainiako ardo salordezkari. Gero Dublinera doa. Aitak, Mauleko iraultzaile arduradunek Michelez galdezkatzen dutelarik, ihardesten die soldadu zerbitzurako haien manua igorri diola, baina debaldetan. Intsumisio pasibo horrek batzuetan Michel d'Abbadieri ematen dio iheslari politikoaren gehiegizko fama.

6 – Aita berriz, Errepublikaren ustezko etsai gogor hura izan zena ? Beharbada ez. Gauza bat segura : herriko hautetsien biltzarrean etsai ukan zuen Daguerremendy (Agerremendi) herritar apez jakobinoa, eta hau auzapezgora lehen du zitzaion. Jean-Pierre d'Abbadiek dirudienez bere partea nasaiki egin behar ukan zuen Pirinioko armadaren hazteko lanetan. Baina departamenduko epaimahaiaren alka bazuen, baita Mauleko distrikean, Zuberoa guziaz kudeatzen zuen kontseiluan. « *Mauléon et le Pays de Soule sous la Révolution* » liburuxkan, Larrieu medikuak dio une batez atxilotua egon zela Maulen. Ez da egia, Batzorde zainzaileak semearen intsumisio egoeraz galdezkatu zuen, beste ondoriorik gabe, ikusi berri dugun bezala. Arnaulden alaba den Angèle d'Abbadie du Saillant andereak bere idazki batean Jean-Pierreren heriotzaz ipuin oker bat beretzen du : « Michelek jakin zuen aita susmagarri bezala heriotzaz mehatxatzen zutela eta bere medikuak buruaren ebakitzetik salbatzeko bere bainuan odolustu zuela hil arte. » (*Manex Goybenetxek zitatu*

1997ko Biltzarraz agertu den liburuan, 103. or.). Ohean hil zen 1799ko irailaren seian, Terrorea bukatua zelarik aspaldian, 1794ko udan, Robespierre uzkailiz eta hilez. Heriotzageria sinatu zuten Guillaume Daguerre (Ager) auzapezak eta hila Abbadian ikusia zuen Jean Doyhenardek. Aktaren fotokopia badut, kasik ezin irakurria, baina Guilhem d'A. d'A. apezak inprimategiko letretan emana du bere monografiako 59. orrialdean.

Michel d'Abbadie gizon ederra omen zen, familiako iturriek diotenez. Argia zela, ez da dudarik. Bigarren mailako ikasketak Laskorreko (Lescar) Barnabiten ikastetxean eginik, kultura on baten jabe zen, bereziki literaturan eta filosofian. Diru aferen kudeatzeko dohain aberatsak zituen gainera, askotan frogatuko zuenez. Plaza gizona ere zen, hizlari ederra, solaskide gozoa.

II – d'Abbadie eta Irlanda

I- Michel d'Abbadie Irlandan aberastu zen. Nola ? Horrez arrazoi ezberdinak irakur daitezke.

a) « Dublinen sozietate bat sortzen du kanal baten kudeatzeko. Enpresa hain aberats atera zitzaion non itsasontzi batzuen armatzeko behar zen fortuna laster metatu zuen. » Hara zer dion 1975ean Bernard d'Abbadie d'Arrastek « *Epopée d'Arnauld d'Abbadie d'Arrast « Ras Mikael » en Ethiopie* » idazlaneko 2. orrialdean.

b) Gauza bertsua dio bere aldetik Guilhem d'Abbadie d'Arrast apezak bere Monografiako 69. orrialdean : banko handi batean lan eginez aberastu zela eta ubide baten idekitzeko sozietatean parte hartu zuela.

c) Familiako iturri batzuen arabera, neronek zuzenean entzunik, armak Portugalari saltzen omen zizkion, Napoleonen « Blocus continental » delakoa hautsiz.

d) Ezkontza aberatsa egin zuen (baina ez ote da hori aberatsen usaia ?) eta familiako iturrien arabera, aitagarrebarekin armadoregoan erauntsi zuen.

2- « 1805 : Michel Arnauld d'A. d'A. paperez irlandar egiten da . » Hara zer dioen Guilhem d'A. d'A. jaun apezak bere Monografiako 67. orrialdean. Baina zer ulertu behar da hor ? Irlanda Ingalaterrari hestuki lotua zuen Londresko Parlamentuak 1800ko ekainaren 7an lege nagusi batez. Bizkitartean, Erresuma Batua ez baita estatu jakobino bat, beharbada bazitekeen irlandar naziotasun berezi bat ? Puntu hori aztertu beharra dago.

3- 1807an Michel ezkontzen da Dublinen, horko Elisabeth Thompson Of Park anderearekin (1779-1865). Haur bakarra zen hau. Aita alarguna. Horrek eraiki zuen mutiko bat bezala, kulturaren eta ausartziaren atea idekiz, orduan alabekin ohi ez zen bezala. Protestanteen komentu batean omen eskolarazi zuen, baina gero Elisabeth katoliko gartsu biziko eta hilen da. Hizkuntza multzo ederra bazekien : haietan ingelesa, frantsesa, latina, greko klasikoa... Baina komentu protestantearen horrek aztoratzen nau, protestanteak usaian ez baitira komentuzaleak. Haatik iduri zait d'Abbadietarrek protestante deitzen dituztela katoliko ez diren guziak, anglikanoak barne, eta hori zen Erresuma Batuko Eliza ofiziala. Beraz horren komentu bat ote zena Elisabethek ezagutu zuena ?

4- Sei haur ukanen dituzte : hiru alaba eta hiru seme, alternantziarik ederrean. Antoine bigarren haurra da, baina seme gehiena, iduriz premutua. Lehen lauak Dublinen sortuak, azken biak Frantziako Tolosan.

- Elisa, 1808-1875
- Antoine, 1810-1897
- Celina, 1811-1894
- Arnauld, 1815-1893
- Julia, 1820-1900
- Charles, 1821-1901.

Celina serora sartuko da 1832an. Elisa eta Julia, haurrik gabeko alargun geldituko dira. Antoinetik ere ondokorik ez duke, bi anaiak aldiz bai.

5 – Haurrak nola eraiki zituzten.

a) Lehen mailako ikasketak etxean egin zituzten, ama errietsa.

b) Gainerako denbora « nurse » delako haurzain batekin.

e) Egunero, arratsean, ordu bakar bat aita-amekiko. Jaun-andere handi batzuei bezala mintzatu behar zieten. Gaitzeko larderia zuten amarekiko. Goxotasuna, aitaren ganik zuten : euskal kantuak irakasten zizkien sutondo xokoan, bereziki « Aitarik ez dut » delakoa. Ironia pixka batekin erran daiteke amarik ez zutela, bi aita zituztela ordea, baina gisa batez amaren lekua aitak betetzen zuen eta, alderantziz amak aitarena. Dena dela, nortasun zorrotzeko emakume horrek nortasun handia eman zien hiru semei, eta bereziki gure Antoine bikainari.

f) Aitak neskame bat Euskal Herritik erakarri zien euskararen irakasteko. Michel euskaltzale suharra zen eta hiru semeak ber bidetik ibiliko zaizkio.

Alabak itzalean egon dira, garaian ohi zen bezala. Baina balio luke horiez ikerketa sakon baten egitea.

6- Senar-emazteek Irlanda utziko dute 1820an han ukan dituzten lau haurrekin eta Frantziako Tolosan plantatuko dira.

III– Antoine d'Abbadieren gaztaroa (1820-1837)

A- *Frantziako Tolosan (1820-1828)*

Irlandatik ostera, Michel d'Abbadie familia Frantziako Tolosan plantatzen da, « dans le vaste hôtel Saint-Jean situé au cœur de la ville » dixit Bernard d'A. d'A. goian aipaturiko bere liburuan (4. or.).

1 – Antoinetik ikasketak onak egiten ditu hiriko kolegio-lizeo batean. Chateaubriand handiaren idazkiak asko maite ditu eta horietan edireten du bidaietarako tirria, irrika.

2 – Grekoan irakasle du Lécluse paristar sonatua. Antoineri esker, jaun hori euskarari lotuko zaio. Euskal gramatika lan bat idatziko du. Michel d'Abbadiek horretan urgaztiko du 1826an aholkuz eta diruz.

3 - Gainera Michelek Darrigol apeza beste lan batekin « Académie Française » ospetsuaren lehiaketa batean parte hartzera bultzatuko du 1828eko agorriaren bosteko letra batez. Gutun horrek salatzen digu, bidenabar, aitzineko udazkenean Michel d'Abbadie bere familiarekin Biarritzeko itsas bainuetan egon zela : « L'automne dernier, me trouvant avec ma famille à Biarritz pour prendre des bains de mer, je fis l'acquisition de votre ouvrage sur la langue basque. » Darrigolen lanak lehen saria irabazi zuen eta, gertatu bezain laster, Michel d'Abbadiek berria eman zion eskutitzez 1829ko apirilaren 24an.

4 – Bitarte horretan Antoinetik batxilera erdietsi du 1827an. Gero urtebetez zuzenbide ikasketari lotu da Tolosako fakultatean.

B- *Parisen (1828-1837)*

Michel d'Abbadie Familiarekin Parisen plantatzen 1828an, Saint-Dominique karrikan.

1- Antoinék zuzenbidean jarraitzen du 1831eraino, baina sail hori ez zaio aski : letretan eta zientzietan ere dihardu. Garaiko irakasle hoberenak ditu : zuzenbidean Cousin, Guizot eta Villemain ; mineralogian eta geologian Brogniart eta Brochant de Villiers ; zoologian Duméril ; astronomian Biot eta Arago handia : azken horren ikasle kuttuna dugu Antoine.

2- Augustin Chahoren (Agosti Xahoren) ezagutzak egiten ditu, duda gabe atharraztar gaztea Parisera doalarik zuzenbidean ikasteko.

3- 1832an aita itzaltzen zaio Parisen : han lurperatuko dute, « Père-Lachaise » delako hilerrian.

4- 1833 Antoinék Adauseko jauregia erosten du, Biarno bazterrean, Nabarregosetik oso hurbil, Ürrüstoitik ez urrun. Asma daiteke aita zenaren ganiko ondare parteaz baliatu dela hor.

5- 1835ean txango bat egiten du Ingalaterran eta Irlandan gaindi, haurtzaroko oroitzapenen bila.

6- 1936 urtea zinez aberatsa du :

a) « *Analyse du voyage en Navarre de M Chabo* » delako idazlana ematen du « *Bulletin de la Société de Géographie* » agerkarian. Hor gorai patzen ditu Chahoren abertzaletasuna eta suzko idazkera. Lehen karlistadan gaude (1833-1839).

b) Chahorekin gramatika lan bat agertzen du, « *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne* » deitua. Aitzin-solas luzea, frantsesez, d'Abbadierena da : lehenik euskararen berezitasunez ari da, gero bibliografia bat dakar, orduko hoberenetarik.

c) Ber urtean Brasilerara itzuli bat egiten du, Aragoren konduko, magnetismoaz miaketa andana baten burutzeko. Itsasontzian Napoleon III.a izango denarekin ezagutzak egiten ditu, eta hor iduriz adiskidetzen dira.

7- Ondoko urtean, 1837an, Etiopiarantz abiatuko da bere anaia Arnouldekin : hor bukatzen da beraz Antoineren gaztaroa.

Oso ikasle argia izan da, batean gartsua, bestean dastaka zebilena. Jakintza sail guzietan sudurra sartu du, eta hola jarraituko du bizitza guzian. Halere sail bat badago denen gainetik maite duena : zeru-ortzi borobila-ren ikertzea, hots astronomia.

IV– d'Abbadie Etiopian, Arnauld anaiarekin (1837-1848)

Antoinek Etiopia korrituko du, Arnauld anaiarekin, kasik hamabi urtez. Horien xedea, Nil ibaiaren iturburu ezezagunera heltzea da. Tirria goizik etorri zaie, eta luzaz horretarako apailatu dira gorputz eta espirituz, bereziki kanpoan gogorki bizitzera ohituz, gauaz lurrean lo eginez, igerikan jardunez, eta abar... Hizkuntzetan, etnologian, geografian halaber trebatzen dira bi anaiak.

1- Nil ibaiaren sorburuan edan dutelako ustearekin itzuliko dira, eta Franzian zinez ospatuko dituzte beren balentriaz, hala nola dominak eta medailak emanez. Urteak behar dituzte Nil urdinaren iturburua ikusi dutela ohartzeko, ibai nagusia Nil zuria delarik ordea, bestea baino barneratago mendebalderantz : honek sorburua Etiopiatik urrun du, hego aldean, Tanganika eta Victoria lakuen ingurutik. Baina bi Abbadietarrek beste lorpekin erdietsiko dute Afrika horretan. Beraz Etiopiara itzul gaitezen.

2- Oso toki arriskutsua zen hura, edozein eritasun eta gaitzez aberatsa, gerla zibiletan murgildua, eta jende zuriari aspalditik hetsia. Beraz haren ezagutzeko irrika ere bazuten bi anaiak.

Feodalitatean bizi zen Afrika ekialdeko erresuma kristau zaharra. Ahalmenik ez larderiarik ez zuen gehiago « Negus » delako enperadoreak, « erregeen erregeak ». Eskualde bakoitzeko buruzagiak osoki beregain izan bazen bezala gobernatzen zuen, « errege » titulua beretuz. Auzokoari guda egiten zion edonoiz. Anarkia horren aurka jeikia zen orduko printze serio eta zuzen bakarra, Guoxo delakoa. Atsku epaile nagusiari esker, honen bitartez harremanetan sarturik, haren alde jarri zen Arnauld eta gudalburu bilakatu, « Ras » (Rais) edo printze titulua irabaziz : etiopiarrek « Ras Mikael » deitu zuten. Amak Charles bila igorririk, bi anaia handiak Etiopiatik lekutu ziren gazteenarekin.

Anartean Antoine zuhur eta jakintsuak ez zuen denborarik galdu. Bere anaia gudariaren babesaz ongi baliaturik, egundainoko ikerketak burutu zituen sail eta maila guzietan : geografian, geologian, geodesian, astronomian, fisikan, biologian, etnografian, hizkuntzetan ... Etiopiako hizkuntza nagusia den amhareraz hiztegi bat idatzi zuen, 3.000 hitzez hornitua. Bestalde gaitzeko manuskrito sorta ekarri zuen handik.

3- Misiolari katolikoei bidearen irekitzeko ametsa ere bazuten Abbadietarrek. Etiopiako erresuma aspalditik kristaua zen, ortodoxo koptoen familia-koa, baina musulmanez inguratua, beste eliza guzietarik urrun bizi eta nahiko txiroa pentsakeraz. Bi anaiak ez bide zuten arrakasta gehiegirik erdietsi.

4- Laugarren xede bat ere bazuten : Frantziaren babes hango buruzagiei eskaini nahi zieten « protectorat » moduan. Hor lehian gertatu ziren ingelesekin. Egiptoan gaindi ere ibili ziren, Adenetik pasa bi aldiz : portu horretan ingeles gobernari batekin arazoak ukan zituen Antoinetik, frantses espioi-barrandaria zelakoan ; izkutuan egon behar izan zuen, gero isilpean ihes egiteko. Bi anaiak ekialdea 1848 ondarrera utziko dute. Etiopiako handiki batzuekin harremanetan egongo dira, eta berantago printze gazte batekin ezagutzak eginen dituzte : hura da Menelik (1844-1913), Etiopiaren batasuna berriz eginen duena, erregetza 1889an harturik.

V– Antoine d’Abbadie Urruñan (1849-1870)

1849an Lapurdin kokatuko dira Etiopiaren bi ikertzaileak : Arnauld Ziburun, Antoine Urruñako Aragoirian, gero Hendaiaiko udalerrira pasako den ondanean. Baina hori erosi aitzin, egonaldi labur bat egiten du Adauseko jauregian.

I- Ikerketa txangoak egiten ditu munduan gaindi : Jerusalem (1850), Noruegan (1851), Espainian (1860), Aljerian (1867) ...

2- 1851ean Abbadiak bere Euskal Jaiak Urruñan hasten ditu pilota partida eta Lore Jokoekin. Gero euskal kirol askotara zabalduko ditu. Hamahiru urtez Urruñan antolatuko ditu (1851-1863), gero hamabiez Saran (1864-1876), 1870ekoa hutsik utzi baitzuen alemanekiko gerlaren gatik ; ondotik herri ezberdinetan, 1879an Elizondon hasirik mugaren bi aldeetan aldizka : tarteka beste lau aldiz Saran. Antoinetik irabazleak bere sakelatik saristatzen zituen, parte on batean bederen. « Aita Abadia » deitzen dute, baita « euskaldunen aita ». Haren Euskal Jaiak eta Lore Jokoak urtean behin egiten ziren, baina bestalde herri eta elkarre batzuek berenak antolatu zituzten haren etsenplura. Donostia lehena izan zen 1879an, Bilbok azken hitza ukan du 1935ean.

3– 1852an Frantziako « *Académie des Sciences* » famatuan « *urgazle* » (laguntzaile) hautatzen dute (*membre correspondant*).

4- Trenak Parisekiko harremanak erraztuko dizkio : Baionara heltzen zaio 1855ean, Hendaia 1864ko apirilan eta Irunera pasako da ber urteko abuztu/agorrrilan.

5- 1856an hil zitzaion Ürrüstoiko « egüzama », Abbadiako Maria-Maitena, aitaren arreba gehiena : hilarrian hiltartitz eder bat egin zion zubereraz.

6- Louis-Lucien Bonaparte printzearen euskal ikerketak urgatziko ditu (1856-1869), ingeles hizkuntzalariak zazpi lurraldeetan eginen dituen bost itzulietan ; eta bereziki laguntzaileak aurkituko dizkio eskualde guzietan : Duvoisin, Inchauspe, Arxu, Etxenike, Otaegi, Uriarte ... Charles d'Abbadiek ere parte hartzen du, Baigorri Etxauzeko bere jauregian idazle horietarik batzu bilduz.

7- Antoine bere lumaz ere baliatu zen euskararen alde, hala nola bere « *Travaux récents sur la langue basque* » delako idazlanean (1859). Gure hizkuntzan idatzi ukan du, guti bada guti : gutun batzu lapurteraz, eta bereziki bat luzea, « *Zubernoatikako gutun bat* » : egin beharra den bide batez Urruñako udal kontseiluari hertsatzen zaio.

8- Augustin Chaho (Agosti Xaho) adiskide zuberotarra 1858an galtzen du.

9- 1859an Antoine ezkontzen da Virginie de Saint-Bonnet anderearekin (1828-1901) ; Dauphiné aldekoa da hau, Grenoble ingurukoa. Ber urtean Adauseko jauregia Charles anaia gaztearen emazteari saltzen dio, Aragorrian beste jauregi baten eraikitzeko : hura date, berantago, Hendaiako Abbadia.

10- Ber urtean, Magentako gudukan ari zen Abdullah, Etiopiatik askatuta ekarria zuen esklabo ohia. Soldadu sartu zen Frantziako armadan. Harez erraten da Antoine d'Abbadiek semetzat hartu zuela. Ustekeria horrek ez du funtsik : beste bi esklabo bederen Etiopiatik ekarri zituen ; gainera Abdullahri gutun batean idazten dio armada uzten badu, baratze-zain hartuko duela ; hori ote da gizon aberats batek semeari eskaintzen dion bizipidea ?

11- Abbadia jauregia eraiki zuen beraz Aragorrian (1864-1870), Viollet-Leduc arkitekta sonatuaren planetik. Lana kudeatu zuen Duthoit ongi deituriko beste arkitekta batek. Begia xorrotx atxiki zion Antoineren emazteak, den-mendreneko xehetasunik ahantzi gabe. Jauregiak Irlandako neo-gotikoaren itxura du kanpotik. Barnetik ordea, Etiopia eta Egiptoa oroitarazten dituzten irudiak ugari ditu. Geletan zuhurtitz batzu idatzirik daude Antoinenek ikasiriko hamalau hizkuntzetan, bereziki gaelikoz (hau atari garaian) eta zenbait euskaraz. Lana bukatu zen 1870ean. Napoleon III.ak azken harria ezarri beharra zion, baina urte horretan gerla galdurik joana zen Alemaniara presoner eta gero Ingalaterrako desterrura : Abbadiak harri bat eskas omen du balkoi batean.

I2- Anartean ama galdua zuten d'Abbadietarrek (1865). Parisen zendua, Irlandan lurperatu zuten aitamen hilobian, Thurnesko serora urtsulinen komentuan, hau Thompson familiak lehenago eraikia. Hiru anaiak amaren gorputza haraino lagundu zuten.

Ber urtean Arnauld anaiarenganik urruntzen da Antoine eta dirudienez ez dute gehiago elkar ikusiko, kasik auzo direlarik. Haustura ama zendu eta berehala gertatu da 1865ean. Antoinetik arreba gehienaren senarra gaizkitu zuen bai eziz eta amaren ondoregoan kalte egin ziola, eta lekuko zegoen anaia isilik egon omen zen. Susmo ilun eta balinba kurutzatuen zirimolan sartzen gara, holakoen frogatzea bezain neke baita ezabatzea. Gainera ekaitza 1864 ondarrean metatzen hasia zen.

Eiki, 1864ko gutun batean, Arnauldek Antoineri azalpenak eskatzen zizkion Elisabeth West-Young anderearekin ezkontzetik baztertu nahi zuelakoan, berak emaztegaiarekin harremanetan jarri ondoren. Azkenean Antoine eta Virginie ezteietara joanen dira, urte bukaerantz eginen direlarik. Hona zer dion Guilhem apezak bere Monografiako 90. orrialdean : « Ezkontza Parisen egiten da, Saint Pierre du Gros Caillouko kapera batean, parrokiako erretoreak benedikatua. Hogeitabat gomitu bildu dira. Antoine eta Virginie amaren manuz etorri dira, baina zinez hotz egoten dira. »

Azken batean, itxura guzieren arabera, Virginie da bat-bateko haustura iraunkor horren arrazoi erabakitzailea, Arnaulden alaba den Angèle d'Abbadie du Saillant andereak idatziriko testu baten arabera : Manex Goyhenetxek agertua du Biltzarreko liburuan, 103. orrialdean. Virginieren ardura zinez mendratzen zuten eroaldi batzuek, gaitz hori familiaz baitzuen.

I3- 1867an Frantziako « Académie des Sciences » ospetsuan « membre titulaire » hautatzen dute, hots akademikide oso. Bere lan guzietan esker, ez zuen gutiago hartze. Hori bera aitortu zioten beste jakintsuek, nahiz gehienak ez ziren haren ideologiakoak. Urgazle izateko arazoak eta nekeziak ukan zituen 1852an, katolikoa zelakoan. Baina Arago handiak bazterrak baretu zituen erranez : « Gizonaren sakonean dagoena ez dugu ikeritu behar : d'Abbadie jaunaren lanak aztertu behar ditugu soil-soilik. Erlijio mailan dituen aburuak ez dira gure alorrekoak. Eta nik, sinesten dutenez inbidia dut. »

VI– Antoine d'Abbadie Hendaian (1870-1897)

1870. urtean Abbadia jauregia bukatzen du beraz eta hor kokatzen da emaztearekin. Hendaiaiko lurrean ote ? Geroak hola erabakiko du, ezen hogeita hamar urtez Urruñako udalarekin aharran erauntsi ondoan, Hendaiaikoak ondasun hori, zati txiki bat salbu, aldebat beretuko du 1896an, Félix Faure Errepublikako presidentearen dekretu bati esker.

1- 1870an gerla pizten da Frantziaren eta Alemanien artean. Ondorioz urte horretan Antoineek Euskal Jairik ez du antolatzen.

2- 1871an Abdullah hiltzen da Parisko gerla zibilean. « Commune » delako matxinatuen alderdian baitzegoen, gobernuko armadak presoner egin du eta kaserna batean fusilatu.

3- 1871-1875 : lau urtez Hendaiaiko auzapez egon zen Antoine. Ordu hartan ez zen oraiko hiria, askoz ere txikiagoa zen. Haatik d'Abbadie ez zen geldirik egon : zubiak eraiki zituen, karrikan argia ezarri, herriko etxea berritu, hondartza ere antolatu ...

4 – Urte bertsuetan gertatu zen bigarren karlistada (1872-1876). Lehen karlistadan jada (1833-1839), hego Euskal Herriko Karlisten alde agertua zen d'Abbadie, Xahorekin. Gero hegoaldeko iheslari bat aterbetu zuen eta noizbait Ameriketara joaiten lagundu : hura zen Arrondo pilotari sonatua, 1846an Tolosaren hartzera saiatu zena Alzaa brigadierarekin.

Bigarren karlistadan d'Abbadie ber aldetik agertu zen hitzez, izkirioz eta obratz. Zehazki zer egin zuen ? Asko erraten da, hala nola armak eros eta Hendaiaiko jauregian gordetzen zituela, mugaz beste aldera igortzeko. Baina nire jakinean, inork ez dakar horren frogarik. Erran izan da ere, eta neronek idatzi dut denboran, Karlistak bere diruz laguntzen zituela. Baina horren frogarik ere ez dut aurkitu idazkietan.

Seguru den ekintza bakarra hau da : Tirso de Olazabalek, Karlista handia izanez eta d'Abbadieren adiskidea, alderdiko dirua Parisko banku batetik ezin jalgiz, Antoineri eskatu zion atera ziezion : honek egin zion, « berrogei mila » (euskaraz idatzirik ordenan) emanez arma saltzaile bati. Hara mementoko dakidan bakarra.

5 – Xurien eta gorrien arteko pataskek gerla ondoko Euskal Jaiak ilundu zituzten. Donibane Lohizungo Guilbeau mediku euskaltzale baina errepublikanoak d'Abbadieren inguruko epaileei kritika zorrotzak egin zituzkien. Jorraldi horiek kontutan hartu zituen d'Abbadiek eta ez zuen maite

politika sar zedin Jai horietan, nahiz bera erregetiarra zen. Adibidez 1876an, Saran, epaimahaiak olerki hoberena saririk gabe utzi zuen, d'Abbadieri huts egin beldurrez, poema hori Errepublikaz gehiegi trufatzen baitzen : Gratien Adema « Zalduby » senpertar apezaren « Biba Errepublika » zen, eta idazlea XIX. mendeko hoberenatarik dugu. Alta d'Abbadiek, bere azken urteetan, Guilbeuren errepublikanoek antolaturiko Euskal Jai eta Lore Jokoak jasan beharko ditu bereen parean, eta berak haien kritikei bidea zabalduko die, Madalena Larralderen gai minbera hirur aldiz hautatuz olerki lehiaketetarako.

6 – Beste nahigaberik jasan zuen d'Abbadiek, eta zoritxarrez hain maite kuttuna zuen elizako buruzagitzaren ganik. Euskararen irakasteko aulki bat bere diruz eraiki nahi ukan zuen Baionako apezgaitegi handian, baina horko zuzendariak baimenik ez zion eman. Antoine kontsolatu zen ahal bezala, lehen jaunartzean euskaraz ongi zekiten haurrei sariak emanaz. Horretarako apezik gabeko epaimahaiak antolatu zituen.

7– Horien guzien artetik, ofizioko lanetan erauntsi zuen beti bezainbat.

a) Haitin eguzki gordetze bat miatu zuen 1882an.

b) Etiopiari buruzko idazlanak burutu zituen : amharera hiztegia, berriki arte gainditu ez den mapa bat, zientzia liburuak... « Lan hauen moldaketak irau zuen bidaiak bezainbeste » idazten du Iñigo Sagarzazuk *Elbuyar* aldizkariko zenbaki berezi batean (73-74, 1993). D'Abbadiek bere idazlan handienak 1873an agertu zituen : « *Géodésie d'Ethiopie...* » eta « *Observations relatives à la physique du globe faites au Brésil et en Ethiopie.* »

c) Bere jauregitik astronomiako miaketak hasi zituen, izarren mapa baten egiteko.

d) « Académie des Sciences » delakoan egun bat pasatzen zuen astero.

8 - Bidaiatz, emaztearekin gaztaroko tokietara itzuli zen, bereziki Afrikako ekialdera eta Asia hurbilera : Egipto, Aden, Etiopia bisitatu zituen 1884an, baita Konstantinopolis (Istanbul).

9– Ospea

a) 1892an « Académie des Sciences » instituzioko Presidente hautatu zuten.

b) Ber urtean, Donibane Lohizungo Euskal Jaietan, omenaldi handi bat eskaini zioten eta ohorezko makila bat eman. Bazkari ostean jeiki-rik, mintzaldi bat egin zuen, euskararen eta euskal kulturaren aldeko dei bat aldarrikatuz, eta burutu zuen « *Zazpiak-Bat* » oihu sonatuaz, hau baitzen ere Festa horietako aldarri eta ikur nagusia, Albert Goyhenetche auzapezak jarria, bereziki afixetan.

10– Azken urratsak

a) 1893an Arnauld anaia galdu zuen. Ehorzketara joan zen, emaztearen isilik omen, eta gaineko galerian bakarrik zegoela, nigar hipaka entzuten zuten beherekoek. Gainera bera hil ondoren, etxean gela hetsi bat baitzuen printzipioz bere lanentzat, han largabista bat aurkitu zuten, anaia-aren etxerantz zuzendua eta erdoilak norabide horretan finkatua.

b) Artetik derradan 1883 urtean, Arnauld eta Charlesek beren ohiko abizen, deiturari, d'Abbadie familiaren jatorrizko herriaren erdal izena ofizialki gehitu ziotela, **d'Abbadie d'Arrast** bilakaturik, eta Arnaulden ondoko ugariak izen bikun hori dakarte beti. Haatik Antoine, Jaurgain zuberotar hiztorialaria kontsultatu ondoren, **d'Abbadie** abizen bakanarekin egon zen.

c) 1893tik aitzina, iduri luke d'Abbadie Errepublikaren onestera doala emeki, Leon XIII Aita Sainduak eta gero Lavigerie baiones kardinalak katolikoei eginiko deiari jarraikiz. Horrez hona Manex Goyhenetche idatzi duena : « *Le Patriote* kasetako Batzorde babeslean agertzeak (kasetari hori 1896ko apirilaren 10an katoliko apez eta laiko gazte batzuek sortu baitzuten Errepublikaren aldeko ideien hedatzeko) asmatzera utz dezake Errepublikari buruz emeki lerratzen hasi dela Leon XIIIren ildotik. Ikuspegi horrekin, ikertu behar litzateke zer harreman ukan zuen Mgr Jauffret Baionako apezpiku errepublikano eta konkordatuzailearekin, baita baionar etorkiko Mgr Lavigerie, Aljerren Errepublikari topa eginez famatuarekin. » (*Biltzarreko liburuan, 183. orrialdean*).

Horradino d'Abbadie, legitimista, Bourbontarrei atxikia egon zen beti. Napoleon IIIren adiskidea izanagatik, ez zen inperiozalea bilakatu, nahiz batzuetan hitzez « napoleonzale » agertu zen. 1874ko martxoaren hiruan, Duvoisin kapitainari (erregezalea baitzen hau ere) hau idazten dio : « Nahiz Napoleon III anitz ona izan den beti nirekin, Frantzia ez dezaket zoriotsu asma Bourbontar batekin baizik, zeren honek oinarri du mendeek finkaturiko printzipio bat, oraiko deusek ezin uzkailea. Uste dut anartean Estatuaren ontzia norabiderik gabe doala, azkenean despota batek gobernatuko duen Errepublika baten leizerantz ».

d) Erregetiarra izanagatik, demokrata zen bere gisan. Eiki 1869ko bozketa kantonalei buruz, Ürrüstoiko auzapeza eta Xiberoko Sindika den Païssa de Gazteluk Mauleko kantonamenduan hautagai ofizial bezala eskaturik, ezetz ihardesten dio : « Nahiz ez dudan hautagaitza ofizialen printzipioz arbuiatzeko kopetarik, Frantziak onartzen dituen, ezin dut sinetsi gure herrian beharrezkoak direnik, hemengo bozemaileek ohoratzen dituen oreka eta zuhurtzia bat erakutsi baitute beti. Ene kargua herritarren hautu libretik nahi nuke. »

e) Agosti Xaho ezkerreko errepublikanoarekin lan egin zuen euskararen alde. Baina, iduriz bitxia izana gatik, gisa horretako kidetza ez zen hain ohiz kanpoko denbora hartan : errepublikano eta legitimistak elkargana zitezkeen Louis-Philippe erregearen aitzi, baten eta besteentzat zuzen kontrako buruzagia baitzen. Bestalde, Antoine eta Xahoren artean bazegoen politikaren gainetiko euskal patriotismo (edo matriotismo) bat, hizkuntzaren eta kulturaren aldeko elkarlanera oroz lehen bultzatzen zituena.

f) 1894an Hendaiako Abbadia jauregia bere lurrekin ematen dio « Académie des Sciences » instituzioari. Aldiz Ürrüstoiko Abbadia, bada-kigun bezala, Mauleko de Souhy-Sunhari lehengusuei uzten die. Horien ondokoek beren etxetiarrari salduko die 1961ean : Challa familiari.

g) Hil aurretik Antoinetik kontsolazio bat ukanen du : 1896an Menelik II errege berriak Etiopiaz jabetu nahi ziren italiarrak Aduan garaitzen ditu. Azkeneko, d'Abbadie bi anaien ametsa bete da : Afrikako kristau erresuma zaharra berriz bat eta beregain dago !

h) Antoinetik bururaino lan egingen du. Akademiako bilkuran zegoen oraino martxoaren hamabostean. Hemeretziari, ahuldurak harturik, idazlan bat utzi behar ukan zuen. Arratsari buruz agonian sartu zen eta laster azken hatsa eman zuen, emaztearen alboan, Parisko 120 rue du Bac karrikako egoitza batean. Hor zendua zen kasik mende erdi bat lehenago, 1848an, Chateaubriand, asko miresten zuen zelta handia. Ez ahantz d'Abbadie euskaldun **irlandarra** zela bere amaz, jaiotzaz, hartzaroz ! Ongi gogoan zuen, Hendaiako Abbadiaren siluetak bere hegitik erakusten duen bezala.

Antoine d'Abbadieren gorputza kapera horretan lurperatu zuten, aldare azpian, ohorezko makila batekin omen¹. Hamazortzi egunez

¹ Luzaz erran izan da 1992ko Euskal Jaietan Donibane Lohizungo udalak eman zion makila zela, eta nik ere, aitzinekoenganik jaso errepikatuz, hori bera idatzi dut behin baino gehiagotan. Baina 2010ean 1992ko horren kirtena Abbadia jauregiko altzari zahar batean ediren du Céline Davadan horko arduradun berriak.

beilatu zuten etxetiar, maizter, bordariek. Ehorzketan parte hartu zuten Atharratzeko dantzariak eta Andoaingoek, nafar gaiteroekin. Lau urte berantago, 1901ean, Antoineren saihetsean lurperatuko dute Virginieren gorputza. Senarra beti gartsuki lagundua zuen bere lan mota guzietan, bereziki euskararen eta euskal kulturaren alde. Zorion hori ukan zuten d'Abbadie hiru anaiek, aitzinetik aitak eduki zuen bezala. Mirets dezagun urrundik etorritako lau emakume horiek euskaldungoari ekarri zioten bazterrik gabeko sostengua.

ANTOINE D'ABBADIEREN LORE JOKOAK

- I- Lore Jokoen etorkia
- II- Antoine d'Abbadieren tirria
- III- A. d'Abbadieren Lore Jokoen antolakuntza
- IV- A. d'Abbadieren Euskal Jaiak : egutegia, edukia, sariak
- V- Euskal Lore Jokoen ikuspegi orokorra

Antoine d'Abbadie geografo eta astronomo jakintsua, Jakintzen Akademiako Lehendakaria, Euskal Herrian ezaguna da, haren Euskal Jaietako bitxiak ziren Lore Jokoak antolatu zituelako urtero 1851tik 1896ra. Sail horretan katalanen ondotik sartu zela irakur daiteke maiz. Joko berriei dago kiela, ikusiko dugu ez dela egia, eta bera dela horien asmatzailea. Erdi Aroan ordea, Tolosako okzitaniarrei zor zaie izenburu hori zekarten literatura lehiaketan asmatzea, eta oraino diraute.

I

Lore Jokoen etorkia : Tolosako Lore Jokoak

Lore Jokoak zer diren : 1323tik Okzitaniako Tolosan zazpi trobadore gaztek finkatu zituzten urteroko olerki lehiaketak. Horretarako « Compani » edo « Consistori del Gay-Saber » delakoa sortu zuten : Europako literatura elkarre zaharrena litzateke. Lehenbiziko lehiaketa Tolosan ospatu zuten 1324ko maiatzean. Castelnaudaryko Arnaud Vidal batek irabazi zuen. Saritzat urrezko **bioleta** bat ukan zuen. Geroztik urtero, maiatzaren hiruan, ber lorea saritzat ematen zaio poeta hoberenari. Haatik urrezko arkakarats, basarrosa bat ere aipu da sarien artean. 1515ean agertzen da « Lore Jokoen Konpainia ». 1694an Louis XIV Frantziako erregeak « Lore Jokoen Akademia » mailara hupatzen du. Hastean okzitaniara hutsez baitzen lehiaketa, denborarekin frantsesa ere sartua zuen, eta Louis XIV.aren bisitari esker, Oileko hizkuntzak Okekoa kanporatu zuen. Hau bere kabiara itzuliko du 1895ean Frederic Mistral idazle han-

diak, eta horrek literaturako Nobel saria irabaziko du 1904an, okzitaniarazko idazlanez. Geroztik, eta oraino ere, Tolosako Lore Jokoek bi hizkuntzetako poemak saristatzen dituzte. Lore Jokoen Akademiak egoitza Hôtel d'Assézat delakoa du, XIV. mende bukaerantz eraikia.

Antoine d'Abbadieren ohoretan 1997an Hendaian eta Saran eginiko Biltzarrean, Manuel Castellet katalan idazleak dio literatura lehiaketa horien inspiratzaileak izan daitezkeela Erromak Flora jainkosari egiten zizkion jaiak, eta gero XI. mendeko Maitasun Gorte okzitaniarrak : « Ès l'origen dels Jocs Florals, certamens literaris possiblement inspirats en les festes que Roma celebrava en honor de la deessa Flora i en les Corts d'Amor occitanes de finals del sigle XII, (...). » (*Biltzarreko liburuan, 585-594 or.*).

XIV. mende bukaerantz, katalanek Tolosako lehiaketa imitatzen dute. 1393an Aragoi eta Kataluniako errege Joan I.ak « Consistori de la Gaia Ciencia » delakoa sortzen du Bartzelonan. Hiri horrek Lore Jokoak antolatzen ditu 1394an eta 1395ean. Katalan « Jocs Florals » horiek itzaliz joanen dira XV. mendeko bigarren partean, mende bat eskas bizirik, Manuel Castelletek dion bezala.

XIX. mendean, katalan Jocs Florals horien berpizteko ideia hozitzen hasten da Rubio i Ors idazlearen lumatik, Lo Gaiter del Llobregat kazetan, xede horren betetzea proposatuz, Academia del Gai Saber delakoarekin. 1856an Academia de Bones Letres deituak olerki lehiaketa bat antolatzen du, Menorcaz jabetzea gaitzat emanez, eta Valentzian Lore Jokoak ospatzen dituzte horko Unibertsitateko bibliotekariak bultzaturik. Haatik Jocs Florals ofizial berriek hastapena 1859an dute, « maiatz lehenean zuzen », beraz zortzi urte lehenbiziko euskal Lore Jokoen ondotik, hauek 1851an Urruñan estrenatuak baitzituen Antoine d'Abbadiek.

Beti 1997ko Biltzarrean, Denis Labordek zehazten du : « d'Abbadieren lehiaketak : 1851an, hiru urte Provencen « felibreek » beren mugimendua Frederic Mistralen inguruan egituratu aitzin, eta zortzi urte katalan *Cortes de Amor* (lore joko) haien aitzin, Antoine d'Abbadiek, Maurice Harriet (1814-1904) Baionako apezgaitegi handiko irakaslearekin, olerki kantatu lehiaketa bat antolatzen du Urruñako festen kariara. » Gero Denis Labordek aipatzen du euskal literatura lehiaketa bat, 1609 eta 1610 urteetan Iruñean Antonio Venegas de Figueroa horko apezpikuak antolatu zuena, baina segidarik gabe gelditu zena. (*Biltzarreko liburuan, 601-620 or.*). Apezpikuak 1609ko deian haxe dio : « Y porque celebrandose en este Reyno de Navarra la solemnidad de la fiesta, no ez razon que la Lengua Matriz del Reyno quede desfavorecida, se pide en este certamen un romance de dos coplas en bascuence... » (*Euskal Jaiak / Fiestas Euskaras, J.A Loidi Bizkarrondo, 13. or.*).

1997ko Biltzar horretan, Antoine d'Abbadieren Lore Jokoen lehentasuna baieztatzen du Pierre Bidartek, 268-269. orrialdeetan : « Beraz « euskal jaietako » ekintzen eremua Lore Jokoen baina anitzez ere zabalagoa da, horiek olerkiari emanak baitira nagusiki, eta Katalunian berpiztuko dituzte 1859an. »

Bizkitartean, irabazleak lore soilez saristatzen baitituzte, katalan jokoeak lehiaketa horien loretasuna azken izpi erabakigarri batez argitzen digute.

« **Flor** natural – a la millor composicio poétic de tema lliure, (...) – , **Eglantina** d'or a la millor composicio poética de tema patriotic, historic o civic - **Viola** d'or i argent – a la millor composicio poética de tema religios, espiritual o moral – (...) » (*Biltzarreko liburuan*, 539. or.).

Gure gogoetaren lehenbiziko parte honen bukatzeko, argi dago d'Abbadie ez dela katalanen ondotik hasi : aitzindu ditu. Ordea Erdi Aroko okzitaniarren etsenplutik ikasi duke, ezagutzen baitzituzkeen. Eiki Tolosan bizi izan da 1820tik 1827ra, bigarren maila han estudiatu du, eta gero urte batez zuzenbidean ikasi, hazkurri mehea haren buruko janiza famatuarentzat. Zientifikoa bezain literaturazalea zen, Chateaubriant handiaren mireslea.

Gaztaroan olerkiak idazten ditu ingeles eta frantsesez, bereziki hogeita bosteko sorta bat 1835ean uharte britainiarretan eginiko txangoan¹. Denez kurios dago, ezin asea. Tolosa ez da hiri erraldoia, are garai hartan. Antoinenek biga-bostetan korritu duke, orotan zokokan betiko legez, Etiopia baino toki errazagoan. Logikoa denez, seguru bezala nago Tolosako Lore Jokoen Akademia ezagutu zuela, horren jarduera eta historia barne. Aitzina bilatzen ariko naiz, ahalaz frogen edireteko, eta kausitzen baditut, horien berri emanen dizuet atseginekin.

Tolosako Lore Jokoez ikuspegi zenbait

Bere *Anthologie de la poésie occitane* liburuan¹, André Berryk okzitaniar Lore Jokoak beren egoera historiko nekean kokatzen ditu.

« Okzitaniar olerkiak XIII. mendean iraunen zuen berritu gabe, halaber ahuldu gabe. Hondamendia politikatik etorri zitzaion nagusiki. Charles d'Anjou Provenceko konde alkira igateak osatu zituen Kataroen aurkako gurutadak 1203tik eta Tolosako setioak 1211an eginiko kalteak. Frantziako erregeak Lengüadoc beretu zuelarik 1271an, okzitaniar olerkiari azken golpea eman zion. Elizako epaileen bortizkeriari gehitu zitzaion erret kargudun kolonizatzaile tiranikoen gogorkeria. Jadanik noble argituen beherapenak eta gero desagertzeak ogibiderik gabe utziak zituen ; kontzientzia askatasunaren

¹ *Anthologie de la poésie occitane*, bilingue, André Berry, 1961, 1979, Editions Stock - Préface, XV.

ezabatzeak haizatu zituen Espainia eta Italiako gorteetarantz, eta han iraun zuten tokiko hizkuntzak gailendu arte. Narbona, Rodez, Foix, Astarakeko gorteak azken baluarte hauskorak izan zitzaizkien. Egiaz trobadoreen arteak iraupen bakarra Tolosan ukan zuen, Lore Jokoek izozturik. « Joyas del Gay Saber » titulupean badaude « Consistori » delakoak 1324tik 1484ra sarituri-ko 63 olerki, eta oso guti dira akademismo ertainena gainditzen dutenak.

« Bertrand de Born, Bernard de Ventadour eta Arnaud Daniel bezalakoek biziraupen ahul hori baino zerbait gehiago merezi zuten : Frantziako ipar aldean bezala Italian, Portugalen eta Espainian, Alemanian ala Ingalaterran, gaitzeko eragina izango zuten. » (*Aitzin solaseko XV. orrialdean*).

Ikusten dugunez, André Berryk denbora hartako poema ezagunak estimu gutitan dauzka. Baina beren izateaz beraz bizinahia erakusten dute Okzitania lehentxeago xehatu duen hondamenetik landa.

Tolosa okzitaniar poesiaren eta horren beherapenaren erdigunean kokatzen du halaber beste liburu iduriz neutralago batek, hau da Ch. M. Desgranges eta J. Boudout jaunen *Histoire de la littérature française* delakoa (103-104 or.) :

« Poesia liriko jakintsun eta aratzago bat garatu zen XI. mende bukaeratik Frantziako hego aldean. (...) Erdigunea Tolosan zuen, horko kondeek *gai saber* delakoa babesten baitzuten, eta maiz poetak ziren berak ere. Kataroen gerlak zibilizazio distirant hori hondoratu zuen. »

Duda gabe, ez da suertez Tolosan agertu hain zuzen berpizkunde zerbait Lore Jokoen itxuran.

Lore Joko horiek ez ote ziren, hastean bederen, literatura ñapurrago baten iceberg tontorra ? Kataroen historia bateko² zati batetik susma daiteke :

« Frogarik ezean, badakigu bederen Tolosako tratulari baten semea zen Bernard-Raymond Baragnon gazteari 1274ko irailean eginiko galdezkatik, Tolosan bazegoela garaileen ordenari aski aiher zen jendetza bat, trobadore « abertzaleen » olerkiak izkutuan hedatzeko. »

Okzitaniar Olerkigintzaren Antologia hori baino politikoagoa da *Le petit livre de l'Occitanie* (ezkerreko abertzalea). Honek Tolosako Lore Jokoetako literaturaren maila ez du zalantzan jartzen, baina bai Frantziako erresumaren erasoari buruz duen indarra³ :

² *Histoire de Cathares*, Michel Roquebert, Librairie Académique Perrin, 1999 - Editions France Loisirs, p. 443.

³ *Le petit livre de l'Occitanie*, par la Comité occitan d'Etudes et d'Action, sous la direction de Jean Larzac, « 4 vertats », 1971 - p. 42.

« Hirigintzan ere ageri delarik frantziar uholdea (bastiden itxura geometrikoa, iparretiko gotikoa), okzitaniar poesiaren salbatzeko zer da zazpi tolosar burgesen ahalegina, Gai Saber delako lehen akademia sortuz (1323) ? Okzitaniar hizkuntza ez da gehiago gobernukoa, soilik populukoa. Biziko da populuak boterea hartzen baldin badu. » (42. or.).

Gero berpizte berantiar eta labur bat aipatzen da : « Montmorency Lengadoceko gobernariak (1613) Tolosaz egiazko hiriburu baten egiten jakin izan zuen. » (47. or.). Montmorency hori Henri I.a da (1534-1614), Frantziako armada burua.

Eta 48. orrialdean : « ...Montmorencyko jaunari burua ebakirik, Estatu agintea barrandaturik, occitaniar kultura probintzialismora mugatuko dute, zerumugarik gabe utziz. Godolin batek bere bertsoak Henri IV.aren eta Louis XIII.aren oroitzapenari dizkio, eta, frantsesez, Louis XIV gazteari. Eta okzitaniara, berriki lore jokoetako Akademiara itzulia, hartarik haizatua da (1694). » Montmorency hau, bestearen semea, Henri II (1595-1632), Gaston d'Orléans printzea lagundurik Richelieu kardinalaren aurkako bihurraldi batean, Castelnaudaryko guduka galdurik, presoner hartua, hitzera kondentua, eta erahila da.

II

Antoine d'Abbadieren tirria

Zer irrika edo tirriak Antoine d'Abbadie bultzatzen du Euskal Herriko Lore Jokoen antolatzaera ? Lehen usaina hartzen diogu Gaston Darboux jaunaren « *Notice historique sur Antoine d'Abbadie* » idazlanean. Jakintzen Akademiako idazkari iraunkorra den jaun horrek urteroko bilkura idekian irakurri zuen, 1907ko abentuaren bian. Hona zer dion bere testuko 36. orrialdean : « Ikusi dugunez, Euskal Herriko familia batekoa izaki, harro zegoen populu txiki, zintzo, kementsu eta burgoi horretako semeetarik izateaz, horrek hainbeste oztoporen gainerik, mendez mende bere hizkuntza eta nortasunaren atxikitzen jakin izan baitu. » Ongi irakurtzen dugu : « hizkuntza eta nortasuna. »

Antoinek badu nondik, aita euskaltzale gartsua baitzuen. Haurrei euskaraz irakatsi zien.

Gero aitak hizkuntza horretako gramatika eta hiztegi lan batzuk zuzenean lagundu zituen, jarraian Darboux jaunak zehazten digun bezala : « Euskal hizkuntzaren eta herriaren maitasun hori familiako ohituran zegoen. Antoineren aita Mixel d'Abbadiek, Tolosako egonaldian, Lécluse jauna, grekozko lite-

ratura irakaslea, euskararen ikertzeroa finki lehiarazi zuen ; bere ikerketa lanetan lagundu zuen eta haien argitaratzean diruz urgatzi. Gero Frantziako Akademiari Darrigol apezaren gramatika lana zinez goretsi zion eta erakundeak gomendioa beretu zuen ».

Mixel d'Abbadie euskal gramatika eta literatura lanetan zuzenka sartu zen : Lécluseren hiztegiari « Porspecus » delakoa idatzi zion, eta *Grammaire* liburuan La Fontaineren « Le corbeau et le renard » alegia (Belea eta axeria) zubereraz itzuli.

Bere aldian Antoine euskararen sustenguan sartu zen, eta sail horretan egin zituen lan garrantzitsuenak aipu ditu Darboux jaunak : « Semeak aitaren ber bidea hartu zuen. 1836an Agosti Xahorekin elkarlanean, euskaratuz gramatika ikerketa batzu argitaratu zituen, eta hor ohargarriki agertzen da erranaldi burgoi hau : « Aitzitik badirudi ezen bertze hizkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baina euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela. » (*Axular, Gero, Irakutzaileri*), eta ondorioa, hizkuntza orokorren aldekoie zuzendua : « Euskarak, hizkuntza ezagunen erro guztiak beretzen ahal baititu, eta bere aditza sistemaren batasun arautuari baita betekizun osoari tolesten, plegatzen, hizkuntza orokor baten moldatzeko behar diren baldintza guztiak ez ote ditu biltzen ? » (Bukatu du).

Darboux jaunak Antoineren lanen zerrenda aitzina derama : « Euskal Herrira itzuli orduko, Antoine euskararen ikertzeri eman zen berriz. 1859an, hizkuntza horrez eginiko lan berrien azterketa argitaratu zuen ; gainera *Zubernoatikako gutun bat* deiturikoa idatzi zuen.

Baina ez zen idaztera mugatzen. Hain maite zuen populu txikiko usantxa, ohitura, hizkuntzaren sustenguz, urteroko lehiaketak eratu zituen, eta Akademiari dagokio gaur horien atxikitzea. » (Bukatu du).

Lore Jokoen gaian gaude erdiz-erdi. Darboux jaunak zinez azpimarratu du Antoinen euskal hizkuntzari eta ohiturei zien atxikimendu osoa, eta Abbadieren urteroko lehiaketen aipamenez, horren gramatika eta literatura lanak koronatzeko dituzte. Idazkari iraunkorrenentzat, argi dago euskal mezenas handiaren irrika. Niretzat ere bai, haatik dossieraren isuria hazi behar dut iturritik abiatuz, hots Tolosako Lore Jokoetarik.

1323an « Compani » edo « Consistori del Gay-Saber » hura sortu zuten zazpi trobadore gazteek okzitaniera sustatu nahi zuten. Haien ondoko katalanek ber xedea zuten beren hizkuntzaren alde, halaber Jocs Florals delakoak 1859an berpiztu zituztenek.

1997ko « Antoine d'Abbadie » nazioarteko Biltzarrean, Denis Laborde Tolosako Lore Jokoetara itzultzen zaigu. Horrentzat, mehatxatua den hiz-

kuntza baten salbatzea da lehiaketa horien helburua ; Antoine d'Abbadieren irrika Tolosako trobadoreen hura bera da : « Tolosako Consistori del Gay-Saber delakoak 1323an eratu *Lore Jokoan* haritik, kataroen galeraren ondotik mehatxatua zitzaion okzitanieraren salbatzea helburu zutela, garai berrian d'Abbadiek lehiaketa hori antolatzen du mende ondarreruntz bere aldiari mehatxatua ikusten duen euskararen hazteko literatura ekoizpenez. » (*Biltzarreko liburuan*, 605. or.).

Pierre Bidart irakaslearentzat ere, Antoine d'Abbadieren tirria hizkuntzaren aldekoa da lehen-lehenik : « b) JOKO ETA JOKOZKO. Lavigerie kardinalari 1868an igorri gutun batean (...), A. d'Abbadiek oroitarazten dio (kardinalak) Urruñan parte hartu zuela (d'Abbadieren) sarien banaketan, 18 urtez geroztik antolatzen baititu « euskararen salbatzeko eta horrekin egiazko tradizio zaharren atxikitzeko esperantza poxiarekin. » Hitz horiek lehiaketen eragilearen kulturazko xedek argitzen dituzte, hizkuntzaren gaia erdiguneko kokatuz, ohituren bermetzat ezagutzen duelarik. » (*Biltzarreko liburuan*, 277. or.). Pierre Bidartek gehitzen du, arrazoinekin, d'Abbadieren baitan euskal gizarte tradizional eta patriarkal baten ikuspegiari lotua dela euskara.

Uste dut auzia trenkatua dela : Antoine d'Abbadiek Lore Jokoak sortu ditu, bere Euskal Jaietako bitxi bezala, euskararen zerbitzuko, baita euskarak nortzen eta biziarazten duen ohituraren alde. Baina azken hitza bego Charles Petit, « Cassation » gorteko epaileari, horren aburua Gaston Darboux jaunaren iritzia uztartzen delarik. Donibane Lohizunen 1897ko agorrilaren 15etik 22ra ospaturiko Euskal Ohituraren Jaietan, « *Antoine d'Abbadie* » izenburua duen hitzaldia egin baitzuen, horren idazkia agertu zen 1899an « *La tradition au Pays Basque* » liburuan, 539-560 orrialdeetan., eta liburu hau berriz argitaratu du 1992an Baiona-Donostiako Elkar etxeak.

« Gure hizkuntza, harentzat, altxor bat ezinago baliosa zen, kalte guzietarik zaindu beharrekoa. Zer indarkak ez ditu egin, nolako sakrifizioak ez ditu onartu eta ez zituen onetsiko bere hiztunek (euskara) jinko bat bezala ohora zezaten ? Haren alde zuen sugarra bere inguruan hedatzera saiatu da etengabeki. Iparralde honetan dituen miresle beroeneko eta zaindari maitemindueneko batzuetara mugatuz, nolako harremamanak ez ditu atxiki Duvoisin kapitaina, Haristoy apezka, Adema eta Inchauspe kalonje / kanonigoekin ? Maurice Harriet apezka zein lehiatuki ez ote du behartu bere euskara-frantseza Hiztegiaren agertzera, hain aspalditik igurikatua zen obra bikain hori Littréren frantses Hiztegiari konparatuko baitu (d'Abbadiek) ? ».

III

A. d'Abbadieren Lore Jokoen antolakuntza

Antoine d'Abbadieren Lore Jokoak mezenas jakintsuaren urteroko Euskal Jaietan kokatzen dira ; hauek herri ezberdinetan antolatzen ditu txandaka, mugaren ipar ala hego aldetik, baina toki bakarrean urtekal.

I— Tokiaren hautatzea

Euskal Jaien lekua d'Abbadiek berak urtero hautatzen du. Gutiz gehiengotan bere kabuz ari da. Batzuetan auzapez baten eskariari erantzuten dio.

Urruñan bizi baita, lehenik bere herriko festak ohoratu nahi ditu pilota partida saristatuz, baita olerki lehiaketa, gero bestsolariena. Euskal Jaien zerrenda hor hasten du 1851an eta segituko 1863raino. 1864an Sararen aldi, Dithurbide auzapezak eskaturik, 1878raino, salbuespen bat Donapaleun eginenez 1877an.

Urte horretan Iholdiko erretoreari idatzi dio Euskal Jaien toki ezberdinetan txandakatzeko nahia hastetik ukan duela, galdeen arabera. Beraz asma dezakegu galderik ez duela ukan orain arte, salbu Saran. Iholdi ez da deliberraten. Orduan d'Abbadiek Donapaleuko auzapeza den Baratcharti proposatzen dio, eta honek onartzen. Donapaleuko Festen arrakasta ikusirik, Mauleko auzapezak d'Abbadieri idatzen dio 1878ko prestik legokeela ; halaber G. Diriaert Donapaleuko auzapez berriak. Beharbada bien artean ez hautatzeko, d'Abbadiek azkenean Sarako auzapez berria den Goyetcheren eskariak onartzen ditu. Honek mugako herriaren abantailak azpimarratu dizkio. Publikoaren erdia hegoaldeetik dator. Gainera mugaren bi aldeetakoak elkarri buruz sar daitezke sail ezberdinetan (pilota, bertso paper, bertsoan,azienda primaketan) lehiaketa zintzoan eta euskal espiritu zabal, nazioranzkoan.

1979an Euskal Jaiek muga gainditzen dute, Elizondora joanez. Azken urteetan akidura bat senti zen Iparraldean : lehiakide gutiago, lan ahulagoak, euskaltzaleen arteko eztabaidak bigarren karlistadaz. Gerla zibil hura 1876an bukatzen da, eta 1877an Iruñean sortzen « Nafarroako Euskara Elkarte » , Arturo Campion idazlearen inguruan, « Zazpiak-Bat » aldarriarekin. Ardurdunak d'Abbadierekin harremanetan sartzten dira, eta honek sustatzen ditu : honekin elkarte berriak Elizondoko Festak eta Lore Jokoak antolatzen ditu. Duvoisinek J.D.J. Sallaberry mauletar notario ezagunari hautu horren zergatiak azaltzen dizkio, zuberotarrak atzitu baititu.

1880an Mauleko auzapeza azkenekotz entzuna da. 1881ean d'Abbadiek Irungoari dei egiten dio eta honek onartzen, ohoreaz eskertuz. Festa ospe-

tsuak antolatzen dituzte udalak, Abbadiek eta Nafarroako Euskara Elkarteak. 1882 berriz Sara beti ongi etorri egilean. 1883an Abbadie Gernikara joatekotan zen, baina politizazio susmoaren baztertzeko, Markinara doa. Festa ederrak, sari askorekin : jakintsunak emanikoen aldean ugari dira beste mezenas publiko ala pribatuenak. 1884an berriz Saran.

1885ean Abbadiek Nafarroan Etxarri Aranazko auzapezari proposatzen dio, baina honek ezetza eman behar kolera izurrite baten ondorioz. Azken aldiko Sara maitera. 1886an d'Abbadiek Urrietako auzapezari (Donostia aldean) dei egiten dio : honek bozik onartzen.

Halaber 1889an Nafarroan Doneztebekoak, 1887an Azkainen eta 1888an Kanbon izan ondoren. Maulera bigarren aldiko 1990ean. 1891an d'Abbadiek arrakastarekin Iurretako auzapezari (Bizkaian) idazten dio, eta 1893an Azpeitikoari, Gipuzkoan.

Bitartean, 1892an, d'Abbadieri dei egin diote Donibane Lohizungo erretoareak eta Albert Goyhenetche auzapezak : Festa oroitgarriak eginen dizkioite, « Zazpiak-Bat » aldarria Jaietako gai orokortzat emanik. Omenaldi gora bat ukanen du, baita ohorezko makila ; 1894an Donibane Garaziko Festak, 1895ean Berakoak, 1896an Maule-Lextarrekoak aitaren Zuberoa Herrian. 1897ko martxoaren 19an zendua, 1897ko irailean ez du parte hartuko Bizkaian Areatza / Billaroko Euskal Jaietan : haren alarguna datean Virginie de Saint-Bonnet andereak babestuko ditu.

2- Epaileen hautatzea

1853an d'Abbadiek Baionako apezgaitegi handiko irakasle den Harriet kalonjeari gutunez eskatzen dio Urruñako literatura lehiaketarako epaimahai bat antola dezan. Honek halaber gutunez ihardesten dio, eta Haritschelharrek bere « *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* » liburuko 448. orrialdean honela zititzen du : « Zure gutun anitz maitagarria herenegun ukan dut ; horren gaiaz Dassance apezarekin mintzaturik, erantzun diezazuket. Lehiaketako Jaun epaileen abizenak liriteke : Haramboure apeza (bikario orokorra), Dassance apez kalonjea, Harriet apeza (Apezgaitegi Handiko irakaslea), Lissardy apeza (Hazparneko dekanoa), Donibane Lohizungo Ducos Jauna ; bistan dago zu lehendakaritzat ukaiteko ohorea eskatzen dugula ; hartze duzu (zor zai-zu). Ohar berezi baten egitera ausartzen naiz : zeren ez gehitu Goyetche Jauna (*Urruñako erretoare, Davanten oharrez*), La Fontaineren itzultzaile zinez estimatua, eta gainera laiko zenbait, kolorez aldatzeko bederen ? Gainera baliteke egun finko batean denak ez aizinant gertatzea eta zenbaki pixka bat hantua egiaz gutinenez hertzea. » Baina zein da gutieneko zenbaki hori ?

Patri Urkizuk, Antoine d'Abbadieren euskarazko biografia saioan, 320. orrialdean, Maurice Harrieten beste bi gutun aipatu ditu, bata abuztu / agorrilaren 20koa, bestea 23koa, 1853ko Lore Jokoen epaimahaia honela aurreikusten dutenak : Ducos, Leremboure, Larralde, Hiribarren, Lissardy, Dayanne (*Dassance ? Davanten galdea*), eta Goyetche.

Azken hitza bego Pierre Bidarti : « Epaimahaian nausi daude Eliza gizonak : « Dassance kalonjea, Harriet apezgaitegi handiko irakaslea, Lissardy Hazparneko erretorea, Goyetche Urruñako apeza, Ducos Donibane Lohizunen ondasun jabe dena, Leremboure Baionan abokatu dagoena, d'Abbadie Institut erakundeko urgazlea : (...) ». (*Biltzarreko liburuan*, 278. orrialdean).

1854an agertzen da Jean Duvoisin aduanetako kapitaina, Ainhoan sortua, lapurteraz idazle bikaina. Bururaino mezenas jakintsuaren argitzaile, aholkulari eta bozeramailea date epaimahaian eta horren inguruan. Epaimahaiko beste zutabe bat, berantxeago : Manuel Inchauspe kalonjea, zuberotarra, Baionako bikario orokorra.

Duvoisin 1891an zendurik, Urkizuk 1892an Donibane Lohizungo Euskal Festetako epaimahai hau erakusten digu : « Grazien (sic) Adema « Zalduby », Jean Etcheverry Baionako Gurutzearen Alabak seroren apeza, Sansinenea katedraleko erretorea, Etienne Lapeyre eta Abbadia... ».

Baina mugaz haraindian zer dabila ?

1881ean Irungo Euskal Jaiak, udaletxearen laguntzarekin Abbadiak eta Nafarroako Euskara Elkartek antolatu dituzte ; epaimahaikoak dira Arturo Campion, Jose Manterola eta Alfonso Maria Zabala, « ...Antoine d'Abbadie Jaunaren eta Nafarroako Euskara Elkartearen izenean eta ordezkartzen Epaimahaitzat eratuak, euskarazko olerki Lehiaketara aurkezturiko idazlanen mereziez erabakitzeko, (Lehiaketa hori) adostasunean aldarrikatu baitute filologo sonatuak eta delako Elkartek, Irungo Euskal Jaien baitan... » (*Euskal Jaiak, Fiestas Euskaras, J.A. Loidi Bizkarrondo, 34. or.*). Kasu horretan, epaileak elkarrekin hautatu dituzte dirudienez Abbadiak eta Nafarroako Euskara Elkartek.

Azpeitiko Euskal Festetan 1893an, d'Abbadiak eman bide hau hartzen dute lehiaketa bakoitzeko hiru epaileen hautatzeko : « ...hiru ttantto edo ilar (babarrun) zuri kutxara botaiak dira, ttantto edo ilar beltzen artean ; hautaketan parte hartzeko nahia erakutsi dutenetarik bakoitzak, zerrenda batean aitzinetik izena emanik, bere aldian ilar bat ateratzen du, eta hiru ilar zuriak atera dituzten hiru jendeek hiru epaileak izendatzen dituzte ; hautesleen artean bozak barreiatzen badira, epaileak zotzak tiratuz hautatuak dira. Eta aldikal epaileak aldatzen dituzte » (I).

Laburbilduz, ageri da Abbadiek pertsona bati edo tokiko antolatzaile batzuei ematen duela bere Euskal Jaietako mahaikideen hautatzeko lana, bereziki Lore Jokoetan. Irungo kasuan, Euskal Jaien eta horien baitako Lore Jokoen antolatzaile lagun baitzuen Nafarroako Euskara Elkartea, horrekin adostu duke.

3— Gaiaren hautatzea

Olerki lehiaketako gaia epaimahaiak jarri du hirur epe larurrez : 1853-1856, 1879-1881 eta 1894-1896. Bitarte luzeetan, lehiakide bakoitzak bere hautua egin dezake. Prosazko idazlan laburrak onartuak dira (narrazio, ipui), d'Abbadiek 1874an eta 1875ean eskaturik, baina guti agertuko dira. Ez ahantz Antoine dela mahaiburua. Halere hastapenean Harriet kalonjea epai-leen hautaketaz goraki mintzo zaio gutunez mezenas jakintsuari, « d'Abbadie aholkatuz artikulu bat idatz dezan epaimahaiak nahi duena hobeki zehaztuz (*Davantek azpimarratua*). « *Le Messager de Bayonne* » kazetan zabalduko dei hori errepikatzen du « *Le Mémorial des Pyrénées et de Bayonne* » delakoak, eta Jean Haritschelharek zititzen du « *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* » bere liburu 449. orrialdean. Hona epaimahaiak jarritako gaiak :

- 1853 : Montevideora abiatzean euskaldun baten damuak
- 1854 : Laborantzaren eta baserriko bizitzaren laudorioa
- 1855 : Emazte edalea
- 1856 : Herriko Besta
- 1879 : Euskaldunen gogoak (Euskaldunen gauzarik maiteena)

Baina beste sari bat hitzartua dago gai libreentzat.

- 1880 : Bizi da ama euskera
- 1881 : Euskal populuaren batasuna (*A. d'Abbadieren 80 pezeta eta Laborde-Noguezen makila*). Baina beste bi sari hitzartuak daude : bata neurtitzezko kantu batentzat (*zilar urreztatuzko medaila bat*), bestea gai libreko bertso paper batentzat (*Nafarroako Euskara Elkartearen zilarrezko domina*).
- 1894 : Madalena Larralde Sarako martir(i)aren istorioa. *Idazlanak ugari agertu ziren, baina bakar bat ez bebar zen mailakoa.*
- 1895 : ber gaia, *ber emaitza butsalak.*
- 1896 : Ber gaia hirugarren aldiko, *eta sariak azkenean : 1. saria Diharasary, Ortzaiizeko erretoreari ; 2. saria Felipe Arrese Beitia bizkaitarrari, Elizondon 1879an irabazi zuenari ; 3. saria Francisco Lopez Alen Donostiakoari, eta besterik badu d'Abbadieren lehiaketan bildurik.*

Madalenaren gai hori hiru aldiz jarraian eman zuena d'Abbadie omen zen. Hala baldin bada, bere usaiako zuhurtziatik urrundu zen gai zirikagarri bat inposatuz. Madalena Larralde, Sarako emakume bat, hogeita hamasei urtekoa, 1794an atxilotu zuten Frantziako soldadu errepublikanoek, Espainiako erresumarekiko gerla betean, muga isilka pasa zuelako zenbait aldiz. Salatarigoaz akusatua, hiltzera kondenatua izan zen eta Donibane Lohizunen burua ebaki zioten. « Zuriek » harez egin zuten neskatoxe gazteño bat, « Gorrien » eskuetan martir hil zena, Etxalarren, Sarako herri auzoan, komuniatzen izan zelakoan.

Baliteke d'Abbadiek hola ihardetsi nahi izan duen errepublikanoen Lore Jokoen erronkari, horiek mindu baitukete, berdin sumindu ere, are gehiago Errepublikaren onartzera zoalarik dirudienez, Leon XIII Aita Sainduaren eta Baionako Lavigerie kardinalaren deiari jarraikiz.

Jean Haritschelharrek, 1997ko Biltzarrean, A. d'Abbadieren Lore Jokoe-tako lehiakideek aipaturiko gaien ideologiak ikertzen ditu euskaraz, « *Ideologiak Lore Jokoetako kantuetan* » izenburuaren azpian. (*Biltzarreko liburuan, 621. Orrialdean*). Hona, besterik gabe, gai horien izenak :

- 1 – « **Euskaldun fededun** » : euskaldun askoren fede katolikoa, euskaldungoarekin bat.
- 2 - « **Gai erromantikoak** ... Etsipena ... Eritasuna ... Amodioa ... »
- 3 – « **Baserritar giroa** ... Etxea ... Herri-mina ... »
- 4 – « **Politika** ... Inperioa eta orduko gerlak ... Gerlak (*orokorki*) .. Es-kuindarrak ... Euskal Herriaren kontzientziaren sortzea ... Euskararen kontzientzia ... Zazpiak bat ... »

IV

Antoine d'Abbadieren Euskal Jaiak

Antoine d'Abbadieren Lore Jokoak kokatzen dira beraz urtero antolatzen zituen Euskal Jaien baitan. Usaian idazten da 1853an hasi zirela, baina Patri Urikizu idazle eta ikertzaileak, euskarazko biografia saioan, 1851an hasi zirela erakusten du. Antoineren idazkietan oinarritzen da, bereziki « *Ene euskal sariak eman ditudan tokiak : 1851 Urruñia : bastapena* » tituluaz hasten den gutunean, baita bere eskuz idatzi duen urteroko zerrendan. 1853 hasi zirela uste izan da luzaz, urte horretan ospe handia bildu zutelakoz Lore Jokoen antolaketak bikainari esker : hor fama distiranta hartu zuten lehentze, egiazko hastapen umilagoak ahantzaraziz.

I– Jai horien egutegia

Bestalde bere « *Anton Abadiaren koplarien guduak* » liburuan – Lore Jokoetan agerturiko bertso paperen sorta bat da – Urkizuk Abbadieren Euskal Jaien zerrenda finkatzen du mezenas handiak idatzirikoaren arabera, eta gutun horren fotokopia bere liburuko IO. orrialdean agertzen du, etorkiko idazkia Parisko Bibliothèque Nationalean dagoelarik. Haatik eskueskribua 1891an gelditzen da, beraz Urkizuk beste dokumentu batzuei esker osatu du, eta horietan bermatuz, Patrirekin ados nago.

1851-1863 : Urruñan (Lapurdi), 13 aldiz jarraian, baina 1861ean olerkirik gabe

1864-1876 : Saran (Lapurdi), 12 aldiz, 1870 urtea hutsik utziz alemanekiko gerla gatik

1877 : Donapaleun (Nafarroa Beherea)

1878 : Saran

1879 : Elizondon (Nafarroa Garaia)

1880 : Maule-Lextarren (Zuberoa)

1881 : Irunen (Gipuzkoa)

1882 : Saran

1883 : Markinan (Bizkaia)

1884, 1885 : Saran

1886 : Urnietan (Gipuzkoa)

1887 : Azkainen (Lapurdi)

1888 : Kanbon (Lapurdi)

1889 : Donezteben (Nafarroa Garaia)

1890 : Maule-Lextarren

1891 : Iurretan (Bizkaia) – *d'Abbadieren eskueskribua bemen burutzen da.*

1892 : Donibane Lohizunen (Lapurdi)

1893 : Azpeitian (Gipuzkoa)

1894 : Donibane Garazin (Nafarroa Beherea)

1895 : Beran (Nafarroa Garaia)

1896 : Maule-Lextarren

1897 : *Areatza / Billaron (Bizkaia) – irailean, Antoineren alargunak antolatua, bera urte horretako martxoaren 19an zendua baitzen.*

Antoine d'Abbadieren Euskal Jaiek zazpi lurralde historikoetarik sei bisitatu dituzte : soilik Araba hutsik egon da, beharbada urruntasuna gatik. Jai horien erdigunea Lapurdin dago, mezenas handitik hurbil : 46 agerraldietarik, 13 Urruñan eman dira, eta 16 Saran. Azkaine, Donibane Lohizun eta Kanbo gehituz, hiruetarik biez goiti lurralde horretan.

Orotara, zenbat olerki agertu ziren Antoine d'Abbadieren Lore Jokoetan ? Gorago aipatu dugun bere « *Anton Abadiaren koplarien guduak* » liburuan, Patri Urkizuk lau ehun agertu ditu. 1851ean Otxalderen olerki bakarra, pilotari emana, 1852an lau, 1859an 35 Saran : marka du, baina kasik berdindua 1858an (34) eta 1880an (33). Olerki bakarra 1897an Areatza / Billaron : jakintsu zendu berriari « ondu » dio Francisco Lopez Alen donostiarrak. Urkizuk berak aitortzen du ez daudela hor Lore Jokoetan aurkezturiko idazlan guziak. Etsenplutzat hona lehiaketa batzuetan egin daitezkeen erkatzeak :

Urtea, tokia	Aurkezturiko idazlanak	Urkizuk agertuak
1853, Urruña	37	07
1857, Urruña	02	02
1858, Urruña	38	34
1897, Areatza / Billaro	18	01

2- Euskal Jaien edukia

D'Abbadierentzat, okzitaniar eta gero katalanen Jokoak ez bezala, Euskal Jaiek festa orokor izan behar dute, ohiko euskal kulturaren mintzaera guziak besarkatuz : kopla idatzi, ahozko bertso, kantu, musika, dantza, antzerki ... joko zahar : lehenik pilota joko ezberdinak, gero baserriar atletismo lehiaketak (lasterka, jauzi, botatzeak), azkenean kanpañako eta laborantzako lanei lotuak diren zeingehiagokak : aizkolaritza, belar epaite, behi deizte, ur ekartze, abere primakak). 1881ean Irunen, estropada bat ere egin zuten Bidasoan.

A. d'Abbadie batzuetan gaizki hartu zuten bere xedeetan. 1879an Elizondon Baztan ibarreko auzapeza otoizten du antzara joko zitala ken dezan : alkateak galdea baztertzen dio ohituraren izenean, eta d'Abbadie zinez atzeman lekutzen da Virginie emaztearekin. 1880an Maule-Lextarren, d'Abbadiek nahi zuen pastoral bat, hau baita Zuberoako antzerki epiko tradizionala, baina merak jakinarazten dio antzokia ezin dela aski goizik plantatu pilota partidatik landa. 1892an d'Abbadiek plazer hori ukanen du Donibane Lohizungo Jaietan : « Abraham » trajeria emanen du sohütar talde batek.

Lehiaketa horietarik zenbait aurkituko ditugu d'Abbadiek eta haren etsenplura beste mezenas batzuek emaniko sarien ikertzean. Eiki lehiaketa on bat sortu zen jaunen artean. Euskal Herrian erronkak maite ditugu edozein alorretan. Trufari batzuek salatzen dute gustukoa ez duen lana euskaldunari nola eginaraz dakiokeen : erran behar zaio ezin egina dela ; eta biarnesari omen, ber xedean, euskaldunak egin duela jakinarazi behar zaio alegia deus ez ... Antoine d'Abbadie palanka horrez ongi baliatu zen euskararen eta euskal kulturaren alde.

Etsenplutzat, ikus ditzagun Antoine d'Abbadieren babespean antolatu zituzten bi Euskal Jairen egitarauak : Iurretakoak eta Azpeitikoak.

Iurreta Bizkaian dago, Durangoko atean. Egun hiri txiki bat da, industria-ri esker handitzen ari dena. Denboran herrixka bat zen. 1891an gure mezenas handiaren Euskal Jaiak aterpetu zituen, eta horien mendeurrena ospatu da 1991an. Karia horretara udalak, Jon Irazabal idazleak eta « Gerediaga Elkar-teak » liburuxka bat agertu dute bi hizkuntzetan, lehengo festen egitaraua emanez : bukaerako bibliografia laburrean edirenen dugu.

1891ko irailaren 29a, asteartea, San Migel egunez, meza nagusiaz hasten dira. Jendetza nasaiak parte hartzen du, buru dituela udal agintariak eta d'Abbadie bikotea. Elizako ofizioaren animatzaile da koro bat, antza denez ugaria, herriko aitzinkontuetan lerro batek 50 pezeta ematen baitizkio « Esteban Belaustegi » bati, kantari eta musikarien saristatzeko.

1 – Mezatik lekora, ezpatadantza lehiaketa Berriz eta Iurretakoen artean. Berrizko taldeari garaipena eta 80 pezetako saria.

2 – Aurreku lehiaketan : gehitu eta helduetan Iurretako Pablo Arregiri garaipena eta dagozkion 25 pezetak. Gazteetan Sebastian Amezua berriz-tarrari merezitako 12 pezetak.

Asteazkena, irailaren 30a, halaber hasten da meza kantatuaz, Eslava, Gorriti eta Zubiaurre konpositoreen musikan. Arratsaldeko biak eta erditan, lehiaketa berrien hastapena iragartzen da « txupinazoz ».

1- Irrintzina zeingehiagoka : lau gizon eta hiru emakume lehian.

2- Andre ur ekarleen lasterketa, pegarra buruan : 20 pezetako saria d'Abbadiek emana.

3- Oinezko lasterra : 100 pezetako saria d'Abbadiek emana.

4- Lauak eta erditan festa horien erpina, literatura lehiaketako emaitzen aldarriaz. Hemen 18 idazlan aurkeztu dira, izen-abizenik gabe Lore Jo-koetako arauen arabera. Epaimahaiak hautatu tituluak irakurri ondoren,

dohazkien gutunazalak irekitzen dituzte garaileen izenak ezagutzeko. Beren idazlanen irakurtzera deitzen dituzte. Hor ez dauden ordez, egin-kizun hori bete dezakete idazleek hautaturiko pertsonak. Horiek ezean, epaimahaiak beste irakuslerik hautatuko du. Garaile atera ziren Francisco Lopez Alen donostiarraren bi lan, Otxandioko Felipe Arrese Beitia bizkaitarraren beste bat eta Tolosako Ramos Azkarate gipuzkoarraren laugarren bat. Arrese Beitiak lau idazlanak irakurri zituen. Antoine d'Abbadiek lehenari eman zion urre ontza bat eta giderra urre eta zilarrezkoa zuen ohorezko makila bat.

5 – Ahozko bertso lehiaketan, 100 pezetako saria Antoine d'Abbadieren eskutik. Ezagutzen dugun bakarra, garailearen izena : Berrizko Domingo Besoita.

6 – 30eko egun hori bukatzen da txistu eta danbolin lehiaketaz. Lehen saria, 80 pezetakoa, Durangoko Bergarache bati doakio, eta bigarrena Elgoibarko (Gip.) lehiakide bati.

Urri lehena, osteguna, Iurretako Euskal Festen hirugarren eta azkena.

1- Bederatziak eta erditan esku huskako pilota partida Durangoko errebotean (Iurretak ez du pilota plazarik). Antoine d'Abbadiek irabazleari 70 pezetako saria ematen dio.

2- Hameketan, eliza aurrean, behi lehiaketa, tokiko arraza gorriarentzat bakarrik. Antoine d'Abbadiek 100 pezetako prima ematen du esnadun hoberenarentzat.

3- Arratsaldean, beti Durangon, pilota partida, duda gabe errebote / luze-ko jokoan (esku larruz jokatzen da, ohitura zaharrear, bi taldeak elkarri buruz, bota luzean edo tenisean bezala) : d'Abbadiek 400 pezeta talde garaileari eta 100 pezeta jokolari hoberenari (garaile ala galtzaile izanik).

Arratseko zortziak eta erditan Iurretako Euskal Jaiak Durangon bukatzen dira kontzertu batez. Billema, Rotoli, Rossini, Donizettiren obrak ematen dituzte, baita Zubiaurreren Ledia operako zortzikoa. Azkenean Donostiako « Bilintx » poetaren (1831-1876) « Ume eder bat » olerkia Santistebanen doinuan kantatzen du orfeoiko abesbatza edo koroak. Toledo probintziako Consuegra herria uholde batzuek funditu baitute irailaren 21ean, hango biktimen alde joanen da kontzertuko dirua. Udalak 90 pezetako laguntza gehitzen dio.

AZPEITIA, Gipuzkoa betean, Loiolako Iñakiren sorlekua dugu. Haren etxea bisita daiteke basilikaren baitan, zoritxarrez itoa nire gustuko. 1893an d'Abbadieren Euskal Jaiak herri horretan ospatu ziren irailaren 3, 4 eta 5ean.

Horien berri ematen digu Charles Bernadou baten frantsesezko liburuak : « *Azpeitia – 1893ko Euskal Festak* », Baiona, 1894.

Irailaren 3a, igandea : txarangaren karrika itzulia eta meza. Gero :

1- Oinezko lasterra : 60 libera garaileari, 30 bigarrenari, 10 hirugarrenari.

2- Esku huskako pilota partida : 80 libera bi taldeen artean banatzeko.

3- Ahozko bertso lehiaketa irabazten du Pello Errota Asteasuko errota-zain / eiherazainak : 100 libera urrezko.

Lehenbiziko egun hori bukatzen da San-Iñazio bilgune katolikoan musika eta kantu kontzertu batez, baita karrikan aurreikusia ez zen bertso buruz-burukako saio batez.

Irailaren 4an, « txaranga » eta Hilarion Eslavaren « Re » doinuko meza-tik lekora :

1- Irrintzi lehiaketa : 40 libera andere d'Abbadiek garaileari.

2- Ezpatadantza eta aurreku lehiaketa.

3- Euriak errebote (luzeko) pilota partida ezabatzen du.

Bigarren egun hau ere arratseko musika saio batez bukatzen da.

Irailaren bostean :

1- Andre ur ekarleen lasterketa, pegarra buruan.

2- Xisterazko pilota partida.

3- Txistu eta danbolin lehiaketa.

4- Behi gorri esnadunen lehiaketa.

5- Literatura lehiaketa : 1. saria Francisco Lopez Aleni, 2.a Felipe Casal Otaegiri, 3.a Gratien Adema « Zalduby », Senperen sorturiko apez lapurtarrari.

Aldakorra da Euskal Jaien luzera. Hastapenean, Urruñan, egun batekoa da usaian, pilota partida, bertso paper lehiaketa, bertsolarien ahozko saiora mugatuz. Saran ere egun bakarreako da gehienetan, baina bi ditu 1869an eta 1874an bederen. Gero hiruzpalau egunetara luzatzeko joera du, beraz edukiz aberastekoa ere. Bi egun Urnietan 1886an eta Maule-Lextarren 1890ean ; hiru egun Iurretan 1891an, Azpeitian 1893an eta Beran 1895ean ; lau egun Elizondon 1879an, Maule-Lextarren 1880an, Irunen 1881ean, Donibane Lohizunen 1892an, Donibane Garazin 1894an. Baina zabaltzea ez da lineala, batzuetan egun bakarrera itzultzen dira, Saran 1882an, Maule-Lextarren

1896an, Areatza / Billaron 1897an. Euskal Jai luzeak usaian herriko festekin bat datoz.

3– A. d’Abbadiek emaniko sariak

1853an Urruñan, d’Abbadiek literatura lehiaketako irabazleari ematen dizkio makila bat « bi buruetan zilarreztatua » eta ontza urrea. Aurrerantzean ere holakoa date Euskal Jaietako sari nagusia. Baina denborarekin gure jakintsuak beste mezenas bat horretan partzuer egingen du : Laborde-Noguez uztariztar diputatu « nazionalak » makila emanen du eta d’Abbadiek ontza urrea edo horren balioa liberatan edo pezetatan.

1856an Urruñan d’Abbadiek honako sariak bere boltsatik ematen ditu :

- Makila zilarreztatua eta ontza urrea olerkari hoberenari
- 400 libera errebote partida irabazi duen taldeari
- ontza urrea erreboteko pilotari hoberenari, garaile izan ala ez
- ontza urrea eta zetazko gerrikoa esku huskari onenari.

1869an d’Abbadiek Sarako auzapezari, « aitzineko urteetan bezala », 830 libera ematen dizkio, saritan banatzeko. Parte handiena pilotariei doakie, 80 libera poeta hoberenari, ber heina bertsolari onenari.

1881ean Irunen, d’Abbadiek 80 pezeta ematen dizkio olerki lehiaketa irabazi duen Victoriano Iraolari, eta honek gainera Laborde-Noguez diputatuak eskainiriko makila ukaiten du.

1883an Markinan, d’Abbadiek harrigarriko sari andana ematen du :

- 80 pezeta literatura lehiaketako garaileari, eta honek Laborde-Noguez makila ere ukaiten du.
- 80 pezeta bertsolari hoberenari
- 400 pezeta xisterazko pilota partida irabaziko duen taldeari
- 80 pezeta partidako jokolari onenari
- 60 pezeta andre ur ekarle hoberenari, 30 bigarrenari
- 60 pezeta oinezko lasterkari lehenari
- 100 pezeta behi esnadun onenaren jabeari.

Gainera Virginie d’Abbadie andereak 80 pezeta dizkio irrintzi lehiaketaren irabazleari. 1893an Azpeitiko garaileak 40 libera ukanen ditu Virginieren ganik, honek euskal oihua zinez prezatzen baitu.

1894an Donibane Garazin, d'Abbadiek Larralde auzapezari 1130 libera ematen dizkio saritan banatzeko : beraz 300 libera 1869an Saran emanetik goiti.

V

Euskal Lore Jokoen ikuspegi orokorra

1879an Antoine d'Abbadieren Euskal Jaiek eta horietako Lore Jokoei muga gainditzen dute, Nafarroa Garaiko Elizondo hirixkara joanez. Abian haraindiko botere publiko, kultura elkarte eta herri franko hasten dira Jai eta Joko horien imitatzen. 1879ean berean, Donostiako udalak, Gipuzkoako Aldundia lagun, bere Lore Jokoa antolatzen ditu, horien aita gomitatuz, baita horren adiskide Louis-Lucien Bonaparte printze hizkuntzalaria : Donostiako Jokoa urtero errepikatuko dira. 1882an Iruñeko udala ere hasiko da, halaber Bilbon « Euskal-Erria » elkartea.

Beste herri eta / edo elkarte batzuek noiztenka berenak antolatuko dituzte : Begoñak eta Berak 1880ean, Donibane Lohizunek 1881ean, Oiartzunek 1882an, Hondarribiak 1883an, Itziarrek 1884an, Arantzazuk eta Durangok 1886an, Gernikak eta Vitoria / Gasteizek 1888an...Maiz Lore Joko soilak dira, bereziki Donostia bezalako lurralde hiriburuetan. Baina batzuetan hiri txikiago batzuetan, Euskal Jai zabalagoak ospatzen dituzte, literatura lehiaketak barne. Durangoko Festetan bereziki, 1886an, fundatzailearenak ongi imitatu zituzten hiru egunez (uztailaren 24, 25 eta 26an).

1894an Gipuzkoako Aldundiak deliberatzen du Euskal Festa batzuen antolatzea urtero herri ezberdin batean :

1896 Arrasate	1903 Irun	1901 Azkoitia
1897 Oiartzun	1904 Ordizia	1911 Segura
1898 Zestoa	1905 Bergara	1912 Zarautz
1899 Zumarraga	1906 Donostia	1913 Tolosa
1900 Zumaia	1907 Elgoibar	1914 Hondarribia
1901 Azpeitia	1908 Eibar	1925 Hondarribia
1902 Oñati	1909 Hernani	

Baina Lore Joko guzien artean, A. d'Abbadierenak eta Donostiakoak dira osoki euskarazko lanei dedikatzen diren bakarrak. Beste denek gaztelarazko lanak ere saristatzen dituzte.

Berantean Lapurdin beste Lore Joko batzu agertuko dira, hauei kontra-jariak, errepublikazaleek antolatuak, buru dutela Martin Guilbeau medikua, sortzez urruñarra (1839-1912). Honek arrakasta politarekin d'Abbadieren olerki lehiaketetan parte hartu du (1859, 1863, eta 1872an). Baina 1874an, bigarren karlistada betean, euskaltzaleak zatitzen dira. Guilbeauek iragan berri den lehiaketako erabakiak jorratzen ditu, baita epaimahaiaren hutsak : anonimoa dela, ez gardena, esplikaziorik ez duela ematen ; azken urteetan bere deliberoen arrazoinik ez dakar. Guilbeauren protesta gutuna agertzen da « *L'Avenir, journal républicain des Pyrénées et des Landes* » kazetan, 1974ko irailaren 19ko zenbakian.

Donibane Lohizungo auzapez hautatua delarik, 1881ean Euskal Jai batzu hor antolatzen ditu, egitarauan « bertsolari lehiaketa » azpimarratuz. Berantago, udaletxea galdurik, « Euskal Elkarte » bat sortuko du beste errepublikazale batzuekin : horietan Julien Vinson instituto / lizeoko irakaslea, Dogson, d'Abbatiague, J.B. Elissamburu saratar kapitaina, Ezpeletan bake epaile dagoena, olerkari ona, Antoine d'Abbadieren Lore Jokoetan maiz irabazle ateara. Beste Lore Joko batzu Lapurdin gaindi antolatuko dituzte : 1893an (Uztaritzen), 1894an (Hazparnen), 1895ean (Ezpeletan), 1896an (Kanbon) eta 1997an (Saran). Joko horiek, Antoine d'Abbadierenak bezala, Euskal Jai batzuen baitan kokatzen dira.

Guilbeauek d'Abbadieri zuzentzen dizkion kritiketan kontraerran bat ikusten dut. Alde batetik dio « euskal literaturaren maila » ez duela hastapenean bezala eraikitzen, bestetik elitismorantz doala. Haatik medikua zuzen ari da ene ustez literatura lehiaketen politikara lerratzeko arriskua salatzen duelarik : 1874an lehentze saria joan zitzaion hegoaldeko euskaldun bati, eta horretan ez dago deus erratekorik ; baina horren olerkia erregegai karlistaren aldeko prediku sutua zen, eta euskaldun gazteak haren alde zizpen eta baioneten hartzera deitzen zituen. Hor errepublikazaleen haserrea konpreni daiteke.

Baina gaizkia egina zegoen, olerki supizlea jadanik agertua, nahiz lehiaketako emaitzen ondotik Sarako auzapezak ez zuen publikoan irakurtzera utzi aharra politikoko baten baztertzeko, bereziki departamenduko prefetarekin. Abbadiek abian kritika kontutan hartuko du, epaimahaia politikarako itxura guzian baztertzera deituz. Epaileek gomendioa beteko dute, bereziki 1876an, olerki hobereana saririk gabe utziz, Errepublika trufatzen delako ageri betean : « Biba Errepublika » hori, Gratien Adema « Zalduby » senpenterapezarena da, mendeko euskal luma hoberenetarik baitugu hau. Baina berantago, adina lagun, d'Abbadie tematuko da, Madalena Larralderen ipui supizlea hiru aldiz jarraian gaitzat inposatuz literaturako lehiaketan. Gaien hautatzeaz diharduen zatian aipatua dugu.

Bere aldetik Denis Labordek hauxe izkiriitzen du, eta ahozko bertsolarien miresle ikasia den horren ganik ez da nire ustean jorraketa bat, nahiz eskola elitista batek kritikatzat har dezakeen, hola bere gain hartzeko gisan : « Egiaz, euskal olerki lehiaketa horiek kantu sorketako lehiaketa batzu dira. » (*Biltzarreko liburuan*, 605. or.). Olerki sarituak, emaitzak oihustatu ondoren, doinu ezagun batean kantatu behar dira. Baina Ronsarden sonetoak ere kantatzeko idatziak ziren : batzu musikatu zituzten orduko Pierre Certon, Clément Jannequin, Claude Goudime ezagunek, eta Ronsarden soneto batzu XVII. mendean oraino kantatzen omen zituzten Parisko andre latsariek.

Literaturako kritika berriak, bereziki Hegoaldean, A. d'Abbadieren Lore Jokoak gutiesten ditu, euskal poesiaren maila ez duelakoan goratu. Izen ona, fama bederen eman diote. Lehiaketa orokor bat piztu dute, irakidura bat Euskal Herri osoan, mugaren bi aldeetan. Herritar ekoizpen ugari bat sustatu dute. Hau XX. mendeko loratze ikasiago baten humusa izan da ene ustez. Azpimarratu nahi nuke gainera « *jende xebeen* » idazlan apal horiek gehienetan euskara bikain batean idatziak direla, gaur askok zer ikasia bailukete hor. Iduri zait ere gure aitzinekoak horiez baliatu direla, XIX. mendeko bigarren zatian euskal prosa zinez aberastu baita Iparraldean, ohargarriko idazle on talde batekin, bereziki apezten artean, mailez eta oparoz XIX. mendeko lehen partearen uzta mehea baino aise hobea den ekoizpena ekarriz. Ene aburuz eta iritziz, idazle distirant horiek zerbait zor diete gure Abbadie handiaren Lore Jokoetan lehiakide izan ziren baserritar petzero ugari haie. Kritiko elitista batzuei erran nahi nieke bost izarretako sukaldariek beharrena ikasi dutela beren ama xumearengandik, eta lorerik ederrenak ongarri natural, zimauro, gorotz eta lurrustelean lilitzen direla ; eta beren aldian ongarri bilakatzen. Dialektika hori naturala zaio, eta ez itsusia, laborantzako biologian irakasle apala izan den idazle arrunt honi : bizitzaren zikloa da.

Egutegi orokor bati buruz

III. zatian ikusi dugu Antoine d'Abbadieren Euskal Jaiak eta Lore Jokoak nola sailkatzen diren urteka. 1851tik 1878a barne gisa horretako bakarrak egon dira Euskal Herrian. 1879tik imitatzailleekin lehian gertatu dira. Hona egutegi orokor baterako nire saioa. Urtero gure mezenas jakintsuaren Jokoak non eman ziren hizki beltzez oroitarazten dut lehenik.

1879 – **Elizondo**, Donostia, Buenos Aires (Argentina)

1880 – **Maule-Lextarre**, Begoña (Bilbo), Bera Bidasoa (Nafarroa Garaia)

- 1881 – **Irun**, Donibane Lohizun, Donostia, Montevideo (Uruguai)
 1882 – **Sara**, Bilbo, Donostia, Iruñea, OiartzunGip)
 1883– **Markina**, Donostia, Hondarribia (Gip), Irun
 1884 – **Sara**, Donostia, Iruñea, Itziar (Deba, Gip)
 1885– **Sara**, Donostia, Iruñea
 1886 – **Urnieta**
 1887 – **Azkaine**, Donostia
 1888 – **Kanbo**, Donostia, Gernika (Bizk), Vitoria / Gasteiz
 1889 – **Doneztebe**, Donostia
 1890 – **Maule-Lextarre**, Donostia
 1891 – **Iurreta**, Donostia
 1892 – **Donibane Lohizun** (*zazpiak bat* aldarri), Donostia
 1893 – **Azpeitia**, Uztaritze (*Guilbeau*)
 1894 – **Donibane Garazi**, Donibane Lohizun (*Abbadieri omenez*), Donostia, Hazparne (*Guilbeau*)
 1895– **Bera**, Ezpeleta (*Guilbeau*), Vitoria / Gasteiz
 1896 – **Maule-Lextarre**, Arrasate, Bilbo, Kanbo (*Guilbeau*)
 1897 – **Areatza / Billaro** (Abbadieren alargunak) Donibane-Lohizun (*Euskal Obituraren Festak, Abbadieren omenez*), Donostia, Oiartzun (Gip), Sara (*Guilbeau*).

Antoine zendu ondoren

Antoine d'Abbadie zendu ondoren ere (1897ko martxoaren 19an), Lore Jokoekiko Euskal Jaiak ospatuko dira herri ezberdinetan, Euskal Herrian baita « diasporan ». Dirudienez funtdatailearen gogoari atxikiak daude eta biziarazten dute, euskararen eta euskal kulturaren alde. Virginieren azken urteetan, 1997koetz gainera, Festa hauek ditugu :

- 1898 - Senpere (Lapurdi), Zestoa (Gip)
 1899 - Zumarraga (Gip)
 1900 - Zumaia (Gip)
 Virginieren heriotzak, 1901ean, Euskal Jaiak eta Lore Jokoak ez ditu geldiarazten, kasik Espainiako gerlaraino iraunen dute (1935).
 1901 - Azpeitia (Gip), **Hendaia** (*Jakintzen Akademiak ordaindurik*)
 1902 - Donostia, Oñati, Urrruña

- 1903 - Donapaleu, Irun
1904 - Donostia, Ordizia (Gip), Uztaritze
1905 - Baigorri, Bergara (Gip), Donostia
1906 - Donostia
1907 - Elgoibar (Gip), Kanbo
1908 - Atharratze, Eibar (Gip)
1909 - Hazparne, Hernani (Gip)
1910 - Azkoitia (Gip)
1911 - Donostia, Segura (Gip)
1912 - Donibane Garazi, Donostia, Iruñea, Zarautz (Gip)
1913 - Donostia, Getaria (Gip), Tolosa (Gip)
1914 - Andoain (Gip), Bilbo, Donostia, Hondarribia (Gip), Iholdi, Necochea (Argentina)
1915 - Bilbo, Donostia
1916 - Donostia, Vitoria / Gasteiz
1917 - Donostia
1918 - Bilbo, Donostia, Iruñea
1919 - Donostia
1920 - Bilbo, Donostia, Iholdi, Urretxu (Gip)
1921 - Donostia
1922 - Donostia, Durango
1923 - Donostia, Etxarri Aranatz (Nafarroa Garaia)
1924 - Amezketta (Gip), Baiona, Donostia
1925 - Donostia, Hondarribia
1926 - Doneztebe, Donostia, Iruñea
1927 - Arrasate, Donostia
1928 - Donostia, Iruñea
1929 - Andoain, Bilbo, Donostia, Iruñea
1930 - Donostia
1931 - Getxo (Bizk)
1934 - Madrid
1935 - Bilbo.

Burutzeko

Frankismotik landa, « demokraziarako aldaketa » denboran, Hegoaldeko hiri batzu XIX. mendean hor ospaturiko Euskal Jaien berpizten hasten dira : zenbait Antoine d'Abbadieren eskariz antolatu ziren, besteak hiri horiek beren kabuz egin (udalek edo / eta kultura elkarteek), baina mezenas handiaren ildotik. Irungo hiriak epea laburtu zuen, 1978an 1903ko Euskal Jaien oroitzapena ohoratuz. Gero 1981ean ospatu zuten Antoine d'Abbadiek 1881ean hor antolaturiko lehen Festena. Karia horretara Irungo udal kultura batzordeak, Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz, « *Euskal Jaiak – Fiestas Euskarras* » liburua argitaratu zuen ; horren autorea, Jose Antonio Loidi Bizkarrondo irundar idazlea, Euskaltzain urgazlea. Jai horiek une batez Bidasoaz ipar aldera iragan ziren, Abbadia jauregiko kaperan hitzaldi bat antolatuz jakintsuaren bizitzaz eta obraz, ene ahotik : ene herritar famatuaren aipatzea zinez ohore bezain atsegin izan zitzaidan.

Irungoaren segida hartu dute bereziki Markinak 1983an, Durangok 1986an, Gernikak 1988an. Noiz Iparraldeko herrien aldi ? Antoine d'Abbadiren Euskal Jaiak eta Lore Jokoak eman zituztenez ari naiz ; horietan daude adibidez Urruña, Sara, Donapaleu, Donibane Garazi, Donibane Lohizun, Azkaine, Maule-Lextarre... Euskaldun handi hori zertako itzalean ahantzirik uzten dugu hemen ? Ezagutzen dugun gorenetarik da, eta ez armen indarrez, baina espirituaren bertutez. Burrustan ote ditugu jakintsun, mezenas eta euskalariak ? Ala d'Abbadie handiegi ote da guretzat ?

1990ean aitaren Xiberoko ikastolek Antoine « Abadia Ürrüstoi » pastoralaz ohoratu zuten Maule-Lextarren (bi aldiz), Donibane Lohizunen, Arrasaten eta Oiartzunen. Gero 1997ko irailean, heriotzako mendeburuan, Nazioarteko Biltzar handi bat Hendaian eta Saran ospatu zuten elkarrekin Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak. Bai, izotza urtzen hasi zaigu...

Jaun orori ohore oro, bereziki andere handia den Jakintzen Akademia ospetsuari, eta honi azken hitza ere. 1895eko uztailaren 26an Antoine d'Abbadiek Abbadiako jauregia eta lurra ordenuz ematen dizkio. Ber denboran lekukoa luzatzen dio hitz hauez : « Akademiak, d'Abbadie jaun-andereek orain egiten duten bezala, urtero hameka ehun liberako dirutza eman beharko du saritan banatzeko lehiaketen eta nagusiki euskararen alde, inguruko herrialdeetan ».

Jakintzen Akademiak lagundu zituen Hendaian 1901eko uztailaren 13tik 16ra antolaturiko Euskal Jaiak, jakinarazi zuen Festa horietako gastu guziak ordainduko zituela, eta 600 liberakoak izan ziren. Literatura lehiaketa maila gorakoa izan omen zen, euskalki guzietako idazle on batzuek parte hartu bai-

tzuten, eta urrezko bi domina / medaila eman ziren. Ahozko saioan zortzi bertsolari lehian ari izan ziren, musika lan bat ere agertu zen, « Ezti-Argi », eta ez ditzagun ahantz pilota partidak eta beste lehiaketak : irrintzia, dantza (aurreku, fandango, zuberotar jauziak), kantua, eta abar...

Orain Jakintzen Akademiak, lehendakari ukan zuen jakintsuna ospatzen du sortzeko bigarren mendeurrenkari. Ber famaz eta ikertzaile gogoaz aterpetzen du oroitzapenezko lan bat, Hegoaldeko hiriek hasi zutena, Xiberoko ikastolek aitzina eraman eta 1997ko Biltzarrean berrogeita hiru hizlarik aberastu. Zuen bermea, zuen sustapena eta zuen parte hartzea balio handikoak zaizkigu aitzina joateko, Antoine d'Abbadie zuen akademiakideak eta gure mezenas handiak nahi zukeen bezala. Esker mila jaun-andereak : goazen aitzina guziz maite zituen izarren gomendioan, eta gu ere argi gaitzatela !

ABBADIAZ ARTIKULU ETA MINTZALDI ZENBAIT

Antoine D'Abbadie (1810-1897). Bizitza (laburpena)

Ürrüstoi, Zuberoa Pettarreko herri ttiki bat da, Ühaitza delako ibaiaren eskuin aldetik iparrerantz azken herri euskalduna. Hor zen abade laiko, notario eta laborari Antoineren aitaita. Michel semea (1772-1832) Frantziako Iraultza hasieran Andaluziara desterratu zen lan bila. Hortik Londresera pasa zen Frantziaren eta Espainiaren arteko gerlaren ondorioz, eta azkeneko Irlandan kokatu.

Dublinen aberastu zen kanal baten kudeantzatik, eta gero itsasontzien armadoregoan. Ezkontza aberatsa egin zuen. Emaztea, Elisabeth Thompson of Park (1779-1865), alaba bakarra zen, eta bere aitak gain-gainetik eskolatu zuen, seme baten gisan, orduko neska gazteak ez bezala. Sei haur ukanen dituzte, hirur ababa eta hiru seme, lehen lauak Irlandan, azken biak Frantziako Tolosan : Elisa, Antoine, Céline, Arnauld, Julia eta Charles. Euskaraz irakatsiko die aitak, eta hortako neskato bat erakarriko du Euskal Herritik. Bestalde ama jakintsuna dute haurren errietsa bipila, kolegioko adineraino. Irlanda uzten dute 1820an, Tolosan kokatzeko. Hamar urteak ditu Antoinetik.

Bigarren mailako ikasketak arras ederki egiten ditu Antoinetik. Bidaietarako tirria Chateaubriand idazle handiaren liburuetan edireten du. Batxilergotik landa, zuzenbidean ikasten hasten da Tolosako unibertsitatean. 1828an familia Parisen kokatzen da. Antoinetik zuzenbidean jarraitzen du, baina gainera hizkuntzak, letrak eta zientziak ikertzen ditu. Orduko irakasle onenak ditu sail desberdin horietan, eta bereziki astronomian Arago jakintsu handia : haren ikasle hoberena eta maiteena da irlandar euskaldun gaztea.

Agosti Xaho delako Joseph-Auguste Chaho atharraztarraren ezagutzak egiten ditu (1811-1858), balinba hura Pariseratzen delarik 1830ean, zuzenbidean ikasteko. 1836a zinez urte aberatsa dute. Karlisten alde agertzen dira Espainiako lehen gerla zibil horretan, euskal sentimenduz. Gero biek ontzen dute euskal gramatika idazlan gotor bat, « Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner »

zuzendua. Ber urtean Antoinetik Brasilen itzuli bat egiten du Aragoren kontu, magnetismoaz miaketa andana baten burutzeko. Itsasontzian Napoleon III.a izanzen denaren ezagutzak egiten ditu, eta iduriz biak adiskidetu dira.

Etiopia kasik hamabi urtez esploratuko du Antoinetik (1837-1848), bere anaia Arnauldekin (1815-1893). Nil ibaiaren iturburua kausitu nahi dute. Bestalde Afrikako erresuma kristau zaharraren ezagutzeko tirria badute, toki arriskutsua baita, edozein eritasun eta gaitzekin, gerla zibiletan murgildua, jende xuriari kasik hetsia. Feodalitatean bizi da. Indarririk ez du « Negus » delako enperadoreak. Beregain dago eskualde bakoitzeko buruzagia, noiznahi gerla egiten dio albokoari.

Anarkia horren aurka jeikiko da printze serio eta zuzen bakarra, Guoxo delakoa. Haren alde jarriko da Arnauld, eta gudalburu bilakatuko. Bere anaia gerlariaren babesaz ongi baliatuz, Antoinetik egundainoko azterketak burutuko ditu sail guzietan : geografian, geologian, geodesian, astronomian, fisikan, biologian, hizkuntzetan, etnologian...

Aragorria baserria eroserik Urruñan (orain Hendaiaiko eremuan dago), herri horretan antolatzen ditu « Euskal Jaiak », joko mota guzietan, pilota barne, eta haiei loturik « Lore Jokoak » : kantu, bertso, olerki, dantza, musika... Sariak bere boltsatik ematen ditu hoberenei, garaileak ez direnean ere. Bestalde Louis-Lucien Bonaparte printzearen euskal azterketak lauzkatzen ditu.

Aragorrian eraikitzen du « Abbadia » jauregia, astronomiako behatoki batekin. Frantziako « Académie des Sciences » delakoan izendatzen dute urgazle (1852), kide oso (1867), azkeneko lehendakari (1892). Ospetsu hilen da Parisen, 87 urteetako adin ederrean. Horren gorputza Hendaia Abbadiako kaperan dago lurperaturik, aldare pean. Laster ondora etorriko zaio Virginie de Saint-Bonnet emaztearena (1828-1901). Haurrik ez zuten. Hendaiaiko jauregia bere lurrekin, Académie des Sciences delakoari, Institut de France delako erakunde zabalagoaren baitan, utzi zioten, euskararen eta euskal kulturaren laguntzeko baldintza zehaztuz ordenu edo testamentuan, bereziki Euskal Jaiak eta horietako Lore Jokoak aitzina eremanaz.

Résumé biographique

Son grand-père paternel était abbé-laique, notaire et agriculteur en Basse-Soule, au village d'Arrast, dernière localité basque au nord sur la rive droite du gave Saison. Son père, Michel (1772-1832), émigra au début de la Révolution française, en 1791, pour des motifs économiques, vers l'Andalousie. De là il se réfugia à Londres en 1793 à cause de la guerre franco-espagnole, puis s'installa en Irlande.

Il s'enrichit à Dublin de l'exploitation d'un canal, puis comme armateur. De plus il fit un riche mariage. Sa femme, Elisabeth Thompson of Park (1779-1865), était la fille unique d'un père veuf et fortuné, qui la fit instruire comme un fils, ce qui n'était pas habituel pour les jeunes filles. Ils auront six enfants, trois filles et trois garçons, dont quatre nés en Irlande, et les deux derniers à Toulouse : Elisa, Antoine, Céline, Arnould, Julia et Charles. Le père leur apprendra le basque, et pour cela il fera venir du Pays Basque une bonne. De son côté la mère sera leur institutrice jusqu'à l'âge du collège. La famille quitte l'Irlande en 1820 pour s'installer à Toulouse. Antoine est âgé de dix ans.

Il fait brillamment ses études secondaires. Il trouve dans l'œuvre de Chateaubriant le goût des voyages. Après le baccalauréat, il aborde les études de droit à l'université de Toulouse. En 1828 la famille s'installe à Paris. Tout en continuant le droit, Antoine étudie les langues, la littérature, les sciences. Il a les plus éminents professeurs de l'époque, notamment en astronomie le grand savant Arago, dont il sera le meilleur élève et le préféré.

Antoine fait la connaissance du tardésien Augustin (Joseph-Auguste) Chaho (1811-1858), probablement quand celui-ci monte à Paris en 1830 pour étudier le droit. 1836 sera une riche année pour tous les deux. Ils se solidarisent avec les Carlistes dans la première guerre civile d'Espagne, par patriotisme basque. Ils publient ensemble d'importantes « Etudes grammaticales sur la langue euskarienne », en dédiant le livre « aux Basques des Sept Pays Basques ». La même année Antoine mène au Brésil, à la demande d'Arago, une série de recherches sur le magnétisme terrestre. Sur le bateau il fait la connaissance du futur Napoléon III, et ils se lient semble-t-il d'amitié.

Antoine explorera l'Ethiopie pendant près de douze ans (1837-1848) avec son frère Arnould (1815-1893). Ils veulent découvrir la source du Nil. De plus ils brûlent de connaître le vieux royaume chrétien d'Afrique, car c'est un pays à hauts risques, fourmillant de maladies et de guerres civiles, presque fermé aux blancs. On est en pleine féodalité. L'empereur ou « Négus » n'a plus de pouvoir. Chaque gouverneur de province règne en roitelet, à tout propos il guerroye contre son voisin. Face à cette anarchie s'élève le seul prince sé-

rieux et droit, qui se nomme Guoscho. Arnould se met à son service et devient chef de guerre. Sous sa protection, Antoine mène une foule de recherches dans tous les domaines : géographie, géologie, géodésie, astronomie, physique, bilogie, langues, ethnologie...

Ayant acheté à Urrugne le domaine d'Aragorria (qui est aujourd'hui cadastré sur le territoire hendayais), il organise dans ce village ses fameuses Fêtes Basques, ouvertes à tous les sports et jeux populaires, notamment ceux de pelote basque, ainsi qu'aux Jeux Floraux : concours de chant, d'improvisation, de poésie, de danse, de musique... De sa propre bourse, il récompense financièrement les meilleurs, même quand ils ne sont pas les vainqueurs. En même temps il aide puissamment le prince Louis-Lucien Bonaparte dans ses travaux de recherche sur les divers dialectes de la langue basque.

Il fait construire sur le site d'Aragorria le château d'Abbadia et son observatoire d'astronomie. Elu à l'Académie des Sciences comme membre correspondant (1852), puis titulaire (1867), il en deviendra le président (1892). Il meurt à Paris en pleine gloire, âgé de 87 ans. Son corps est enterré sous l'autel de la chapelle d'Abbadia, où le rejoindra bientôt celui de son épouse Virginie de Saint-Bonnet (1828-1901). Ils n'ont pas eu d'enfant. Ils ont laissé le château d'Abbadia et ses terres à l'Académie des Sciences, au sein de l'Institut de France, avec obligation testamentaire de soutenir la langue et la culture basques, notamment en continuant la tradition des Fêtes Basques et de leurs Jeux Floraux..

LORE JOKOEN INGURUMENAZ
(BAT aldizkaria, Baleazaleen Kalea 12-Ia,
2001 I Donostia, 1997ko udazkena)

I– *Hasiera*

Antoine d'Abbadieren Euskal Jaiak Urruñan hasi ziren 1851ean (eta ez berriki arte uste genuen bezala 1853an) pilotaz eta olerki lehiaketaz. Honen irabazlea J-B. Otxalde, « *Kantu berriak Urruñeko pilota partidaren sujeten gainean* » izeneko bertso idatzi eta gero kantatuez (I).

Zergatik Urruñan ? Antoinek 1849an herri horretan eresia zuen Arago-rria delako etxaldea, eta han eraiki beharra zuen gaur Hendaiako eremuan dagon « Abbadia » jauregia. Bitartean bi herriek auzi luze bat ukan zuten, hogeita hamar bat urtekoa, bakoitzak bere jabegoa aldarrikatzen zuela, eta azkenean parte handiena Hendaiari utzi zion Errepublikako presidentek izenpeturiko dekretu batek, 1896an.

Beste jauregi bat bazuen Antoinek Adausen (frantsesez Audaux), Biarno bazterrean, Navarrenx-Nabarrengosetik hurbil, oihaneko saihebidetz Ürrüstoitik dozena bat kilometrotan : 1833ean eresia zuen, iduriz aitarenganiko ondareari esker, aitzineko urtean zendu baitzitzaion. Adauseko jauregia berantago salduko zuen, 1859an, Hendaiakoaren eraikitzeko. Eroslea Marie Coulomb paristar andere protestantea, Charles d'Abbadie anaia gazteenaren emazte feminista, laster Baigorri « Etxauzeko anderea » dateana. Arnauld, arteko anaia, Ziburun kokatuko da, Elorrienbordan, amak erosiko duen ondasun batean, Etxauzea gazteenarentzat erosi zuen bezala.

Ikusten dugu d'Abbadietarrak zinez aberatsak zirela. Aberastasuna ez zuten Ürrüstoitik, Irlandatik baino, bi gurasoen aldetik. Familia puxantekoa zuten ama, Elisabeth Thompson of Park irlandarra. Aita berriz, Michel (Arnauld-Michel) d'Abbadie, Dublinen aberastua zen ezkondu aitzin, kanal baten kudeantzatik, eta gero armadoregotik. Lafitte baionesa lagunduko zuen Banque de France delakoan : ez zen beraz aberats txikia !

Aldiz Ürrüstoitiko aitona, Jean-Pierre d'Abbadie (1731-1799), nekazari on bat zen, gainera notario eta abade-laikoa, hots tokiko elizaren babeslea. Ez zen aberatsa, zeren etxaldeko lanetan ari zela badakigu hango iturri batzuetarik. Gainera Ürrüstoitiko Abbadia ez zagon Zuberoako etxe nobleen zerrendan. Azkeneko ez dirudi lehenik uste zen bezain zaharra denik etxe hori, Ürrüstoitiko etxeen artean ez baitakar Erdi Aroko « *Censier de Soule* » delakoak, Baigorriko Izpegi argialetxeak berriki agertu duen ediziotik froga dezakegu-

nez. Eraikina iduriz XVII. mendekoa da estiloaren arabera : etxe polita, ez halere jauregia. Eskortako sarrera markatzen duen arkuak 1676 zenbakia dakar. Etxea urte horretan egin zutena, ala berritu ?

Dena dela espirituz bederen aitoren semeak ziren Antoine eta haren anaiak. Egia da ama familia noblekoa zutela. Zinez dirudunak ziren gainera. Adibidez, ikerketarako txangoak bere sakelatik ordaintzen zituen jakintsun horrek, eta horrela ibilia zen dozena bat urtez Etiopian gaindi Arnauld anaia-ekin (1837-1848). Handik itzuli berria zen beraz Urruñan plantatu zelarik.

Bitartean bi gertakari handi agituak ziren Frantziako erresuman :

-1847an amaitu zen Aljeriaren konkista, urte horretan amor eman baitzuen Abd-el-Kader oldartsuak, Frantziako armadaren presoner jarritz. Aljeriak bere garrantzia ukanen du Abbadiak emigrazioaz dukeen ikuspegian.

-1848an iraultza batek haizatu zuen Louis-Philippe, Antoine bezalako legitimistek eta Xaho bezalako errepublikatiarrek hastio zuten erregea, 1830ean beste iraultza batez burges liberalak tronuan emana baitzuten Xarles X bourbontar zuzenaren ordezt, lehengusua zuelarik hau. Jarraian II. Errepublika sortu zen Parisen, eta Baionaz ere jabetu Xaho sonatuari esker.

I – Patri Urkizu, *Anton Abbadia – 1810-1897 – Biografia saioa*, Bilbao, 2002 (315-317. or.). « Liburu honek (Bilboko Udalaren) Miguel de Unamuno III. Saiakera Lehiaketa jaso du ».

II– *Biburgune handia : 1848-1852, iraultza eta zurien erantzuna*

Gorabehera handiak ekarriko ditu 1848ko iraultzak, eta horietan kokatu behar ditugu d'Abbadieren Lore Jokoak.

I – 1848ko apirilaren 23an, lehenbiziko aldia bozkatzeko Frantziako herritar gizonezko guzietan : bederatzi milioi dira. 900 diputatu hautatzen dituzte, haietan 500 errepublikatiar moderatu, Lamartine poetaren inguruan. Konstituzio berri bat bozkatuko dute.

2 – 1848ko ekainean, ezinbiziak bultzaturik, armak eskuan oldartzen da Parisko langileria. Armadak zapaltzen du eta gobernuak bortizki zigortzen. Haustura handia dakar gertakizun horrek. Montalambert bezalako katoliko sozial batzuk eskuin muturrera saihesten ditu gorrien beldurrak. Langileriaren aitzia, lehenbiziko sozialisten aurka, orokorki ezkerrearen kontra, bat egiten dira burgeseria eta gehiengo zabala duen baserritar mundua. Egoera berri horrek zinez baldintzatuko du Lore Jokoen ingurumen kasik hogei urtez (1851-1869).

3 – 1848ko abenduaren hamarrean, Errepublikako presidente hautaturik da Louis-Napoléon Bonaparte printzea, gehiengo harrigarri batez. Haren alde bozkatu dute zuri guziek, eta bereziki nekazariak.

4 – Diputatuen bozketan, 1849ko maiatzaren hamahiruan, leherturik daude errepublikatari moderatuak. Euskal Herrian ere, arrakasta handia ukan zuten 1848ko hauteskundeetan. Oraikoan departamenduko hamar diputatuetarik hautetsi bakarra dute Michel Renaud, Garaziko errepublikatiarra. Diputatuen biltzarrean nagusi dago « Ordenaren alderdia », « le parti de l'Ordre », 500 erregetiar eta katolikorekin : Errepublikaren eta demokraziaren etsaia da naski !

5 – Biltzar horrekin ez da konpontzen halere printze-presidentea : boterea beretzat nahi du osoki. Armada eta langileak lausengatzen ditu demagogia handiz. Estatu kolpe bat egiten du 1951ko abenduaren bian : I. Inperioaren urteurren bat da. Burges errepublikatiarrek barrkada batzuk eraikitzen dituzte Parisen. Beharrik gabe jende oste bat tirokatzen du armadak : 300 hil ! Aitzaki ona da : zapalkuntza bat izigarria hasten da sozialisten, gorrien, eta orokorki errepublikatari buru guzien aurka. 1852ko hasieran, Xaho hegoaldera doa desterruz urte pare batentzat, Renaud hamar urterentzat !

Ondoko abenduaren hogeian, bozemaleen gehiengo izigarriak, kasik aho batez, botere osoa ematen dio printze-presidenteari, Konstituzioaren aldatzeko nahi duen bezala.

6 – 1852ko urtarrilaren hamalauko Konstituzioak (ez zuen denborarik galdu !) ahal guziak ematen dizkio hamar urterentzat Frantziako diktadore berriari. Abian kazetak lotzen ditu hestuki. Kandidatu ofizialak baizik ez dira haizu hauteskundeetan, eta zin egin behar dute.

7 – Bozka berri batzuez, enperadore izendaturik da Louis-Napoleon Bonaparte printze-presidentea : Napoleon III kargu berrian sartzen da 1852ko abenduaren bian !

Bukatu da politikako askatasuna. Jokoz kanpo daude alde batetik errepublika, bestetik ohiko erregetza. Ordainez enperadoreak hitzematzen du bakearekin bizipideen suspertzea. Honen alde dago Kalifornian aurkitu berri duten urrea. Beraz botere berriak sustatuko ditu lankia handiak : labakitze, bide berri, trenbide, kanalak...Landa departamendua orduan dute pinudiz beteko...

Ordenaren alderdiari burua pikatu dio Napoleonek Parisen, baina probintzietan bere alde du zurien mundu hori, gorrien beldurrez.

Eta gure Antoine d'Abbadie ? Printze horren laguna da itxura guziena araberak. Ezagutzak egin zituzten 1836an, Brasilerako bidean, Andromède itsasontzian, eta geroztik harreman onak atxiki dituzte. Hendaiaiko Abbadia jauregiari azken harria eman beharra zion enperadoreak, baina 1870ean alemanen aurkako gudua galdurik, haiek presoner eginik, desterrurako bidea hartu behar izan zuten, Ingalaterrarantz. Beraz harri bat eskas du Abbadiak balkoi batean, adiskidantza leku ederra delarik hutsune hori. Ez du frogatzen, ordea, bi lagunek ber politika zutenik. Alderantziz, Abbadiak kontseilu orokorrerako bozketan Maulen bere buruaren aurkeztea baztertu du 1869an, kandidatura ofiziala desegokia zaiolako Euskal Herrian : « Je voudrais tenir mon mandat du vote libre de mes concitoyens » idazten dio Faïssa de Gaztelu, Ürrüstoiko auzapezari, 1869ko urtarrilaren hogeita hamarrean.

Urrunago doa Duvoisin kapitainari zuzentzen dion gutun batean : « Quelle que soit la bonté dont Napoleon III a toujours usé envers moi, je ne croirai la France heureuse qu'avec un Bourbon parce que ce dernier (illisible) sur un principe consacré par des siècles et qu'aucun (illisible) actuel ne saurait renverser. Je crois cependant que le vaisseau de l'Etat vogue en dérive pour aboutir finalement au gouffre d'une République gouvernée par un despote... »

Egia da Frantziako lehen bi errepublikak tirano baten azpian bukatu zirela. Legitimista egon zen beraz Abbadia, eta bere gisan demokrata, Euskal Herriko mailan bederen. Bestalde autonomia zabalena gura zuten udalentsat. Dena dela, ez zen oroz gainera politikazalea ; lehenik jakintsuna eta kultura gizona zen, espiritu gora eta zabala zuen, eta horrela tolerantzia handia erakutsi zuen gutiz gehienetan, adibidez Xaho bezalako errepublikatari, ezkerreko, gorri, antikristau batekin ere lan eginez.

Baina ber denboran, katoliko suharra zen eta jauna. Lore Jokoetan bereziki, Euskal Herriko jabe nagusiak eta apaizak zituen partzuerak. Ez da dudarik horien ikuspegi bera zuela euskal gizarteaz. Alde horretarik bederen, bat zauden enperadoreak zeraman kulturako politikarekin, eskualdeetako tradizioak eta ohiturak babestu nahi baitzituen, bestalde sustatzen zuten ekonomia-aren garapen modernoaren antidota eta harresi sozialki mugatzaile bezala. Tradizioen aldeko politika ofizial hori gustukoa duke Antoine d'Abbadiek, horren haizea bultzatzaile du ; baina nortasun handia duen bezala, ez da inoren mende jartzeko gizona. Iparraldeko erderaz erraten denez « un plus » badu, zerbait besterik, eta hau da baldintza gabeko euskaltzaletasun bat, abertzale-
tasunerantz doana gutienez ere.

III— *Euskal kulturaren egoera negargarria*

Euskara eskolatik bota behar zen, edo handik urrun utzi : hara zer zen agintarien politika, bai Iparraldean, bai Hegoaldean, hizkuntza bakarrera heltzeko, hura baitzen erregearena, eta gero zoritxarrez Iparraldean segurik errepublikarena !

Iparraldean egonen naiz, hobeki ezagutzen dudan bezala, hemen hasi baitziren ere Lore Jokoak. Perlaz oso aberatsak ditugu iragan mende horretan prefetek eta inspektore / ikuskariak euskararen aurka erran zituztenak. Biga soilik aipaturen ditut hemen, aski adierazgarriak baitira jaun horien xede garbitzaileez :

-1833an inspektore batek Maulen : « J'ai exigé des instituteurs l'abolition entière de l'usage de la langue basque en classe. » Ongi ulertzen dugu : hitzik ez da behar euskaraz eskolan !

-1846an prefetak : « Nos écoles en Pays Basque ont particulièrement pour objet de substituer la langue française au basque. » Hau ere argi eta garbi zaigu : ez zaio, ez, euskarari frantsesa gehitu behar, amoreagatik eta frantsesa ERE jakin dezagun ! Euskara hil egin behar da, baskoek frantsesa baizik ez dezaten jakin. Hots frantses ideologia bete-betean : hizkuntza bakarrarena, hura frantsesa delarik, bistan dena...

Prediku beharrik ez dute ahapaldi horiek, berenaz aski erraten dute hitz gutiz. Baina hauxe azpimarratu nahi nuke : errepublika itzuli baino lehen zen. Beraz ez da errepublika gure min guzien ama, euskaltzale mordo batek oraino uste duenarren. Baina bide gaizto horretarik jarraitu du. Dena dela, ez dugu harritu behar errientei aihar bazaie Antoine d'Abbadie : ez da soilik eskuineko ideologiaz, euskararen arazoak ere garrantzi handia du hor.

Harrigarriago dena, gobernuko eskoletan bezala, elizakoetan ere debeku zen euskaraz aritzea, Baionako seminario handian eta Larresoroko seminario txikian bederen. Abbadiak nahigabe bat izigarria ukan zuen Baionako apaizgaitegi nagusiko buruenganik. Hor bere diruz euskararen irakasteko aulki baten eraikitzea proposatu zuelarik, eskubide hori ukatu zioten etxe santu horretako buruzagiek.

Kontsolaturen da haurrak lagunduz : lehenbiziko jaunartzean euskaraz ongi dakitenei sariak emanen ditu, horretarako apaizik gabeko mahaiak antolatuz. Hor ikusten da eskubiko ideologia batez besterik bazuela bultzatzaile Antoine d'Abbadiek : zinezko euskaltzaletasun bat, alderdikerien gaintekoa, hala beharrean adiskide zurien aurka zoana. Maitasun horrek berak duke gehienik bultzatu Lore Jokoen antolatzeraz, euskararen beharrune lazgarriak ikusiz !

IV– *Emigrazioa*

Olerki lehiaketa sonatuena 1853an antolatu zuen Abbadiak Urruñan, Harriet apaizaren lagungoarekin. Hau Baionako apaizgaitegi nagusiko zuzendaria zen. Epaimahaikoen hautatzeaz kargatu zuen Aragoorriko jabeak. Apaizak izan ziren nagusiki epaileak, gehi jaun hauek : Lehremboure Baionako saratar abokatua, Ducos Donibane-Lohizungoa eta Larralde-Diustéguy, Urruñako auzapeza. Olerkiak alde zurretik bidali behar ziren idatziz, izen-abizenik gabe. Gaia : emigrazioa.

Ez zuen airera hautatu mahaiak. Arazo larria zen Iparraldean. Hogeitabat urte lehenago, 1830 irian, Rio de la Plataruntz abiatu da hemengo jendea burrustan. Uruguako gobernuak europarrak bereganatu nahi ditu, lur berrietan nekazaritzaren garatzeko. Laguntzaileak baditu Euskal Herrian, bereziki Baigorriko auzapez ordea den Labarraque medikua. Hau zinez bozten da 1835ean, berrogei baigorriar gazte batean itsasontziratatu baitira ber egunean ! Montevideo eta Argentinarako joera hain da indartsua non husteratu doaztin Iparraldeko herriak : 1832tik 1841era, Francisque Michelen arabera, bost mila pasaporte hartu dituzte Paueko prefeturaren, eta beste bi mila pertsona Hegoaldera pasa dira itsasontziratatzeko.

Beraz 1840tik 1860ra, bai gabe Parisko gobernuari deika ari zaio departamendu honetako kontseilu orokorra, emigrazioaren murrizteko izariak eta neurriak har nitzan. 1844an arazoak jabetzen da diputatu biltzarra, eta Chegaray diputatuak dio 1832tik 1843ko abuztu lehenara, 8174 pertsona, gutiz gehienak euskaldunak, Montevideorantz abiatu direla : hots Iparraldeko jendetzaren hogeigarrena (% 5).

Ondoko urteetan uholdea pixka bat eztatzen da, baina 1850-1854 artean jarria sekula baino azkarrago dugu. Hona Francisque Michelek ematen dituen zenbakiak : 1848, 672 emigratzaile ; 1849, 1012 ; 1850, 1807 ; 1851, ? ; 1852, ? ; 1853, 1206 ; 1854, 1838.

Antoine d'Abbadieren olerki sariketa horretara etorri ziren 37 idazlan, haietan Etxahun-Barkoxeren bat, « *Montebidorat juailiak* », baina ez zen garaile atera, eta beste koplak sorta zorrotz bat agertu zuen ondoren, « *Bi bertseten eguitzez* », epaileen aurka, apaizak bortizki jorratuz. Urruñako olerki lehiaketa horrez eta emigrazioaz ikus Jean Haritschelharren idazlana : « *L'œuvre poétique de Pierre Töpe-Etchaboun* », in Euskera, XIV-XV, 1969-1970, Euskaltzaindia, Bilbo.

Abbadia ez zen printzipioz emigrazioaren etsaia. Baina batetik Frantziak berriki konkistatua zuen Aljeriaruntz bideratu nahi zuen, dela Rio de la Plata baino hurbilago zelako, dela Frantziako gobernuaren babespean zegoelako, dela gure jakintsunak Afrikari zion atxikimendu bereziagatik. Bestetik gehie-

gizkoa bide zitzaion gertatzen ari zen jarioa : arduradunak beldurtzen hasiak ziren Euskal Herria beso eskasez ahulduko zela.

Kopuruzko beherapenez gainera, kalitatezkoa ere gertatu zen euskaldunen artean. Ordurarte, ez zen bakarrik nekazaria baserri munduko jendea : ofizio mota guztiak bazituen bere baitan. Ikus adibidez Etxahun Barkoxekoaren « *Ofiziale(e)na* » delako abestia. Horien artean, bere intelektualak bazituen Iparralde barneak ere : notario, sarjant, abokatu, mediku, botikari, eta abar... Jendetza % hogeita bostez jaisten zelarik, bereziki mendi aldean, intelektual horien zenbakia % lauogeiz behera zean, Baionako Frédéric-Baptiste « Battitta » Larzabalek egin duen ikerketa baten arabera. Horrela apaizak gelditu ziren Iparralde barneko intelektual bakarrak, maila apalekoa baitzen errienten jakintza, eta horrek esplikatzen du hein handi batean luzaz pairatu dugun klerikalismoa, jansenista kutsukoa gainera, Baionan sortu baitzen ere jansenismoa, eta gero beti eraginkor egon Vatikanoko II Kontziliaraino : adibidez haren etsaiak ziren jesuitak egundaino ez dira hemen sartu ahal izan.

Emigrazioaz beste ohar bat. Lehen Karlistadaren galtzeari botatzen zaio erru nagusia, Espainiako aduana Ebrotik bortu hegira ekarri baitzuen, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman ohikoak hautsiz sal-erospenetan. Ordutik beherakada bat handia ezagutu omen zuen Iparraldeko ekonomiak.

V– *Inperiotik Errepublikara (1870)*

Euskal Jaiak eta Lore Jokoak Urruñan ospatuko dira hamahirur urtez jarraian, 1851tik 1863ra.

Baina 1864an Sarara pasako dira, eta han hamabi aldiz jarraian jokatu (1864-1876), gerlako urtea hutsik utziz (1870). Gero herriz-herri korrituko baitira, beste lau aldiz Saran emanen dira : Abbadiaren 47etarik hamasei beraz Saran.

Beste bihurtune bat, garrantzi handikoa, gertatuko da 1870ean, alemanen aurkako gudua galdurik, porrot eginen baitu II. Inperioak : ordainez III. Errepublikak etorriko zaigu Paristik, arazoak sortuz Abbadiari. Horradino nahiko lasai joan zaizkio Lore Jokoak, apaizen eta jaun zurien laguntzarekin, Inperio denborako giro kontserbatzailean, baserri munduko tradizioaren ildotik.

Olerki lehiaketetan parte hartu dute halere errepublikatiar sonatu batzuek, bereziki Elissamburu bi anaiek, saria maiz eramanez. Ber giroan pasako dira halaber Louis-Lucien Bonaparte printzearen bost txangoak (1856-189) : mugaren bi aldeetako euskal herrien barna, Antoine eta Charles d'Abbadiek laguntzaileak aurkituko dizkiote idazleen artean.

Baina 1869an jadanik, arazoak agertzen hasten zaizkie zuriei. Inperio liberalean sartzen gara, eta horri esker deputatugora aurkezten da Charles d'Abbadie protestantea, errepublikatiarrek bultzaturik, nahiz etiketa hori gabe, legez debekatua baitzen ere. Garaile aterako zaio Baionako auzapeza, Labat, kandidatu ofiziala, hots napoleontiarra.

Gero Antoinek Lore Jokoetan nahigabeak ukanen ditu errepublikatiarrekin, bereziki Guilbeau Donibane Lohizungo medikuareakin (hiritar jauna, nonbaitik ere). 1872an olerki lehiaketarik ez baitzen izan, bi aldiz galde eta protesta egin zuen « *Le Courrier de Bayonne* » kazetan ; bigarren aldi bere olerki bat agertu zuen hor, « *Enarak* » izenburuarekin, eta beste olerkariak deitu zituen halaber egitera. Laster Baigorriko Beiti (Piarres) Ibarrartek agerarazi zuen « *Gerlako presunier bat* ». 1974an berriz Guilbeauk epaileak gogorki jorratu zituen, « *Jaungoikua eta Errija* » olerki karlistari lehen saria eman ziotelako : medikuak deitoratzen du armetara deitzen dituela haurrideak haurrideen aurka. Ondoko urtean Vinson basogintzako funtzionario errepublikatiar euskaltzaleak gorensten du Lore Jokoen arrakasta ongi merezia, baina kritikatzten epaimahaia, ezezaguna eta misterioitsua delakoan.

Errepublikatiarren kritikez kondu atxikiko dute Abbadiak izendaturiko epaileek. Adibidez 1876an saririk gabe utziko dute olerkirik hoberena, Gratien Adema-Zalduby apaizaren « *Biba Errepublika* », sobera trufatzen delako errepublikaz. Debekurako lehen urratsa eginen duena Duvoisin guarda kapitaina da, erregetiar legitimista delarik Abbadia bezala. Haatik hau bere azken urteetan bere hartan tematuko da, Madalen Larralderen gai polemikoa inposatuz hirur urtez jarraian : 1894, 1895, 1896. Urte bertsuetan errepublikatiarrek, Guilbeau buru, beren Euskal Jaiak antolatzen dituzte Lapurdin : Uztaritzen (1893), Hazparden (1894), Ezpeletan (1896) eta Saran (1897).

Beste nahigaberik jasanen du Antoinek politikako giro berriaren ondorioz. Lau urtez Hendaia auzapez da (1871-1875). Lan asko egiten du hor, baina gorriekin arazoak baditu, eskola katolikoa laguntzen duelako suharki, eta kargua utziko du. Berriz 1876an diputatuen bozak baitira, Arnauld d'Abbadie d'Arrast itsasaldean aurkezten da legitimista bezala. Baina bi anaiak hasarre daude, 1866az geroztik ez dute elkar ikusten, eta ez elkar ikusiko ere Arnauld hil arte (1893) : hau bigarren itzulian hauteskundeetarik erretiratzen da, Labaten alde bozkatzera deituz, nahiz gauza batzuetan legitimista eta bonapartista ez dauden bat.

Euskal Herri barnean, Charles d'Abbadie d'Arrastek Renaud garaztar errepublikanoa sustengatzen du. Mauleko erretora den Bordachar apaizak Antoineri gutunez dei egiten dio anaiaren propaganda oztopa dezan Urrüstoiiko herrian, Daguerre auzapezari hitz bat erranez : baietz ihardesten dio gure jakintsunak. Auzapez hori askazia du gainera. Hirur aldiz diputatu izana, Renaud galtzaile aterako da 1876ko bozka horietan.

VI— Hegoaldean : pre-nazionalismoa (1879tik)

Euskaldun Karlistek porrot egin dute bigarren aldiko. Haien alde zegoen Antoine, eta ez soilik eskuineko ideologiaz, ene ustez gainera ez lehenik ere. Hona haren idazki zenbait :

- Tirso de Olazabali, 1876-06-03 : « La fin de la guerre basque me navre. Si j'en crois mes renseignements privés, Don Carlos n'a même pas essayé de sauvegarder par un « convenio » ces vieux us basques qui ont fait sa force et qu'on voudra anéantir aujourd'hui. »

- Berari 1876-05-31 : « Les attaques indignes dirigées contre les fueros basques me préoccupent beaucoup. »

- Javier Verduri (datarik ez dut) : « Les nouvelles sur l'état de l'Espagne m'intéressent beaucoup. Je n'ai pas de données sûres quant à l'esprit des Castilles et du midi mais comme Basque et en pays basque je suis Carliste pour le Nord... »

Argi dago Abbadiarentzat euskal Foruak oroz gainetik daudela. Haien galerak aztoratzen du. Jota gelditzen da halaber Hegoaldea. Horako bihotzen sustatzeko, Abbadiak bere Lore Jokoak Bidasoaz haraindian egingo ditu.

Eta hara non, Arturo Campion eta beste nafar euskaltzale batzuek bultzaturik, « Asociacion Euskara de Nabarra » batasunak Abbadiari proposatzen dion elkarrekin antolatzea Nafarroa Garaian. Horrela izanen da 1879ko uztailan Elizondon. Muga hori gainditu da noizbait !

Olerki sariketan garaile jalgitzen da Felipe Arrese-Beitia bizkaitarra, « *Ama euskeriari azken agurrak* » abestiagaz, nahiz Iparragirrek ere lehiaketan parte hartu duen. Baina lehen sariaren berririk ez da emanen publikoan, politika handiko arrazoiengatik. Hona zer idazten duen Duvoisin kapitainak : « Como el pais vasco español está bajo estado de sitio, no hemos juzgado oportuno publicar que el Sr. Arrese era el primer laureado del Concurso (por temor de que se prohibiera en lo sucesivo este concurso), pero se le haria llegar el premio. » (RIEV, 1930, p. 358).

Beherantz baitzoatzen Iparraldean parte hartzen zuten olerkarien kopurua eta maila, Zuberoa bereziki bazter egoten zela, Hegoaldeak olerki lehiaketa zinez suspertu zuen. Hor ere mintzo zaigu Duvoisin, Abbadiari bidaltzen dion gutun batez : « Les pièces françaises (sic) sont entièrement effacées par les guipuscoanes et les biscayennes... ».

Ondoko urteetan, txandaka mugaren bi aldeetan emanen dira Lore Jokoa. Gainera d'Abbadierenen alboan, beste batzuk antolatuko dituzte hegoaldeko erakunde batzuek, bereziki udaletxeek : lehenak 1979an Donostiakoak. Olerkien mailaz gain, tematika ere aldatuz joanen da Hegoaldekoei esker, izen

berriak agertuko diren arau : Artola, Iraola, Lopez-Alen... Horiekin agertzen da Euskal Herri osoaren kezka herri-nazio bezala, eta herri hiritarrago, urbanoago bezala ber denboran. Hots giro pre-abertzale bat esnatzen da hor.

Urte haietan, eta bereziki 1977an, Hegoaldean agertzen dira horrelako pentsakera duten euskaltzale talde batzuk, adibidez Bizkaian « Euskalerrriako » haiena : Sagarminaga, Artiñano, Angulo, Hozmaza... Baina interesgarriena dugu agian « Asociacion Euskara de Nabarra » batasunaren inguruan bilduko den intelektualen multzoa : Campion, Iturralde, Aranzadi, Oloriz, Landa, Lagarde, Ansoleaga, Irazoqui, Iñarra, Échaide, Gaztelu, Azcona, eta abar... Abertzaletasun modernoaren aitzindariak ditugu. Arturo Campion dute burua eta, duda barik, Sabino Arana Goirik baino kultura zabalago eta goragokoa du askoz ere.

Nafar talde horrek du « Zazpiak-Bat » formula matematikoan antolatu eta finkatu Antoine d'Abbadiek eta Agosti Xahok 1836ko beren gramatika lanean aipatu zuten zazpi euskal herrien ideia, liburua eskaini zutelarik « Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner » (zubereraz). Zazpi herriok aipatu zituen Axular handiak bere « Gero » sonatuaren sareran, baina zenbakirik zehaztu gabe¹. Iparraldean ere oihartzunik ukanen du Campiontarren formulak : beren abestietan hartuko dute Lore Jokoetako bi txapeldun ipartarrek, Piarres Ibarrartek eta Gratien Adema-Zaldubyk ; eta 1892ko Euskal Jai handiak Donibane Lohizunen Abbadiak bukaturen ditu bere deiadarrak : « Zazpiak-Bat ! ».

Sabinok ere « Euskeldun Batzokija » elkarteko araudietan izendaturen ditu zazpi euskal lurralde historikoak, nahiz ez duen zenbakirik aipatuko. Beraz tamalgarri zait noiztenka « Seirak bat » oihu zentzugabearen entzutea, gure aitzinekoek egina zapuztuz, besterik ezinez agian ! Tamalgarri halaber Campionen abertzaletasun kulto eta zuhurra, benetan erdikoa gisa oroz, itzalean utzi baitzuen Sabinoren bazterreko nazionalismoak. Ez zuen oilar hobereak hor kantatu, baina iragana ezin dezake aldatu Jaungoikoak ere. Gainera industria modernoa sortu eta garatzen hasi zen Bizkaian, ez ordea Nafarroan. Orainaz arta har dezagun beraz, baina deus ahortzi gabe : asko dugu ikasteko Lore Joko horietarik. 1979 ondoko garaiaz, ikus Beltzaren « *El nacionalismo vasco, 1876-1936* » liburua, Editorial Txertoa, Donostia, 1977 (bereziki 10. eta 12. Atalak).

¹ Haatik Jean-Philippe de Bela mauletak zaldunak 1750 irian hau idatzi zuen : « On divise les Basques en sept provinces ou país particuliers »

VII— *Azken urteak — Azken predikua*

1893 urtea, Frantziako Iraultzak ezagutu zuen gailur odoltsuenaren men-deurrena da. Leon XIII Aita Santuak Frantziako katolikoak deitzen ditu Errepublikaren onartzera. Hortako sortzez Baionakoa den Lavigerie kardinalaz baliatzen da bitarteko bezala, eta honek deia zabaltzen du Aljeran, itsasarmadako galoidunen aurrean, haiekiko otordu handi baten kariara. Zein izan zen d'Abbadiren erantzuna ? Argitzeke dago. Baina Lavigerie baiones handia ezagutzen zuen gure afrikar misiozaleak : adibidez Lavigerie 1888an Kanbo-ko Lore Jokoetan zegoen. Bestalde Antoine kazeta errepublikatiar bateko batzorde babeslean sartu zela dirudi. Argitu beharra dugu.

Haatik alderantziz Madalena Larralderen gai polemikoa hirur aldiz jarraian inposatu zuen, aipatu dugun bezala, bere azken Lore Jokoetan (1894, 1895, 1896). Sarako emakume hori, Espainiarekiko gudu denboran, I. Errepublikako justiziak hilarazi zuen, muga isilka pasa zuelako behin baino gehiagotan : gerla denborako legearen arabera, holako egintza herio zigorrez ordaindu behar zen, salatarien beldurrez. Ipuinak emakume horrez hamabost urteko neska gazteño bat egin zuen, Etxalar edo Berara jaunartzera joateagatik erahila. Aldiz, emakumea bi armaden arteko joan-etorriengatik epaitu zuten. Dena dela, Madalena martiri eta mito bihurtu nahi zuen Abbadiak, eta horrez errepublikanoak hasarre gorrian ezarri zituen. Egia da beren Lore Joko alternati- boak 1993tik hasiak zituztela. Abbadiak mendeku hartu gura zuena ? Ongi zahartzeak lan asko ematen digu !

Bukatzeko, Lore Jokoen emaitzak aipaturen ditut labur-laburra

Ez zaizkit gutiestekoak, erlatibitatearen legerik ezagutzen ez duen progresismo absolutista baten izenean adibidez. Euskal Jai horiek beren garaiko in- gurumenean ikusi behar ditugu, orduko historiak, politikak, ekonomiak, gi- zarteak eta kulturak baldintzatu baitituzte.

Lehendabizi, ez dira Kataluniako Lore Jokoen itzalak. Carmelo Echega- raik bere garaian erakutsi zuen. Denbora zaharretakoak beren tokian utzirik, XIX. mendekoak Abbadiarenen ondotik hasi ziren Katalunian, 1859an hain zuzen. Gainera Euskal Herrikoak zabalagoak ziren : ez ziren soilik Lore Joko, baserritar kultura guzia besarkatzen zuten, kirola barne, pilota lehenik bistan dena, baina bestelako jokolariak ere lehian sartzen ziren : segalari, aizkolari eta beste... Gainera Zuberoan « kabale primakak » deitzen ditugun ganadu le- hialetak, azienda eta abereen selekzioa bideratu dutenak. Bestalde Abbadia ja- kintsunak nolabaiteko mundualizazioa nahi zuen. Baina ber denboran horrez

mehatxatua ikusten zuen euskaldun baserritarren mundua, gisa guzietz la-
gundu nahi zuen Antoni euskaltzaleak. Abertzaletasunari ere bideak ireki ziz-
kion, ikusi dugun bezala.

Olerkiaren maila ez zutela goratu Lore Jokoeke...Haatik humus bat pres-
tatu zuten XX. mendeko lilientzat. Euskararen maila bederen goratu zuten,
eta hor landu den hizkuntza ederra onuragarri gertatu da prosan ere. Iparral-
dean segurik, mundu bat badago XIX. mende horretako lehen partean erabi-
li den prosa frantsesaren eta bigarreanean hazi den euskara bikainaren arte-
an. Uste dut zerbait zor diola olerkiari Lore Jokoen bitartez, Louis-Lucien
Bonaparte printzearen inguruko lanak ahantzi gabe, itzulpenak bereziki.

Erantzunik hoberena da Hegoaldeko udalak hasi direla Lore Jokoen eta oro-
korki Euskal Jaiei berpizten, haien mendeurrenak ospatuz : Elizondon (1979),
Markinan (1983), Durangon (1986), Gernikan (1988), Iurretan (1991), Villa-
ro-Areatzan (1997)... Tartean sartu zaigu Iparraldeko auzapez bat, Donibane
Lohizungoa 1992an, Euskal Herriko Kantu Txapelketa baten kariara...

Eta hor daude 1997an Hendaian ospaturiko Nazioarteko Biltzar handi
horretan egin diren mintzaldi ugari eta oparoak, Euskaltzaindiak eta Eusko
Ikaskuntzak liburu batean agertu dituztenak.

Bibliografia berezia :

- XIX. mendeko historia : Frantziakoa, Espainiakoa, Euskal Herrikoa.
- HARITSCHELHAR, Jean: *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchaboun*, Euskera, Bilbo, 1970.
- LOPEZ ADAN, Emilio: « Beltza » : *El nacionalismo vasco, 1876-1936*, Txertoa, Donos-
tia, 1977.
- GOYHENECHÉ, Manex : *Pays Basque nord, un peuple colonisé*, Elkar, 1979.
- GOYHENECHÉ, Manex : *Histoire générale du Pays Basque* : 1804-1914, Tome V, Elkar,
2005.
- BILBAO, Yon : *Gran Enciclopedia ilustrada del País Vasco – Lit. I.*
- Antoine d'Abbadie, 1897-1997 - Nazioarteko Biltzarra / Congrès International - Eus-
ko Ikaskuntza, Ezohiko Kongresua – Euskaltzaindia, XIV. Biltzarra – Hendaia, Sara.*
1997.

ABBADIA ETA EUSKARA

Antoine d'Abbadie Ürrüstoikoak, iturri guzien arabera, Michel (ofizialki Arnauld-Michel) bere aitarengandik zituen euskara eta euskaltzaletasuna. Haren bi anaiek halaber, euskararen alde agertu baitziren haiek ere. Ürrüstoitarra zuten aita, zuberotarra beraz, Pettarrekoa. « Abbadia » zuen sortetxea. Michelen idazki apurretan ageri da Zuberoako euskalkiaren kutsua baino gehiago, haren oinarri nabarmena. Antoineren idazkietan berdin-berdina. Gainera poliglota zen hau : hamalau hizkuntza ikasi zituen.

Ama irlandarra zuen, baina euskararen alde sartu zen buru eta belarri. Bide horretarik ariko dira hirur anaien emazteak, senarraren laguntzaile porrokatuak agertuko dira beti. Michel Abbadiak, erbeste garaian, neskame bat Euskal Herritik erakarri zuen, hurrekin beti euskaraz ari zedin. Tolosan zeudelarik, bi euskal obretan eskua sartu zuen. Fleury Lécluse Tolosan irakasle izan zenaren eskuizkribuzko hiztegi lan bat aholkuz eta diruz lagundu zuen, haren erreklama ere idatziz frantsesez eta gaztelaniaz. Liburuaren izenburua : *Examen critique du Manuel de la langue basque*. Erreklamarena : *Prospectus du Manuel de la Langue Basque*, Tolosan.

Puntu horrez hona, Xahorekiko gramatika lanaren Prolegomenoetan, Antoine semearen lekukotasuna : « En 1827, feu A.M. d'Abbadie, mon père, publia en espagnol et en français le prospectus d'un dictionnaire basque, espagnol et français. Toulouse, in-8°, 28 pages. Ce nouveau travail de M. Lécluse devait reproduire en 2 vol. in 8° de 1000 pages, tout le Dictionnaire de Larramendi. L'auteur avait ajouté à son travail, entièrement achevé à cette date, un millier de termes propres au biscayen ou extraits d'Axular : mais cet ouvrage du laborieux auteur du Manuel basque n'a pas encore été imprimé. » (Prolegomènes, p. 49).

Léclusek 1826an Baionan *Grammaire basque* bat agertua zuen. Hona, liburu-ruko « *appendice* » delakoan agertzen diren pieza labur batzuen artean, La Fontaine frantses fabulista handiaren alegia labur bat euskaraz itzulirik (p. III) :

« 7.) LE CORBEAU ET LE RENARD.

Belle jaunac, zuhaiñ baten gaiñen phausaturic, gasna bat bere moskhon atchequitcen cin ; Acheri jauna, hunen urrinac ginaraciric, language huntan mintzatu cen : « Egun hon, mousde Bellia, zoiñen eiger ciren ! ce ichura ederra duzun ! zure cantoria zure zayaren paria bada, eguiazqui zu cira oihen (sic) huntaco chorien erreguia. » Elhe hoyez, Belliac hanich boztario sentitcen du ; eta bere botz ederra entzunarazteco, moskho largo bat zabaltcen, eta bere bazca erortera uzten du. Hau Acheric aztaparretan harturic, erraiten do (sic) :

« Ene jaun ona (sic), jaquin behar duzu, lausencazalle guciac behazallen oguirequi guicentcen direla. Lecionne hunec dudagabe gasna bat balio du. » Belliac, ahalqueturic eta khechaturic, cin berantche batequi erran cin, secula eztiela berriz atzamanen. » (*Grammaire basque, appendice, III. orrialdean*).

Hona oraiko grafian emana : Bele jaunak, zühain baten gainean pausatürrik, gazna bat bere moskoan etxekitzen züan ; Axeri jauna, honen ürrinak jinazazürrik, lenguaje hontan mintzatü zen : « Egün hon, musde Belea, zoinen eijer ziren ! zer itxüra ederra düzün ! zure kantorea zure zaiaren para bada, egiazki zü zira oihañ hontako txorien erregea. » Ele horiez, Beleak hanitx boztario senditzen dü ; eta bere botz ederra(ren) entzünarazteko, mosko largo (zabal) bat zabaltzen (irekitzen), eta bere bazka erortera üzten dü. Hau Axerik aztaparretan hartürrik, erraiten deio : « Ene jaun hona, jakin behar düzü lausenkazale güziak behazaleen ogi(a)reki(n) gizentzen direla. Letziona honek düda gabe gazna bat balio dü. » Beleak, ahalketürrik eta kexatürrik, zin berantxe bateki(n) erran züan, seküla ez düela berriz atzamanen. » (*Zuberoako literaturaren antologia laburra, 43-44 or.*)

Inguruko piezak : 5.) Oraison dominicale (Basque français.) : Gure Aita lapurteraz ; 6.) Oraison dominicale (Basque espagnol.) : Aita gurea, gipuzkeraz ; 8.) Début du Télémaque, behenafarreraz.

Itzulpen fidela da, galizismoen baztertzeke heina zuhurki egokitua. Euskara, Pettarrekoa du osoki, Ürrüstoin mintzatzen duguna, zuberera klasikotik hurbil egonagatik, « zin » (zian / züan) eta « do » (deio) bezalako ñabardurez ongi markatua : Michel Abbadiaren lana, semeak dioskun bezala. Horren lekuko dugu Lécluse bera. Hona zer dioen « Arrastoitarra » deitzen duen Abbadia aitari zuzentzen dion esker onezko gutunean : « Quoique vous ayez quitté depuis longtemps votre pays natal, votre pensée ne l'a jamais perdu de vue. Ni l'Angleterre, ni l'Espagne, dont vous avez étudié avec succès les littératures, n'ont pu vous faire oublier votre idiome maternel ; témoin l'élégante traduction du Corbeau et du Renard, que vous m'avez autorisé à publier à la suite de ma Grammaire. »

Ber urteetan Michelek Darrigol apaizaren gramatika lan bat ere bultzatu zuen, *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*. Hona d'Abbadie aita horrek autoreari zer idatzi zion 1828ko abuztuaren bostean : « Monsieur, L'automne dernier, me trouvant avec ma famille à Biarritz pour prendre des bains de mer, je fis l'acquisition de votre ouvrage sur la langue basque. Je l'ai lu et relu avec la plus grande satisfaction. Vous y faites ressortir avec tant de précision et de justesse la richesse, la supériorité de notre belle langue, vous en faites connaître si bien le génie, en donnant des notions si justes sur la syntaxe ; vous avez su donner un développement si prodigieux à notre verbe iza-

tea (être) que je n'hésite pas à dire que c'est le plus beau monument qui ait été élevé à notre langue.

... « En vous payant l'humble tribut de mes applaudissements... vous ne trouverez pas étrange que je vous invite à mériter de nouveaux succès : je suis convaincu d'avance que vous les obtiendrez facilement... Il s'agit de concourir au prix offert par l'Académie française pour la meilleure analyse raisonnée du système grammatical de la langue basque. » (*Antoine d'Abbadie*, Charles Petit, *La tradition au Pays Basque*, p. 548).

Berriz idazten zion 1929ko martxoaren zazpian : « Si le jugement de l'Académie trompait mes espérances, je me ferais un plaisir d'en appeler au public, avec votre permission, en faisant imprimer, à mes frais, votre excellente analyse. »

Azkenik 1829ko apirilaren 24an : « Mon cher compatriote, Je sors en toute hâte de la séance publique des quatre Académies, avant qu'elle ne soit terminée, pour profiter du courrier d'aujourd'hui afin de vous annoncer que vous avez été couronné. L'Académie a fait l'éloge de votre mémoire et vous a adjugé le prix. C'est avec la plus vive joie que je vous donne cette nouvelle ; agréez, je vous en prie, mes félicitations empressées. » (Ber artikulutik, 557. or.).

Darrigol, Lahonce / Lehuntzeko semea, Baionan seminario handiko zuzendaria, gazterik hil zen (1790-1829). Horren lanez hona zer dion Aita Villasantek bere *Historia de la literatura vasca* liburuan, 171. zatian, 161. orrialdean : « En lo impreso este autor parece ser el primero que ha señalado explícitamente la existencia de una declinación indefinida en vasco ».

Antoine d'Abbadiek Xahorekiko gramatika lanaren Prolegomenoetan agertzen du Lécluse eta Darrigolen idazlanez duen estimua, iritzi kritiko batzuekin.

Lehenik Darrigolen *Dissertation* delakoaz, 37. orrialdean : « A une parfaite connaissance de sa langue maternelle cet ecclésiastique unissait une profonde érudition dans la philologie ancienne et moderne. Aussi son œuvre est-il (sic) plein de clarté et de méthode. Il est le premier qui ait bien développé la déclinaison dans ses trois formes : c'est lui aussi qui a émis d'abord, sur la langue, plusieurs idées que nous avons tâché de reproduire ici. Cependant nous différons de lui dans quelques opinions sur la manière d'envisager les verbes. A part ces idées et quelques autres macules telles que son orthographe que nous n'adoptons pas, nous adhérons pleinement à tout ce que l'ecclésiastique de Bayonne a dit sur la grammaire basque. L'abbé Darrigol, après avoir débuté d'une manière si brillante, formait bien d'autres projets pour sa langue chérie. Déjà, il se préparait à fonder une Académie basque, déjà le premier corps

savant du monde lui avait décerné son grand prix de philologie quand la mort est venue le surprendre. (...) ».

Gero Lécluseren gramatikaz, 35 eta 36. orrialdeetan, hau dio : «1826 *Grammaire basque* par M. Fl. Lécluse, professeur de littérature grecque et de langue hébraïque à la faculté des lettres de Toulouse, etc. (...). Cet ouvrage est bien caractérisé par l'abbé Darrigol, comme étant le fruit précoce d'un esprit méthodique et pénétrant. En effet l'auteur s'est probablement trop hâté de composer la grammaire d'une langue fort difficile qu'il ne connaissait que par deux ans d'études. (...). M. Lécluse a le premier établi, d'après les conseils de mon père, l'existence d'un dialecte particulier dans l'ancienne province de Soule (Ziberoa). Cependant il n'en parle pas dans son travail sur les dialectes, où il s'est borné à citer Larramendi. Malgré ses imperfections, le Manuel du savant helléniste a plus fait qu'aucun autre ouvrage pour faciliter la connaissance de la langue basque. »

Haatik berantago Lécluseren hiztegia zinez kritikatu du *Travaux récents sur la langue basque* idazkian (1859) : « car Lécluse a tronqué et altéré le vocabulaire de six mille mots souletins que mon père lui avait fournis ».

Antoine d'Abbadieren Prolegomenoak aipatu ditut. Gramatika lan baten aitzin-solas luzea osatzen dute frantsesez, liburu hori delarik Agosti Xahorekin 1836an agerturiko *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, par A. Th. D'Abbadie et J. Augustin Chaho, de Navarre, Auteur des *Paroles d'un Voyant*. Gramatika lana, *Grammaire euskarienne* deitua, Xahorena da, frantsesez hau ere, hiru zatitan : ahoskera, deklinabidea, aditza. Zuberera oinarritzat hartzen du. Lapurteraren kutsurik ere badu : Iparraldeko tradizioan ez da harritzekoa, gure literaturan lapurterak duen indarra ikusiz. Hegoaldeko euskalkiak ez dituztela oraino aski ezagutzen dio Abbadiak :

« Dans le choix que nous avons fait du dialecte souletin comme sujet de nos études, nous ne nous sommes pas laissés aller seulement à un amour étroit de notre province. Le dialecte de Ziberoa nous est plus familier, il est vrai, et cette considération n'était pas sans importance pour l'exactitude du verbe, dont le développement complet a toujours été à nos yeux le grand but de cette publication ; mais l'idiome du Labourd n'est pas resté hors du cercle de nos études. C'est là seulement que nous avons pu étudier le peu de littérature que la langue basque ait livré à la presse. Depuis trois ans que notre attention s'est portée plus spécialement sur cette langue de nos pères, les événements politiques nous ont laissé peu d'occasions de connaître nos dialectes transpyrénéens. D'un autre côté, celui de la Soule n'a mis au jour que trois pièces fugitives, insérées par Arnauld-Michel d'Abbadie, à la suite de l'ouvrage de M. Lécluse, et l'*Azti-Beghia* publié, il y a deux ans, par Augustin Chaho. Le génie

labourdin a fait irruption jusque dans nos livres les plus élémentaires de la lithurgie. Cependant ce dialecte a déjà méconnu le futur simple dans la conjugaison isolée du verbe, et il exprime le plus souvent ce temps par la forme *izanen naiz*¹, tandis que le Souletin dit simplement *nizate* ».

Prolegomenoak Antoineri zor dizkiogu beraz : luzeak direla errana dut, liburuan 50 orrialde betetzen dituzte, orotara 184 dituelarik. Bere sinadurako *Th* hori amaren abizenetik hartua du : Thompson (of Park) ; « de Navarre » : Xahok *Voyage en Navarre* liburua agertu berria zuen, eta d'Abbadiek aipamen sutsua egina zion *Bulletin de Géographie* delako aldizkarian.

Sar hitz hori Xahok eskatua zion, eta bere « Grammaire euskarienne » delakoa inprimarazten hasia zuelarik, Abbadia idaztera bultzatu zuen gutunez, gomendio batzuk emanez : « En attendant je surveille l'impression des Etudes (grammaticales). On a commencé la feuille 2. Je presserai la besogne tant que je pourrai. Vous pouvez d'ores et déjà préparer votre introduction. Je vous recommande une certaine étendue, pour qu'elle fasse contrepoids avec l'aridité de ma grammaire. Nos deux noms figureront sur le premier titre, vous signerez votre travail A. Th. D'Abbadie de Navarre et mon nom figurera sur le premier titre qui précédera mon premier chapitre. De cette façon chacun aura la responsabilité de ses idées et l'on verra dans l'ensemble du livre la pensée patriotique qui nous a réunis. Vous avez dû vous apercevoir que la nationalité basque a des ennemis implacables : (...) ».

Prolegomenoek bi zati dituzte. Lehenean Antoinenek euskararen berezitasunak aipatzen ditu, beste hizkuntza batzuekin konparaketak eginez. Aipatuak dira bereziki latina, hungariera, finlandiera, laponiera, hebreera, sanskritoa (Xahok ikertua), georgiera, Peruko ketxua, azken hau Abbadiaren arabera euskarari hurbilena. Bigarren zatian, euskal literaturaren inguruko bibliografia kritiko bat dakar, orduko hoberenetarik. Agerian uzten dute ordurarteko liburu gehixenak ezagutzen zituela, eta gramatika lanen aztertzen ere bazakiela jakintsuki. Hots euskararen ezagutza sakon eta zabala zuen, zerebralki bederen. Ene ustez faltako zaiona da arruntean erabiltzea, bai ahoz eta bai lumaz : aukera guti zukeen horretarako.

¹ « Oihénart nous apprend quelle était la forme isolée du futur jadis en usage en Labourd.

<i>Nazaitte</i> (Naizate ?),	je serai.	<i>Garate</i> ,	nous serons.
<i>Azaitte</i> (Aizate ?),	tu seras.	<i>Saratee</i> (Zaratee),	vous serez.
<i>Date</i> ,	il sera.	<i>Dirate</i> ,	ils seront. »

(*Prolégomènes*, pp. 7-8).

Liburua « Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner » zuzendua da. Erranaldi hori zubi bateko zutabe nagusia bezala ikusten dut : alde batetik daude Axularrek zenbakirik aipatu gabe izendatu zituen lurralde historikoak, gero Larramendiren euskal errepublikakoak, Bela zaldunaren erranaldia, « On divisé les Basques en sept provinces ou païs particuliers », Garat gazteenaren « les quatre cantons espagnols et les trois cantons français » ; bestetik dago Arturo Campionen ingurutiko « Zazpiak bat » formula matematikoa, gero euskal idazle askok aldarrikatuko duena, Abbadia bera ahantzi gabe, edo beste gisa batera itzuliko (Zazpi probintziak edo zazpi lurralde historikoak aipatuz) : Louis-Lucien Bonaparte printzea (*Carte des sept provinces basques*), Hiribarren, Ibarrart, Adema-Zalduby, Otxalde, Otaño, Arrese-Beitia, Casal, Sabino Arana Goiri (Axularren lurraldeak bere hizkeran izendatuz), Mendiague, Artola, Zapirain, Oxobi, Broussain, Etxahun-Iruri, Labéguerie... Ez dago gaizki !

Gero dozena bat urtez Etiopian gaindi dabil Antoine, Arnauld anaiarekin (1837-1848). Hango hizkuntza nagusian hiztegi bat egiten du. Itzultzean Lapurdin kokatzen dira biak.

Ondoko urteetan Hendaiaiko Abbadia jauregia eraikitzen du, eta han agertzen dira, geletako paretetan idatziak, hizkuntza ezberdin andana bateko zuhurtitzak, haien artean euskarazkoak :

- Sapar edozeinek du itzala
- Erho bat aski da harri cantoin baten puzura egoizteco, bana sei zuhur behar dira haren hantic itoiteco
- Jaincoac, bera languile on izanagati, nahi du lankide
- Ago Jaincoarequi, jainco dukek hirequi
- Ez ikusi, ez ikasi.

Zuberoako euskalkiaren herexa ikusten dugu hor ere. Bestalde Ürrüstoiko hilerrietan, hilarri bat ikusgarria badago elizako kalustrapen. Epitafio edo hilartitz hau dakar, marmol zurian zizelkatua :

J. H. S.

Heben dago erhausteco
Bena berriz phizteco
Maria Maitena
ABBADIACO alhaba zena

Heben dago errausteko
Bena berriz pizteko
Maria Maitena
ABBADIAKO alaba zena

Sortu zen apherilan
1771-an
Hil izan da abentian
Laugarren egunian
1856-an
JINCOAREN bakian

Sortü zen apirilan
1771an
Hil izan da abentüan
Laugarren egünean
1856an
JINKOAREN bakean

Igaraile bihotz hona
Ber bidian zoazana
Gomenda ezazu jincoari
Eta Virgina MARIARI

Igaraile bihotz hona
Ber bidean zoazana
Gomenda ezazü Jinkoari
Eta Birjina MARIARI

Adio gabe eguzama
Phausian dela zure arima

Adio gabe egüzama
Pausüan dela zure arima

Enetzat ez da dudarik Antoinek asmatua dela hilartitz hori, ezen haren gozama zen, aitaren arreba gehiena, hor datzan hila. Grafia nahiko modernoa du. Inchauspek eta ondokoek, horretan atzera eginen dute, bereziki « ou » grafemarekin, XX. mendeko bospaseigarren hamarkadaraino.

Euskarari buzuz beste lanik idatziko du jakintsunak, gehienik frantsesez :

- 1854 : *le Dictionnaire de Chabo*, Messenger de Bayonne, 27 mai 1854, et 1855

- 1854 : *Lettres sur l'orthographe basque*, Messenger de Bayonne, 28 nov. et 9 déc.

- 1859 : *Travaux récents sur la langue basque*, Imp. Impériale, Paris : extrait du Journal asiatique, XIII, 88-93.

- 1868 : *Sur la carte de la langue basque* : Bulletins de la Société d'Anthropologie de Paris, 1868, III (2^e série), 521-523 ; 182 (2^e série), 562-564.

- 1873 : *le Basque et le Berbère*, ber aldizkarian, 1873, VIII (2^e série), 655-667.
- 1886 : *Lettre de M. A d'Abbadie à M. le Président de la Société de Borda (sur l'étymologie de Leberen, divinité pyrénéenne)* : Société Borda, Bulletin, 1886, XI, 113-115.
- 1895-1896 : *Lettre sur la préservation de la langue basque (notice)* : Bulletin de la Société de Linguistique, 1895-1896, IX, p. LXXXVIII.

Idazki horiek baieztatzen digute aitzinekoetan usnatua : Abbadiak gehienik euskararen alde idazten badu, hizkuntzaren muinean, egituran eta teknikan ere sartzen badakiela. *Travaux récents sur la langue basque* (1859), euskarari buruz berriki egin diren lanak ikertzen dituen idazki horretan, Louis-Lucien Bonaparte printzearen azterketak laudatzen ditu, eta Manuel Inchauspe zuberotar apaizaren Euskal Aditza (*Le Verbe Basque*, Baiona, 1858) oroz gainetik goraiatzan :

« Cet ouvrage contient le développement complet du verbe basque, insaisissable jusqu'ici, et si varié... Quoi qu'il en soit, le livre de M. Inchauspe est l'ouvrage capital sur la langue basque. Je publiai il y a vingt deux ans un travail du même genre fondé aussi sur le verbe du dialecte souletin ; mais mon ouvrage fut beaucoup moins complet parce que je ne sus pas choisir un collaborateur aussi dévoué que M. Inchauspe »².

Hogeita bi urte lehenago, 1836an agertu zuen gramatika lana gorago aipatua dugu : *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, eta laguntzailea Augustin Chaho zuen (1811-1858). Honek ezin zion 1859ko idazkiari erantzun, berriki zendua zelako.

Bitarte horretan Abbadiak Xaho lagundu nahi ukan zuen hiztegi lan handi batean. Duvoisin guarda kapitaina ber gisako lanari lotu berria zen, eta horrekin jardun nahi zukeen Xahok. Bien arteko zubi lanaren egitea d'Abbadieri eskatu zion, eta hau saiatu zen, alferrik ordea. Duvoisin zuriak Xaho gorriarekin lan egiteari ezetz ihardetsi zion. Abbadia ere zuria zen, baina zabalagoa, 1836ko elkarlanean ikusi dugun bezala.

Xahoren hiztegitintaz bere oharrak egin ditu, gorago aipaturiko idazki batean, *Le dictionnaire de Chaho* delakoan. « On n'a pas encore publié d'autre Dictionnaire Basque que celui de Larramendi. (...). On y commence par l'or-

¹ Abbadie, Antoine d' – *Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires* – Edition de Patri Urkizu, avec la collaboration de Idoia Estornes et Fermin Arkotxa – Bilbao, Euskaltzaindia ; Donostia, Eusko Ikaskuntza – Nazioarteko Biltzarra / Congrès Interna-

dre alphabétique des mots espagnols, puis viennent les mots basques, et enfin les mots latins correspondants. (...) Aujourd'hui (...) on a réellement besoin d'avoir un dictionnaire qui commence par le basque.

« M. Chaho a très sagement fait de prendre ce dernier parti. Son travail, si important, ne peut être mentionné avec légèreté ; car, pour être bien exécuté, il demande presque une vie d'homme. L'auteur et l'éditeur ont droit à tous nos éloges pour leur généreux courage à publier un livre qui doit durer. De notre côté, nous montrerons notre sentiment de son importance par l'énoncé de quelques idées critiques, que l'auteur voudra bien nous pardonner en songeant qu'il eût suffi de trois lignes d'éloge ou de blâme pour escorter un ouvrage moins éphémère. (...)»³.

« M. Chaho est encore à temps de faire droit à quelques-unes de nos remarques, et nous espérons, dans tous les cas, qu'il les accueillera dans l'esprit de critique bienveillante qui les a dictées »⁴.

Abbadia ez dago bat Xahok ortografiaz egiten dituen hautu batzuekin, adibidez gh, y eta x hizkiekin : Antoinnek g, i eta ts hobesten ditu, Darrigol eta Duvoisinek bezala. Hori da ez du hain aspaldi Euskaltzaindiak egin duen hautua.

Xahoren etimologismoa ere zirikatzen du Abbadiak :

« Nous ne le (Chaho) suivons pas dans la Guerre des Alphabets qu'il a écrite dans ce journal il y a un an, car cette forme pittoresque a provoqué plus de gaieté que de méditations. (...). N'est-il pas téméraire à M. Chaho de dire qu'il résout les difficultés (d'orthographe) par des considérations étymologiques ? Et d'abord on peut affirmer qu'une grande portion des étymologies basques est à refaire après en avoir cherché, discuté et posé minutieusement les règles. La philologie actuelle ne se contente pas de moins (...). Or ces lois sont encore à discuter et à formuler pour la langue basque. M. Chaho a oublié d'en énoncer une seule dans ses nombreuses étymologies dont il a parsemé ses 93 pages d'introduction. (...) »⁵.

Ber zorroztasuna erakusten du Abbadiak Cerquand batek euskal ipuinen bilketako metodoei buruz, hau erriente bitartez ari baita lan horretan. Hona jakintsunak 1876ko urtarrilaren bostean Mauleko bikario diren Garicoïts eta Landerretche apaizei zer idazten dien, haien laguntza eskatuz istorio zaharren biltzeko (*Tartaroa, papaitak, ipuinak...*) :

« Je sais comme vous que M. Cerquand en a publié, mais comme l'a dit un journal scientifique anglais, les instituteurs sont les plus mauvais ouvriers en cette matière car on les a formés dans cette fausse idée que la culture de la langue basque est un obstacle au progrès trop vanté de notre temps. En recueillant ces légendes il faut conserver avec soin les archaïsmes de la langue, les tromperies du style et toutes les autres particularités que les maîtres d'école tendent à effacer pour se conformer aux idées modernes. Ce travail ne peut être bien fait que par un prêtre ou du moins par un homme qui a le feu sacré et **qui s'applaudit d'être basque avant de se dire français** »⁶.

Euskaraz idatzi du Antoinek, lapurteraz, haatik ez asko : gutun andanaño bat, bereziki Euskal Jaien karietara : auzapez edo jaun batzuei zuzenduak dira, usaian laburrak ; bat luzea, *Zubernoatikako gutun bat*, 1864an, Urruñako udal kontseiluari, berak herrian eginarazi duen bide batez. Erran izan da hein bat ongi moldatzen dela, ez gehiago. Egia da erranaldietan erdaren eragin bat usnatzen zaiola, naturaltasun eskas bat bezala, bai hitzen kokapenean, bai frasearen pleguetan, bereziki « *zein* » juntagailuaren erabilera nasaiarekin. Batzuetan iduri luke frantsesez idatzi duela eta gero itzuli. Haatik baliteke zuzenka horrela idaztea, Etienne Salaberry bat adibidez ondoko mendean ariko den bezalaxe, frantsesaren eredu nagusiko « *sujet-verbe-complément* » delako eskemaren arabera. Erranaldi luze, konplexu, korapilotsuek ere joera horretara eraman dezakete, bereziki « *zein* » juntagailuaren egartera behartuz usu.

Anton / Antoni / Antoniok euskararen praktika gehiegirik ez duke, nik uste, idatziz bederen. Gainera ez dezagun ahantz zuberera duela jatorrizko euskalkia, hobekienik ezagutzen duena, bere Prolegomenoetan azpimarratzen duen bezala (7. orrialdean) : beraz barkatzen ahal zaio lapurteraz ertaineko mailan ibiltzea, ofizioko lana frantsesez derabilkielarik, eta emaztea frantsesa duelarik. Euskaraz norekin hitzegiten du ? Zubernoan bere maizter, bordari, etxetiar ugariekin, bestela bakanago zuberotarrekin (baina horiekin bistan da zubereraz), aitaren sorterritik dabilelarik.

Hona 1890ean, Mauleko bigarren Euskal Jaietan, Adrien eta Jean de Souhy mauletar askazietarik jaso zuen ongi etorritzko bertsoa :

Hounki jin ziradila, Mousde Abbadia,
Urrustoi herri chipiko arraseme handia !
Hounki jin Uskaldunen, zu, adichkidia,
Bethi maite duzulakoz Ziberu Herria.

² P. 435.

Gaurko grafian emanez :

Honki jin ziradeala, musde Abbadia
 Ürrüstoi herri txipiko arraseme handia
 Honki jin eüskaldünen zü adiskidea
 Beti maite düzülakoz Züberoa herria.

Abbadia de Souhy horien askazi zen, ama Ürrüstoi Zünhariko alabetarik baitzuten, abizenez de Sunhary, nahiz Zünharia ez den Zuberoako etxe nobleen zerrendan agertzen, haboro eziz Abbadia.

Aitarenganiko etxea eta etxaldea horiei utziko dizkiela badakigu, Biografian ikusirik.

Antoniok bere mugak aitortzen eta deitoratzen ditu Dodpson ingeles euskaltzaleari zuzenduriko gutun batean : « Je n'ai pas osé toutefois vous écrire en ce dernier idiome (*bots ingelesez*), encore moins en mauvais eskuara du Labourd. » Gero azaltzen dio etiopiar morroi batekin etiopieraz hitzegiten duela : «... talent inutile... Jaimerais mieux savoir à fond les dialectes basques de la Soule à la Biscaye. » Haatik Zubernoatikako gutun hartan derabilen hiztegia nahiko aberatsa zait ; hitz berri batzuk asmatzen ditu gainera, franko egokiak : gelditokia, batkunde, iragantza ...Bestalde aditza trebeki derabil. Teorian ere hori zaio euskararen bizkarrezurra.

Eiki, *Travaux récents sur la langue basque* delako artikuluan (1859), Inchauspe apaizaren *Le Verbe Basque* Euskal Aditza liburuaz irakurri berri dugu : « ...le livre de M. Inchauspe est l'ouvrage capital sur la langue basque. » Zehazkiago, Prolegomenoetan Darrigolen *Dissertation sur la langue basque* delako lanaz erran zuen : « Quand l'Institut de France décerna, en 1830, le prix fondé par Volney à feu l'abbé Darrigol, celui-ci fut déclaré vainqueur principalement à cause du grand développement qu'il avait donné au verbe. Cette illustre assemblée avait bien senti que le génie basque se reflétait surtout dans sa conjugaison, belle, féconde et variée ».

Euskararen defentsa sutsu eta jakintsua frantsesez egin du nagusiki, baina gehienik sustatu du horren zerbitzuko ekintzez. Bonaparte printzearen bilketetan toki berezia eta bikaina du, arartekari bezala baitezpadakoa, lazuguntzaileak aurkituz, printzeak berak gutun batean ongi erranen dionez. Harreman estuak ditu bere garaiko idazle eta euskaltzaleekin, horietan aipagarrienak Duvoisin guarda kapitain lapurtarra, Inchauspe zuberotar apaiza, Arxu zuberotar errieta, Salaberri baxenabartar notarioa, Bruno Etxenike nafartarra, Agustin Pascual

Iturriaga gipuzkoarra, Jose Antonio Uriarte bizkaitarra. Arartekari eta bitartekolan horretan parte hartzen du Charles anaie gazteenak ere : mugaren bi aldeetako nafar idazleak biltzen ditu bere Baigorri Etxauzea jauregian.

Sustatzaile lanetan Antoine ez da beti ongi atera, eta hona etsenplu bat latza. Elizatiarra den bezala, apaizengain kondatzen du euskararen salbatzeko. Laguntzaile onik ukan du horien artean, eta egiari zor diogu horren aitortzea. Haatik nahigabe bat izigarria jasan zuen Elizako hierarkiarengatik. Baionako apaizgaitegi / seminario handian, bere diruz euskararenn irakasteko aulki baten eraikitzea eskaini zuen, baina horko buruzagiek muzin egin zioten. Sumindurik, gazteengan euskararen sustatzeko beste bide bat hartzen du beraz Abbadiak : lehenbiziko jaunartzetik landa, euskaraz hobekienik ari diren hurrei sariak emanen ditu, horretarako apaizik gabeko batzordeño batzuk antolatuz.

Horiek hola, euskararen alde eginen duen lanik bikainena, Euskal Jaien antolatzea izango da, beren orokortasunean herri kulturaren eskualde guziak hartuz. Halere, Lore Jokoei esker, olerkia eta euskara dira hor « sujetak ». Gai horretan ez naiz hemen luzaturen, liburu honetako beste bi zatitan xeheki aipatuak baitut. Soilik oroitarazten dut Abbadiaren Euskal Jaien ondoan, antzeko festak ospatuko dituztela, gehienik Hegoaldean, udaletxeek, probintziak eta kulturako talde ezberdinek, bai haren denboran, baita gero ere. Lehiaketa horiek guziek, Abbadiarenek eta besteek, zaletasun bat sortu eta hazi zuten, eta ene ustez euskal letretan ondoriorik ukan dute.

Iduri zait, olerkiaren maila ez bada, euskararena goratu dutela, Iparraldean bederen. Ordurainoko idazleek prosak, hemen, XIX. mendeko lehen partean, usu frantsesaren pleguak ditu, gaurko itzulpen askok gaztelaniarenak dituzten bezalaxe. Lore Jokoetako bertsoak aldiz egiazko euskara batean idatziaz dira, eta hortik datorke, nire aburuz eta iritziz, Iparraldean behintzat, ondotiko prosalariak erabiliko duten euskararen kalitatea. Gure aitzineko idazleek bederen, ezin zuten hartu hemeretzigarren mende erdirainoko prosalarienganik. Nondik beraz txukun idazten ikasi zuten ?

Ezin izartu ez neurtua da Abbadiak euskararen alde egin duen lana. Ezen, Jon Bilbaok bere Entziklopedian dioen bezala, « euskararen eta euskal literaturaren berpizte lanean mugitzen ziren guzietan eta guziekin zebilan d'Abbadie. » Idazlea baino gehiago mezenas, antola, bultza, susta, bil, aholka, inspiratzailea izan zen. Euskal kultura mugimenduaren sortzailea dugu. Bere lanez, ideiez eta etsenpluz gain, hona 1892an Donibane Lohizungo Euskal Jaietan bota zuen mezua : Atxik hizkuntza... Zazpiak bat ! Euskal oihua dugu azken hau, egiazki, euskararen oinarritzen baita euskaldunen haurridegoa, oraiko zazpi euskal lurraldeetan, baita mundu zabalean.

Luzaz ilunpean, isilpean ahantziak eta ehortziak, berpizten hasi zaizkigu Abbadiaren obrak eta mezua, euskara dutela oinarri, ekei, ardatz eta helburu, euskaldunen onerako.

J-L. D.

Abbadia eta euskara idazlan honetarako, izenburu horrekin Elhuyar aldizkari-ko *Antoine Abbadia* dosierean idatzi nuen artikulutik abiatu naiz (Elhuyar, zientzia eta teknika, 73-74, 1993ko uztaila-abuztua). Emendio batzuk ekarri dizkiot, bereziki frantsesezko zitazioak. Aderantziz Euskal Jaien eta Lore Jokoen aipamena laburtu diot, festa horiek beste bi tokitan xehekiago agertzen direlako. Eta hizkuntzari azken arauak sartu dizkiot, liburuko beste zatietan bezala.

Pourquoi un tel intérêt pour la langue basque ?

Antoine d'Abbadie était un phénomène intellectuel, une sorte de Pantagruel qui s'intéressait à tout. Il fut explorateur, géographe, physicien, astronome, ethnologue, grammairien, lexicographe... Il connaissait paraît-il quatorze langues... A l'époque de la Renaissance, il aurait fait un formidable humaniste, dont le nom serait célèbre dans le monde entier. Après un siècle d'oubli, dû en partie à son éclectisme aux temps de la spécialisation, le voilà réhabilité en 1997 comme savant polyfacétique. L'on reconnaît enfin sa valeur, dans les sciences humaines aussi, et notamment dans le domaine linguistique.

Antoine d'Abbadie était plus irlandais que basque, par sa mère, sa naissance à Dublin et son enfance en Irlande jusqu'à l'âge de dix ans, par sa fortune familiale aussi. Pourquoi donc a-t-il privilégié la patrie et la langue de son père ? Je n'en sais rien pour le moment. Mais peut-être faudrait-il chercher une réponse dans sa vie d'enfant.

Sa mère avait un caractère très énergique. Fille unique d'un père veuf, elle en avait reçu la formation très poussée d'un jeune homme riche et doué de l'époque, y compris par exemple une connaissance remarquable du grec ancien. Elle a donné à ses enfants une éducation exigeante et stricte, plus anglaise qu'irlandaise, comme c'était sans doute l'usage dans sa classe sociale riche et de plus aristocratique.

La tendresse et la poésie étaient davantage du côté de son père, qui apprenait des chants basques à ses enfants chaque soir, selon des sources familiales.

Est-ce cette relative inversion des rôles qui a joué en faveur de la basquitude ?
Qui peut le savoir ?

J'ai préparé ce texte pour un entretien avec Monsieur Cabrol fils, de Saint Jean Pied de Port, sur la chaîne de télévision locale TVPI de Bayonne le 11 novembre 2000 au soir. Le premier paragraphe n'a pas été utilisé. Par contre la conversation s'est étendue en seconde partie sur les Prolégomènes de la grammaire de Chabo (Etudes grammaticales sur la langue euskarienne) et sur les autres écrits « basques » d'Antoine d'Abbadie.

Zubernoatikako gutun bat

Gutun hori, Parisen inprimatua, Abbadiak Urruñako udal kontseiluari zuzendu zion 1864ko urte hasieran. Patri Urkizuk horren kopia jatorrizko grafian argitaratua du *Recueil de textes* delako liburuan, 436-440 orrialdeetan. Hemen gaurko grafian ematen dut.

Nire ustez, Abbadiak idazki horretan agertzen duen disgustuak adieraz dezake zergatik bere Euskal Jai eta Lore Jokoak urte horretan « deslokalizatu » zituen : 1851tik 1863ra Urruñan emanik, 1864an Saran plantatu zituen, eta Urruñara ez ziren gehiago itzuli.

ZUBERNOATIKAKO GUTUN BAT

Parisen, A. Lainek eta J. Havardek inprimatua. 1864

Zubernoan : 1864 : otsailaren 11.ean.
Urruñako kontseiluko membroeri

Jaunak,

Gan den hazilaren 15ean zuen bilkuian hartu izan den deliberazionearen gainean laburzki emana izan zaitanetik, ikusten dut ez zaitzuela nik hilabete berean, 8an eta 11an, eskribatu nituen gutun edo letren xehetasun zuzen eta egiaren araberrakorik emana izan, klarki eta erretx aditzeko gisa nituenarren eskribatu frantsesez. Banator(ki)zue beraz gutun haiek zeri buruz egin nituen zuei euskaraz erratera.

Iragan buruilan, nire gain hartu nuen S. M. Enperadoreari ezartzea begietan nola, Urruñako herriak ez zuenaz geroz erdietsi burdinbideko estazione edo gelditoki bat, ez eta ere bide handian zubi bat, gure komertzioko edo laborantzako beharrez deituko gintuzten berez edo naturalki Hendaia.

Otoiztu nuen beraz S. M. Enperadorea mana zezan erregebide bat irek zadien Hendaiako garatik Abbadiako (I) bideraino, zeina ene kostuz egin bainuen duela zortzi urte. Ja galdegin nuen bide hori autoritate edo buruzagi beheragokoei, baina alferretan. S. M. Enperadoreak ez soilki manatu zuen bide hori egin zadin, baina, nola handi eta largo baita guzietan, hamar liberaz on egin zuen Serestik Hendaiarainoko bidearen egiteko, adierazten zuelarik gastuen gainerakoa interes zutenek bete beharko zutela.

Gastu osoa hemezortzi mila liberarentzat da ekarria. Zortzi mila libera dire beraz eskas gelditzen, hain grazioski Enperadoreak emanaz goiti. Lau mila liberarentzat ekarri du Urruñara Suprefetak eta bertze lau milarentzat zuberanoarrak.

Ene auzoeri kargarik ez emateagatik, galdegitearekin legarrak eta kontribuzioeak, azkeneko lau mila horientzat, zeinak ez bainakike nola parti eta halaber nolaz bil denbora beharrean, hartu ditut ene gain lau mila libera horiek, eta emanen ditut nihaurek bide, ez soilki niri, baina komun edo batkude guziari on ekarriko dion bati buruz. Bai eman dut hitz niholereko moldez niretzat deus aldera edo galdetu gabe, eta atxikiko dut ene hitza. Ez zaitzue beraz egia errana izan hazilaren hamabortzeko bilkuian, adieraztearekin, nik ene gutunean agintzen banituen ere lau mila libera, halaber hau edo hori ordaintzat galdetzen eta aldaratzen nuela. Bertze aldetik, gutun batez baizik ez da aipamena bilkuia hartan berean, biga nituenarren eskribatu.

Xedatua den bide horren egiteko, hamabortz bat lur-landu ara eraman behar dauzkitet, Galbarreta eta Ametzagaren artean, balio dutenak mila libera, guti gora behera. Balio horren zati bat bederen geldi nezakeien, iduritzen zait, agindu nituen lau mila liberetarik, hautsi gabe Suprefetaren manuak. Baina ez, hobekiago zait egin dudala dohainik 16 ara lur ematean, bideak izan dezan, erran tokian, sei metro zabal, askak barnean.

Azkeneko lur emantza horri derratxeko herriak utzi beharko dautala, ordainez, hiru bide pedazu deusetako ez direnak, burdinbidea eginez geroz Serestik Hendaiarako bidea egitearekin. Bide puska horien emateaz herriak ez du deus galduko, ezen deusetako ez dire, ez eta ere saltzeko, non ez den niri, ene ondasunaren aldean aurkitzen direlako. Gainerakoan gastu puska (bat) egin beharko dut, han hazia bota baino lehen. Bertzalde, bide zati hauek zueri galdetu aitzinean, galde bera egin nion president(e)ari, eta ihardetsi zautan izanen nituela errecki, baina legearen arabera hobe nuela gan, eta ene galdea eskribuz ezarri. Egin dut azkenean molde hortan galdea, baina kondizioearekin, eta hori zertarako ? Zeren segurago bainaukan ihardetsiko zitzaizala ; ezen orain(n) arte ikusi dudanak erakutsi daut, ondikoz, Urruñako buruzagieri igortzen diozkatedan gutunak ez direla zuen beharrietarat heltzen.

Jakintsun nahi zaituztet egin bertze gauza batez ere, zeina erdizka eta eskaski izan baitzaizue aipatua.

Ez nezantzat gal ene Galbarretako landan, burdinbidearen saihetsetikako bidearentzat hartu nahi zautatena, eta bertze aldetik, nahiz denbora berean Urruña guziari on handi bat ekarri Serestik Hendaiarat bide bat egiteaz, gogora etorri zitzaitan eta ezarri nuen begietan Konpainiari asmo bat, zeinaren medioz saihetseko bidea kentzen baitzen, nik Seresko jaunari ematen nio-larik nire landan gaindi pasaia edo iragantza betiereko libroa, zeina eskaintzen bainion ordudanik dohainik, fitsik ordain galdetu gabe. Nire hitzaren arabera, Konpainiak seigarren bat gutiago izanen zuen gastuetan saihetstiko bidearentzat, baina kargatua gelditzen zen etxatzea bere lur soberak Galbarretaren eta Seresen arteko zilarat, halako moldez non eginen baitzen, Urruñak deus eman gabe, Serestik Hendaiarako bidearen zati bat. Baina Urruñako buruzagiek ez naute lagundu, eta Konpainiak bertzeetar bat bota ditu sobera zituen lur gehienak. Anitz solas eta bilkuiairen ondoan, Konpainiak ene landa idoki du beretzat baina, nola nire antolamenduarekin, ez baita saihetseko bidearen beharrik, Konpainiak ematen diozka Urruñari 950 libera, bide hura gostako zena. Molde horrez galtzen dut nahiko nuen ona, baina halere onetsi dut.

Banatorikizue beraz orain zuen otoiztera ezagut dezazuen goraki eta ageriki, herriko liburuan :

1.ik Serestik Hendaiarako bidearentzat, zeina nik erdietsi baitut S. M. Enperadorearen nahikunde indardun eta guziz gorarenganik, ematen ditudala, gastuen aldera, lau mila libera dirutan, ene-eneak eta dohainik, deus ordain galdegin gabe.

2.ik Konpainiaganik hartzen dituzuen 950 liberak nire asmoari direla zor, eta bereziki zeren uzten dudan nire landan gaindi betikotzako pasaia eta iragantza, frantsesez : *Servitude de passage*, fitsik ordainez izan gabe, eta holatan diru etortze hori dela nireganiko bertze emaitza bat.

3.ik Otoizten zaituztet, oraino, errateaz ea, nire hirugarren emantzaren orde, erran nahi baitut, herriari eskaintzen dudan lur-landu golde herenaren aldera, xedetan zaizten uztea niretzat eta betiko, gorago aipatu ditudan hiru bide zatiak, galdetu dauzkitzuetanak orain hiru hilabete.

Idurituko zaitzue, naski, anitz xeheki eta zirrituki nabilala gauza hon(e)tan, eta auzoekin, guziak nire adiskideak, aski behar nukeela jendartean ongi ezagutua delakoarekin, gehiagorik galdetu gabe. Egia da, baliatu zait handizki, orain guti denbora dela, zuetarik zenbaitek egiari eta guziez ezagutua

zen gauzari eman dioten aitor gora eta ageria. Boz naiz eta dohatsu haieri hemen eskerren bihurtzeaz. Baina, berri berritan oraino erran diren solasek, Jaunak, bortxatzen naute deklarazione edo ageri ezin ukatuzkoen galdetzera. Hainbertze egin ondoan bai batkundearen onarentzat, bai herriko jostetentzat, sariak ezarriz, euskaldunek hain maite ditugun oroitzapenen pitzarazteagatik, eta eman diotenak Urruñari fama bat zeina bozik ikusi baitut anitz urrun hedatua, bizkitartean, izan da herri hon(e)tan norbait aski kopetatua Prefetari finkatzerainokoa nik ez nuela batere biderik egin, soilki berritu bertzerik ez nuela egin(a) zen bide bat. Eta bizkitartean, guziez ongi ezagutua da, nitaz lehen(ik), bizpahiru hilabetez, orga kargatu bat ez zitekeela Zubernoatik bide handira gan, baita ere Mentaberritik Teilatubaita artean, ez zela, Abbadiako bideari darraikola, ez biderik, eta ez ere bidexkarik. Gosta zait bide hori 14 mila liberaz goiti, eta guzien aitorean anitz beharra zen.

Egin ondoan eta harriztatu ene diruz, eman nion herriari 1856an, jorrailaren 24ko gutun batez. Gutun hartaz ez zait behin ere aipamenik den xumeena egin, eta ez da izan ere herriko paperean altxatua, anitz bakarrak direnaren gure Euskal Herrian, bideak berez egiten dituztenak komunari edo batkundeari emateko. Urruña guziak eta bereziki Zubernoak badakite anitz ongi, niri, eta ni soilari esker dutela Taulaxuritik Teilatubaita eta Katalinkoene arteko lau milata sei ehun metro bide. Eta hargatik ene auzo eta herritar multzo bat behar izan dut kexarazi, ongi gogoaren kontra, finka nezantzat, eginak egin, frogantza ezin ukatuzkoen gainean, guziek ongi ezagutzen zinduten gauza.

Ez dadientzat holako desplazerik gerta hemendik hara gutartean, eta nola ez baidezaket zuen herriko biltzarretan ene boza adieraz, igortzen dautzuet gutun hau. Uste dut hor(re)tan erraneri eman nahiko duzuela hots. Sineste hor(re)tan eskaintzen dautzuet ene estimu osoa.

ANTONIO ABBADIA

HIZTEGI TXIKIA

agindu : hitzeman (Lap.).

aska : arroila (kasu honetan).

beharri (BN, Zub.) : belarria.

boz naiz : bozik naiz, pozik nago ; zubereraz : botz, botzik ; *Jan eta hotz, atxeter(a) ez da botz.* (jan eta hotz baduzu, medikua ez dago boz / poz, bozik / pozik).

eia : ea.

emantza : emaitza. Azkueren hizgian : (AN-b) : producto, produit.

erregebide : errepedea. Azkue : (AB-b, L), camino real, carretera : route nationale, de grande communication. Lhande : L. (A) r. nationale.

Etxatu, etxa, etxatzen : aurtiki, jaurti, bota. Ibon Sarasola, Euskal Hiztegia : du ad (I627), Ipar (Zah.). Lhande : L (H.) – I^o jeter ; 2^o congédier quelqu'un avec humeur.

hobekiago : hobeki, hobeto.

Idoki : kendu.

iragantza : pasaia.

largo : zabal.

legar (Zub.) : zerga.

parti(tu) : parteka(tu), bana(tu).

pedazu : puska, zatia.

zirrituki : zorrozki, zehazki. Lhande : (Duvoisin. A.), fidèlement, exactement, scrupuleusement.

Zubernoak : Urruñako auzo bat. 1896an Frantziako Errepublikak horren zati bat Hendaia-ri zegokiola erabaki zuen.

zubernoarra : Antonio Abbadia (Zubernoak delako auzoan bizi zen, Abbadia jauregia hor eraiki zuen).

DONIBANE LOHIZUNGO EUSKAL FESTEN MENDEURRENKARI
(1992ko ekainaren 28an)

Euskal Kantu Txapelketako final goizean, horren antolatzaileek eta Donibane Lohizungo udalak, Barriola jaun auzapeza buru, hiri horretako mendurrena oroitarazi zuten Louis XIV plazako ekitaldi batean, Antoine d'Abadieri omenaldi gisako bat eskainiz.

Horretarako mezenas handiaz mintzaldi baten egitera deitu ninduten, eta ene peredikua kioskotik ahoskatu nuen auzapezaren alboan. Honek ohorezko makila bat oparitu zidan, haatik elkarte antolatzailean egon da.

Hona beraz ene hitzaldiko testua.

Jaun agurgarriak, andere maitagarriak,

Duela mende bete, Donibane Lohizungo hiri honetan gertakizun eder bat agitu zen, egunkoaren idurikoa. Euskal Jaiak ospatu ziren hemen, Antoine d'Abbadie Ürrüstoi astronomo jakintsunari esker antolatuak. Harekin batean, euskal festa horietan eskua sartu zuen, bistan dena, Donibane Lohizungo herri kontseiluak, buru zuela Goyeneche auzapeza. Lau egunez iraun zuten : agorrila / abuztuko 21, 22, 23 eta 24an, 19ko *Eskualduna* astekariaren arabera. Lau egunen egitaraua frantsesez ematen du « supplément » delako gehigarri batean, « *Grandes fêtes internationales du Pays Basque* » izenburuaren azpian.

Agorrila / abuztuaren 21a igandea : Jaiak ireki zituzten hemengo eliza nagusian, zazpi euskal lurralde historikoetako banderak benedikatuz. Elizkizunetik landa, karrika ingurua egin zuten. Andoaingo dantzariak Aureskua eman zuten.

Gero ari izan ziren Nafarroa Garaiko gaiteroak eta dantza batzuk eman ziren : Zortziena, Uztaiarekikoa, Billantzikoa, Zinta-dantza, Kaiku-dantza eta Aureskua.

Euskal soinuan ari izan zen Baionako soldaduen banda bat, 49. errejimentukoa... O tempora, o mores ! Hor zegoen ere Serbiako erregina.

Olerki sariketan garaile jalgi ziren Bitoriano Iraola « Gaisuak » peomarekin eta Piarres Ibarrart baigorriarra, « Itsua eta sastrea » delakoarekin. Ohorezki parte hartu zuten bi zuberotarrek : Urrutigoiy batek « Musde Abadia jaunari » olerkiak, eta Adrien de Souhy mauletarrak « Ziberuak Laphurdiri » delakoaz, hau ere gehienik Abbadiaren ohoretan.

Euskaraz mintzaldiak egin zituzten Goyeneche Donibane Lohizungo auzapezak eta Antonio Arzac Donostiako alkateak. Azken horrek bukatu zuen bertso huez :

Donostiatik nator gaur Donibanera
Lendabizi eskerrak emen ematera
Ta gero, biotzetik oiuh egitera :
Anai jaio giñan ta anai ilko gera !
Orain, gero ta beti bizi bedi Euskera !

Batuko grafian emanez :

Donostiatik nator gaur Donibanera
Lehendabizi eskerrak hemen ematera
(E)ta gero, bihotzetik oiuh egitera :
Anaia jaio ginen (e)ta anaia hilko gara !
Orain, gero (e)ta beti bizi bedi euskara !

Igande arratsean, baita ondoko bietan, « à neuf heures du soir, musique, danses populaires sur la place Louis XIV. » Asteartekoan kantuak ere.

Hiru pilota partida jokatu ziren : astelehen goizeko hamarretan errebotetan Bidasoaz bedera aldeetako bi talde, eguerditan geldialdi bat eginez anjelusaren emateko ; astearte goizean, ber tenorean, xistera handian, hau ere « partie internationale » (sic) ; asteazken goizean, hamarretan, esku-huska, beti « nazioartekoa ».

Astearte arratsaldean, hiruetan, Barkoxeko gazteek Abraham pastorala antzeztu zuten, eta gero egin zen euskal dantza jauzien lehiaketa bat, « concours de la danse nationale du Saut basque. » Donibane Lohizungo festa horiek asteazken arratsaldean burutu ziren zuberotar maskarada batez.

Nor zen Antoine d'Abbadie (1810-1897)

Bi hitzez aipatu behar dizuet nor zen Antoine d'Abbadie edo Antonio Abbadia. Aitaren aldetik zuberotarra, Ürrüstoi herri txikitik jalgia baitzen hau, amaz eta sorterriz eta haurtzaroz irlandarra (1810-1820), ofizioz ikertzaile jakintsuna zen, astronomoa, esploratzailea eta geografoa.

Ber denboran euskaltzale porrokatua zen. Euskararen eta euskal kulturaren alde zernahi lan egin zuen, bereziki Euskal Jaietan eta Lore Jokoen bitartez. Horiez ere aipamen labur bat eginen derauzuet urruntxeago.

Donibane Lohizunen ez zen arrotza. Mende erdi batez hurbil bizi izan zen Lapurdiko eskualde honetan, Urruña eta Hendaia artean (1849-1897). Hendaiaiko auzapez izan zen lau urtez (1871-1875), eta hor eraiki zuen, astronomiako ikertokizat, Abbadia jauregia. Zeruko bideak ikertzen zituen hortik, zeruko mapa bati buruz, eta beharbada, hari esker, satellite bat hor goian pasatzen ari zaigu, gure gainerik, orain berean.

Auzokoa zen beraz Donibane Lohizunen, adiskideak bazituen doniban-darren artean, eta hauei ohore zitzaien holako jakintsunaren errezebitzea.

Euskal Jaien historia laburra

Euskal kultura laguntzen zuen gisa oroz, bereziki aholkuz eta diruz. Haren sustatzeko, Euskal Jaiak antolatu zituen, horietan sariak emanez bere sakelatik. Hor agertzen ziren orduko euskal kulturaren eskualde guziak : indar jokoak bistan dena, baina gainera musika, dantza, kantua, bertsolaritza, eta oroz gainerik olerkia, garaile bikainenak zirela Jan-Battitta Elissamburu sara-tarra eta Felipe Arrese Beitia bizkaitarra.

Euskal Jaiak ospatuko ditu luzaz Urruñan (1851-1863), gero Saran (1864-1876, gehi 1878, 1882, 1884, eta 1885) ; bigarren epe batean Hego-aldera pasako dira (lehenik Elizondon emanez 1879an), eta gero aldizka egi-nen dira han eta hemen, mugaren bi aldeetan. Izigarriko arrakasta zuten, eta horiei esker « Euskaldunen Aita » izen ederra merezitu zuen Abbadiak.

Zinez hemeretzigarren mendeko euskaldun handienetarik izan zen, eta ene ustez gure historia guziko handienetarik ere, non ez den handiena. Zoritxarrez haren omena itzali zuten azken hiru gerla handiek : munduko bi gerlek eta hogeita hamaseikoak. Hegoaldean berpizten ari da, zeren Euskal Jaien mendeurrenak ospatzen dituzte hango herriek : horrela egin dute bere-ziki Elizondo, Markina, Gernika eta berriki Iurretak. Iduri luke beraz fidele-nak ditugula Nafarroa Garaia eta Bizkaia. Ea ba, noiz ote besteen aldi ?

Noizbait hasten zaigu Iparraldea ere, hain zuzen Donibane Lohizungo hiri honetan. Agian ez dateke azkena. Eskerrak beraz Donibane Lohizungo herriari, bereziki auzapez jaunari eta haren laguntzaleei. Eskerrak halaber Euskal Kantu Txapelketa hau antolatu dutenei, Abbadiaren aldeko gorazarre hau asmatu dutelako.

Burutzeko

Duela mende bat beraz Académie des Sciences delakoan lehendakari hautatu berria zen Abbadia, eta Donibaneko Euskal Jaietan omenaldi bat eskaini zion herriak bazkari handi batean. Ohorezko makil bat eman zioten. Abbadia zirrara handiz erantzun eta ihardetsi zien, azken mezu bat emanez euskaldunei, Abadia Ürrüstoi pastoralean aipatu nuen bezala. Horko bederatz bertsoetarik hona hiru lehenak, haren emozioaren adierazle :

Eskerrak adiskideak / nigarra düt begietan
Honki jin eta batzarri / ükenik düt guzietan.

Bena hau bezalakorik / ez düt sekülan amestü
Ikustatearen heina / nola behar düt agertü ?

Adin handiala heltürik / laster zütüet ützi
Azken mezü baten hatsaz / herria dit ürgatziko.

Eta hona orai frantsesez, mintzatu zen bezala, mezuaren bi zatiño :

« En ces temps où la force des choses tend à mêler tous les peuples, à changer les mœurs, et, hélas ! à amoindrir les belles choses du passé, il me plaît de croire que mes chers Basques se serreront les uns contre les autres pour résister, dans une sage mesure, à cet envahissement, pour conserver intacts leur langue, leurs mœurs, leurs coutumes séculaires, leur génie naturel, leur sentiment de l'honneur et de leur foi, autant de trésors ! C'est là un faisceau sacré qu'ils devront garder avec jalousie. »

« Chers compatriotes, disait-il en terminant, joignez vos voix à la mienne, déjà bien éteinte, et crions tous ensemble : Zazpiak bat ! » (*La tradition au Pays Basque*, P. 557 : *Antoine d'Abbadie*, par M. Charles Petit, conseiller à la Cour de Cassation).

Ene mintzaldiaren laburpena frantsesez

Monsieur le maire, mesdames, messieurs,

Voici un siècle la ville de Saint Jean de Luz célébrait les Fêtes Basques patronnées par Antoine d'Abbadie (1810-1897). Souletin par son père qui était natif du petit village d'Arrast / Ürrüstoi, irlandais par sa mère, sa naissance, son enfance (1810-1820) et sa fortune familiale, Antoine vécut près d'un demi-siècle en Labourd (1849-1897).

C'était un savant astronome, explorateur et géographe de renommée mondiale. Il avait fait construire sur Hendaye le château d'Abbadia, qui était aussi un observatoire d'astronomie. Il a d'ailleurs été pendant quatre ans maire de cette commune (1871-1875).

Très attaché à la langue et à la culture basques, il organisa pour les promouvoir ses fameuses Fêtes Basques qui en manifestaient les différentes facettes, notamment les jeux et sports, la musique, la danse, le chant, l'improvisation et la poésie.

Longtemps célébrées à Urrugne (1851-1863), ensuite à Sare (1864-1876, puis 1878, 1882, 1884 et 1885), elles passèrent la frontière dans les deux sens à partir de 1879 (Elizondo), puis échurent en 1892 à la ville de Saint Jean de Luz.

Cette ville en profita pour lui rendre un hommage vibrant, d'autant plus qu'il venait d'être élu président de l'Académie des Sciences. Les larmes aux yeux, il répondit par un message en faveur de la langue et de la culture basques, qu'il couronna par son appel fameux : « Zapiak bat », 7 = 1.

Merci à vous, Monsieur le maire de Saint Jean de Luz, et à vous, organisateurs du championnat national de la chanson basque, de reprendre la tradition de ce grand mécène de la culture basque, et de lui rendre hommage aujourd'hui par ma bouche. Merci, milesker, eskerrik asko, eskerrik hanitx, eskermila.

1 – Geroztik bi olerki horiek agertu ditu Patri Urkizuk *Koplarien guduak* liburuko 383 eta 384 orrialdeetan.

EREIN DUTENAK

(Argia, kulturako zutabea, 1996-II-I3a)

Laster hasiko zaigu Antoine d'Abbadie urtea : 1897an zendu baitzen euskaldun irlandar handia, haren mendeurrena dator. Luzaz ahantzirik egon da halako garrantzia duen gizona. Ospakizunen antolatzen hasiak dira Euskal Herriak eta Frantziak dituzten erakunde sonatuen batzuk : Parisko « Académie des Sciences » delakoa, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Uztaritzeko Euskal Kultur Erakundea, eta abar... Hobe segur, eta nahiko agerraldi eginen dute. Haatik ordu deno aipatu gogo ditut isilpean eta beti apalik lan egin dutenak, hauspetik atera zedin « Antonio Abbadia » (berak batzuetan horrela izenpetzen baitzuen).

Lehenik ohore Hegoaldeari, hoz berpizten hasi baitzen Abbadiaren oroitzapena, udalek eta kultura taldeek ospatzen zituztela jaun horrek, ala berek horrekin edo horren etsenplura eratutako Euskal Jaien eta Lore Jokoen mendeurrenak : Elizondo (1879), Bera (80), Markina (83), Durango (86), Gernika (88), Iurreta (1891). Euskaltzaindiak ere mendeurren horietan parte hartzen zuen mintzaldiz. Durangok 1986koan antolatzen zuen literatura lehiaketa bat sail nagusienetan, « Abadia Ürrüstoi » pastorala ere sari berezi batez saristatuz antzerkian. Gero, 1990ean, pastoral hori jokatu zuten Zuberoako bi ikastolek, Mauleko bi emanaldiez gainera Donibane Lohizunen, Arrasaten eta Oiartzunen, hiri horietako udalen eta kulura taldeen laguntzari esker.

Bestalde Elhuyar Elkarteak 1993. urtean zenbaki berezi bat, dossier gisan atera zuen, osoki euskaraz : « Antoine Abbadia, XIX. mendeko zientzilari eta euskaltzalea. » Hor agertzen da galdera bat : nolaz ahantzirik egon den horrelako gizon ospetsua. Erantzuten dute jakintzaren adar askotan erauntsi zuela, eta beraz ezin zuela sail berezi eta mugatu bat bere izenaz markatu. Zientzian horrela da nire ustez ere. Kultura mailan halaber ahantzirik egon da, guziz Iparraldean, frantses nazionalismo hertsien eta itsuenera lerratu baitzen eskualde hau XX. mende hastapenetik : handiegia eta zabalegia zen Abbadia, bere « Zazpiak bat » lemarekin eta unibertsalismoarekin.

Iparraldearen ohorea salbatu dutenak dira Donibane Lohizun eta Hendaia. Donibaneko udalak Abbadia bi aldiz ohoratu du : 1990.ean beraz « Abadia Ürrüstoi » pastorala gomitatuz, 1992.ean Euskal Kantu Txapelketako finalaren kariara, omenaldi bat eginez orduko auzapezaren eta nire ahoz Louis XIV plazan.

Hendaian aldiz badago talde bat, « Les Amis d'Abbadia », hots Abbadiaren adiskideak, bulta honetan lanean ari dena, bereziki eskola publikoak

horko jauregian antolatzen dituen « Classes du Patrimoine », Ondarearen Klaseekin.

Azpimarratzekoa da gainera Martin Tellechea jaun astronomoaren adorea, obserbatorio / ikergia bizirik atxiki baitu zuzentzen duen jauregi horretan, Académie des Sciences ospetsuko buruzagitzari luzaz ihardokiz.

Haatik d'Abbadiez gehienik dakien gizona da nire ustez Hondarribiako Iñigo Sagarzazu jauna, bere kaxa deraman azterketa lan erraldoiari esker¹.

Eta nolaz ahantz orokorki Jon Bilbaoren « Enciclopedia » famatuak Abbadiaz dakarren informazio guzia ?

HUMANISTA HANDIA

(Argia, Abbadiaz iritzi bat, 1997-III-I3a)

Mundu honetako bere bidaia luzea zinez ongi bete zuen, emakume eta haurrekin ez zuen denborarik galdu, fraide bat bezala egon ondoren oso berant ezkondu baitzen eta umerik gabe gelditu, baina zazpi bizi behar zituzkeen berak hasitako lan ugarien burutzeko. Sail guziak batera zeramazkien. Horrela ez zen bakar batean ere gailendu, baina denetan ona izan zen, eta gainera besteen bultzatzailea. Berpizkundeko humanista gorenen antza zuen eta hain zuzen, halako berritzapen baten aita izan zen euskal kultura mugimenduan.

Idazteari eman bazen osoki, Victor Hugo garaikidea bezalakoa zaitekeela iduri zait : denez kurios, literaturako genero guzietan bikaina, nihon agian ez hoberena, haatik orokorki erraldoia, ezin baztertua. Chateaubriant bretoia oroz gainetik miresten zuen, eta haren liburuetan ediren zuen gaztaroan bidaietarako tirria, haren ber tokian hil aurretik. Gainera sortzez irlandarra baitzen (euskaldun irlandarra beraz), exotismoa da haren baitan gehienik aztoratzen nauen eskualdea, zuberotar batentzat berdin urrunak eta beraz berdin deigarriak baitira Irlanda, Etiopia eta Lapurdi, gehienik maitatu eta beretu zituen hiru lurraldeak.

Nortasun aberatsa eta konplexua zuen humanista polifazetiko horrek. Batetik oso anakronikoa izanagatik, bestetik aitzindaria bilakatu zen. Bera katoliko suharra, eskubikoa, erregetiarra, zuria izanarren, lan egin zuen Xaho

¹ Iñigo Sagarzazu geroztik zendu da, zoritxarrez ! Eta galtze handia zait.

bezalako ezkertiar, errepublikazale, gorri, antikristauarekin. Horrelako binomiak eta kontraesanak ugari ditu Antoine d'Abbadie gizon apal eta ospetsuak. Zeinek esan dezake adibidez zeren artzain protestante bat deitu zuen aita katolikoarengana, haren biziko azken urratsean eta pausoan ?

Harrituko ninduke gizon horren inguru osoa egin balezate aurtengo azterketek, susmatzen dut misterio batzuk izkutuan gordeko dituela gure Antoine d'Abbadieren labirintoak. Euskaldun handienetarikoa da, niretzat handiena, gerla-gizon eta errege guzien gainetik.

COLLÈGE IRANDATZ, HENDAYE

(entretien avec les élèves le 29-04-1997)

Chers élèves du Collège Irandatz,

Je remercie Madame le Proviseur du Collège Irandatz, ainsi que vos Professeurs, en particulier Mademoiselle Nicol et Monsieur Xan Othabure, car ils me donnent l'occasion de parler avec vous

d'un personnage passionnant et que j'aime beaucoup : il s'agit du savant Antoine d'Abbadie (1810-1897), qui est mort voici tout juste un siècle.

Ce savant du XIX^{ème} siècle a quelque chose en commun avec vous et avec moi :

-avec vous d'abord, car il a vécu près de 50 ans (de 1849 à 1897) dans cette commune d'Hendaye, et il en a même été un moment le maire (de 1871 à 1875) ;

-avec moi aussi Antoine d'Abbadie a quelque chose en commun, car son père était natif du village d'Arrast / Ürrüstoi, ma commune, en Basse-Soule, canton de Mauléon-Licharre.

Donc , pensez si je suis fier de cet homme, un des plus grands Basques de l'histoire, à mon avis le plus grand, car il s'est intéressé avec succès à presque tous les domaines de la connaissance : physique, géologie, géographie, littérature, linguistique... Il savait quatorze langues ! Il a été aussi explorateur en Ethiopie. Enfin il a dynamisé la culture basque pendant un demi-siècle ! C'est beaucoup tout ça pour un seul homme, et aussi pour le suivi que nous pouvons en avoir.

Je dois donc mettre un peu d'ordre dans cette nébuleuse, pour faciliter les choses, je vais partager mon exposé en six parties :

- 1 – Les d’Abbadie et le village d’Arrast
 - 2 – La famille d’Abbadie en Irlande : l’enfance d’Antoine
 - 3 – La jeunesse d’Antoine à Toulouse et à Paris
 - 4 - Il explore l’Ethiopie avec son jeune frère Arnauld
 - 5 - Il s’installe à Urrugne-Hendaye
 - 6 - La vieillesse d’Antoine.
- (...)

Antoine d’Abbadie est pour moi un personnage de légende. Il a mené une vie extraordinaire, pleine et merveilleuse. S’il vivait aujourd’hui parmi nous, il irait certainement explorer l’espace à bord d’un vaisseau spatial bourré d’instruments. A l’époque il devait se limiter à observer les étoiles depuis le sol, mais ce faisant, il a préparé les chemins du ciel aux cosmonautes, aux astronautes.

Je crois qu’il irait aussi explorer le dernier continent peu connu, l’Antarctique. S’il retournait en Afrique, ce serait peut-être au Zaïre (Congo ex-belge) ou en Ouganda, avec une organisation humanitaire comme « Médecins du Monde ».

Quant à la culture basque, il se servirait certainement d’Internet pour l’aider, la promouvoir, la diffuser et la faire connaître.

Mais son époque était bien intéressante aussi, car il y avait beaucoup de choses à découvrir. Antoine d’Abbadie ne s’est pas ennuyé, car il s’intéressait à tout. Pour mener à bien tout ce qu’il a commencé, il lui aurait fallu sept vies. Malgré son grand âge, il est mort en pleine activité.

Finalement, qu’est-ce qui lui a manqué ? D’avoir des enfants. C’est merveilleux d’avoir des enfants, et plus merveilleux encore d’avoir des petits-enfants.

Je vous remercie de votre attention. Si vous avez des questions à poser, n’hésitez pas. Je tâcherai de vous répondre, et si parfois je sèche, car il y a des zones d’ombre dans la vie d’Antoine d’Abbadie, je chercherai la réponse par la suite et j’écouterai à votre Proviseur.

Message faxé à M. Tellechea, Directeur

J-L. Davant

Le 14 mai 1997

Monsieur Tellechea Saint-Martin
Château d'Abbadia, Hendaye

Egun on Mattin,

Lors des conférences que j'ai faites récemment au Collège Irandatz, de jeunes auditeurs m'ont posé des questions très opportunes... auxquelles je n'ai pas (toujours) su répondre. Je te les sou mets, à condition qu'elles ne t'obligent pas à faire des recherches :

- 1/ - d'Abbadie a-t-il découvert de nouvelles « étoiles » ?
- 2/ - Pourquoi s'est-il installé à Urrugne-Hendaye ?
- 3/ - En quelle année le site d'Aragorria-Abbadia passa-t-il d'Urrugne à Hendaye ?
- 4/ - Année d'arrivée du chemin de fer à Hendaye (Bayonne : 1855 ; Irun : 1864 ; gare internationale : 1864) ?
- 5/ - Le fronton d'Urrugne fut-il construit par d'Abbadie ?
- 6/ - L'année de naissance de Virginie ?

J'arrête là, en te priant d'excuser mon audace. Eta milesker aitzinetik.
Gure goraintziak zuri eta familiari.

Réponse de M. Tellechea

Académie des Sciences
De l'Institut de France
Château d'Antoine d'Abbadie
Route de la Corniche
64700 Hendaye

Le 15 mai 1997

Egun on Jean-Louis,

Ravi de pouvoir t'aider dans les questions qui te sont posées, je vais donc essayer d'y répondre.

1/ - d'Abbadie n'a pas découvert de nouvelles étoiles : le travail d'observation à la lunette méridienne consiste à préciser des positions d'étoiles déjà relevées par des clichés photographiques. (1)

2/ - Antoine s'installe à Urrugne, pourquoi ? O n'en connaît pas les raisons, mais on peut les supposer.

a) Engouement pour la Côte basque (Napoléon III à Biarritz).

b) Opportunité d'un vaste domaine à vendre (Aragorria) et possibilité d'extension.

c) Consciemment ou pas, le paysage très irlandais (couleur, falaise) lui rappelle peut-être son Enfance. (2)

3/ - Après plus de trente ans de disputes avec Urrugne, Hendaye s'étend en 1896 (décret du Président de la République Félix Faure), prenant au passage les 2/3 de la propriété d'Antoine.

4/ - Le premier train arrive à Hendaye en avril 1866 et la jonction avec le train de Madrid en août de la même année.

5/ - Le fronton d'Urrugne date de 1850 environ. Antoine s'installe à ce moment là et n'a pas participé financièrement à sa construction (à ma connaissance).

6/ - Virginie : 10 août 1828 – 1^{er} mars 1901.

(...)

Martin

I – Commentaire oral : mais d'Abbadie a ainsi contribué à établir une carte de l'espace céleste. Cette carte sera bien utile pour l'exploration future.

2 – La famille d'Abbadie fréquentait les bains de Biarritz depuis au moins 1827.

De plus le jeune Antoine s'est rendu à pied d'Audaux à la Côte basque, avant ses voyages au Brésil et en Ethiopie : il se sentait attiré par ce rivage marin du Labourd.

Jean-Louis Davant
Maison Aizagerria
64130 Arrast-Larrebieu

Le 19 mai 1997

Madame le Proviseur
Collège Irandatz
13 rue Bigarrena
64700 Hendaye

Madame le Proviseur,

Je vous remercie de m'avoir donné l'occasion d'évoquer devant vos élèves notre illustre compatriote Antoine d'Abbadie.

De plus je dois une réponse à quelques questions très opportunes qui me furent posées à cette occasion, et me laissèrent assez démuné sur le moment.

1/ - Antoine d'Abbadie a-t-il découvert de nouvelles étoiles ? Non. Le travail d'observation à la lunette méridienne (celle qui est au château d'Abbadia) consiste à préciser des positions d'étoiles déjà relevées par des clichés photographiques. Mais d'Abbadie a ainsi contribué à établir une carte de l'espace céleste. Cette carte sera bien utile pour l'exploration de l'espace.

2/ - Pourquoi Antoine d'Abbadie s'est-il installé à Urrugne-Hendaye ? On n'en connaît pas les raisons avec certitude, mais on peut les supposer :

a) Engouement pour la Côte Basque, ainsi que je l'ai dit lors de ma conférence : la famille d'Abbadie fréquentait les bains de mer de Biarritz dès 1827 au moins.

b) Un vaste domaine à vendre sur le site d'Aragorria (futur domaine d'Abbadia), avec possibilité d'extension.

c) Consciemment ou pas, le paysage rappelle sans doute à d'Abbadie son Irlande natale (falaises de la Côte Basque, paysage verdoyant, même Océan Atlantique et climat semblable).

3/ - Quand ce site est-il passé de la commune d'Urrugne à celle d'Hendaye ? Après plus de trente ans de disputes entre les deux communes, les deux tiers de la propriété d'Antoine d'Abbadie passèrent définitivement au territoire d'Hendaye, par un décret signé du Président de la République, Monsieur Félix Faure, en 1896.

(...)

Veillez agréer, Madame le Provisur, l'expression de mes sentiments respectueux.

ABBADIA ETA XAHO

(Egunkaria, zutabea, 1997-09-09)

Euskaldunen Egunkari honek eskatu zidalarik idazten hasi nintzan hemen. Orain halaber, zutabe hau uzten diot gazteago bati, arazo barik, horrelakoa baita biziko legea, irakurleei agur erranez. Mezu bat errepikaturen dut, Abbadia eta Xahorena. Bata zuria zen, gorria bestea, eta bizkitartean elkarrekin lan egin zuten euskararen eta aberriaren alde. Hara etsenplu ederra, segitu behar duguna, Euskal Herri honen eraikitzeke. Ez da erreza izango, ezinezkoa baita batasun goxo bat. Baina nolazpait jalgi behar dugu gaurko bide galgarritik, irabazten ari dena etsaia baita, euskaldun eta euskotarron kaltetan.

Baitezpadakoa da, derrigorrezkoa, abertzale moderatuen eta gogorren arteko hautsi-mautsi bat, egoeraren baretzeko hemen, Madril eta Parisetikiko elkarrizketen bideratzeko bakerantz, euskal nazioari bide berrien irekitzeko itun hobe batzuen bitartez. Asko gara hori erraten dugunok, entzuleak behar genituzke bi alderdietarik, aberria gu guziona baita, eta ez bakarrik jaun zuri edo gorri batzuen. Irlandan bezala, gure arteko topaketa batetik igaiten da negoziaketan bidea.

ABBADIA, KIRISTIA

(*Autour du clocher / Zeiñützülian, 1997ko azaroan*)

Aurten badü mente bat zentü zela Antoine d'Abbadie, jakintsün eta eüskaltzale handia. Martxoan hasirik, ospakizün hanitx ikusten dügü haren ohoretan. Bena (Iparralde hontan) denetarik lehena izan zen 1990ko üdan Xiberoko ikastolek Maulen (bi aldiz) eta beste hiru hiritan eman züen « Abadia Ürrüstoi » pastorala.

Heben aipatü nahi nükeana da gizon horren bizian kiristi fedea üken züan lekü zabal eta barnoia. Fededün süharra, kartsüa izan zen Ürrüstoi Abbadiako arraseme hori. Bazüan nontik ere, halakoak beitzütüan arbasoak, aitzinekoak. Bena badakigün bezala, ez da beti aita-ametarik haurretara heltzen sinestea. Gaineala, haren galtzeko aldi franko üken züan Abbadiak, mündü zabala tai gabe kurritü beitzüan, jakintzaren zerbütüko, bena ez zeion azkartü baizik sinestea.

Misioneen lagüntzera lehiatü zen, bereziki Etioipian gainti, Arnauld bere anai gaztearekin egin züan ibilaldi lüzean (1837-1848). Bestalde bere kiristi fedea biziko ürrats haboroxetan erakutsi züan, alde batetik elizako eginbideer fidelki jarraikiz, bestetik gizon xüen, bihotz hon eta langilea izanez ahal oroz.

Ezpiritü gora eta zabala züan, bai jakintzako lanetan, bai eüskaltzale bezala egiten zütüan ürrats eta obretan : politikako ideien gaintetik igaiten bazakian haboroxetan, beste ideologia bat züenekin esküz-eskü langiteko. Hala nola, eüskal gramatika bat hontü züan Agosti Xaho atharraztar gorriarekin, bera xuria zelarik. Gizon galanta izan zen, aharren etsaia, gaüzak honezhonean antolatü nahi zütüana.

Aita-amenganik aberatsa beitzen, bere hontarzünez baliatü zen baten-bes-teen lagüntzeko, bereziki berrogeita sei urtez antolatü zütüan Euskal Jaietan irabazleer sariak emanez bere sakolatik.

Abbadia jauregia Hendaian eraiki züalarik, hor txapela bat egin züan. Haren korpitza altare pean dago ehortzirik, eta emaztearena ere bai. Antoine zenaren nahiz, lüzaz apez bat izan da etxe hortako bürtüzagia, eta azken urte horietalano, txapelako mezala biltzen ziren üngürüneko jenteak.

Antoine zenaren fedea beste lekü batetan ere agertzen da : aitaren sorterrian, Ürrüstoin. Jakintsünari zor deiogü elizako altarea, emazteari aldiz Santa Lúxia herriko zaintzalearen estatüa. Eta kalustrapean badago hilarri bat ikusgarria, segür bezala Antoinerenganik den epitafo-hilartitz batez edertürrik, Maria-Maitena Abbadia egüzama zenarena (aitaren arreba gehiena zen).

(...)

« Heben dago errausteko, bena berriz pizteko... » Ezin da hobeki erran fededünek dügün esperantxa, maite dütügüen berriz ikustekoa.

Bena mündü hontan badea norbait oso perfektik ? Antoinék ere bazütüan bere itzalak. Bere bi anaiekin kexatü zen (nornahiri agitzen ahal dena) eta süs-tut hil arte kexü egon. Fededün izatea neke bada, zombatez gaitzago saintützea ! Gihauk ontsa badakigü, saintügoalako mengoarik ere hainbat ez beitätü.

Il y a un siècle décédait le savant Antoine d'Abbadie (1810-1897), fils d'un citoyen d' Arrast / Ürrüstoi et d'une Irlandaise de Dublin. A l'occasion de ce centenaire, diverses manifestations culturelles ont célébré tout au long de cette année 1997 le voyageur studieux et géographe, explorateur de l'Ethiopie avec son jeune frère Arnould, l'astronome qui précéda les astronautes dans le ciel, le polyglotte qui savait quatorze langues, le basquisant qui organisa les fameuses Fêtes Basques et leurs Jeux Floraux à travers les sept provinces, le bâtisseur du château-observatoire d'Abbadia à Hendaye...

Ici, dans ce mensuel des paroisses de Soule, je rappelle qu'il fut tout au long de sa vie un chrétien fervent, très attaché à la propagation de sa foi. Voilà un aspect très important de cette personnalité en même temps universelle et si basque... sans oublier son Irlande natale ! Mais personne n'est parfait : il y a aussi, semble-t-il, un Antoine capable d'une incompréhension tenace envers ses jeunes frères Arnould et Charles. Le chrétien n'est pas en général un saint, nous le savons bien par nous-mêmes.

HERRIA KAZETARI

J-L. Davantek
1997-12-9an
Herria kazetari

Egun on,

Ondoko artikulu horrek ez du presarik. Estima nezake halere aurten ager baledi, zeren bi lekutarik entzuna dut, publikoan, Abbadiak gauza handiak egin zituela hor gaindi atzerrian, eta deus edo hain guti Euskal Herriarentzat, hemen.

Errailerik aipatu gabe, polemika berri baten beharrik ez baitugu, hemen oroitarazi nahi nuke Abbadia zinez entseatu dela euskararen, Euskal Herriaren eta euskaldunen alde, nahiz ez duen beti nahi zuena kausitu.

Aitzinetik milesker.

Izan ontsa.

(Sinadura)

Jakinarazi behar dizuet halere gauza berdintsuak erraiten ditudala, zubereraz, « Autour du clocher-Zeiñützülian » Zuberoako parropien hilabetekarian, abenduko zenbakian. Haatik ez ditu « Herria » astekariaren irakurle berak.

ANTOINE D'ABBADIERI EUSKALDUNEK ZOR DIOGUNA

(Herria, n° 2433, 1997-12-11a)

Antoine d'Abbadieren ohorezko urte honetan, eskualde askotarik aipatu da gure jakintsuna : geografoa, bidaianta, astronomoa, eta abar luze bat... Euskaltzalea maiz ahanzten da. Beraz urte hau ez dut bukatzera utzi nahi, Euskal Herriaren alde zer egin zuen azpimarratu gabe, gisa guzietara lan harri-garria egin baitzuen haren zerbitzuko, nahiz bera lehenik irlandarra zen : Dublinen sortua, hangoa zuen ama, eta han pasatuak zituen haurtzaroko lehen hamar urteak. Gainera Irlandatik zuen, eta ez Ürrüstoitik, aita-amenganniko fortuna ederra. Beraz azken batean, zor gutiago zion Euskal Herriari !

Gaztaroan, 1836an, 26 urteetan, euskal gramatika bat idatzi zuen Agosti Xaho atharraztarrarekin, eta eskaini zuten « Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner ». Lehenbiziko aldia munduratzeko da hor zazpi lurralde historikoen zenbakia, « Zazpiak-Bat » lema-aren aita (I). Gero do-zena bat urtez (1837-1848) Etiopia esploratuko du eta jakintzako sail guzietan ikertuko, Arnauld bere anaia gaztearekin. Euskal Herriaren esploratzerik ez zuen bistan dena, jadanik egina baitzen aspaldi handian.

Afrika horretan fama handia bildurik, Urrüñan plantatzen da 1849an, oraino gizon gaztea delarik (39 urteetan), Arago-rria delako etxaldean. Hor eraiki du « Abbadia » jauregia, gero Hendaia-ko eremura pasako baita ondasun hori. Lapurdi horretan biziko da mende erdi batez (1849-1897), eta erran daiteke bere biziaz nagusiki lapurtarra izan zela, lapurteraz idatzi baitzuten ere bere euskal izkirio urriak. Halere atxikimendu handia erakutsiko die beti aitaren Ürrüstoi herriari eta Zuberoa guziari.

Astronomoa baita ofizioz, Hendaia-ko Abbadiatik ditu zeruko bideak ikertuko, gauaz bistan dena, gaurko astronautentzat. Egunak ahal bezain beteak emanen ditu bere Euskal Herri maiteari, euskara eta euskal kultura lagunduz etengabe, indar guzietan, baita euskaldunak halaber. Horretan igorri-

ko du aita-ametarik ukan duen fortuna ederra, eta gainera jakintzako lan eta liburuetarik irabazten duena.

Haren euskal obra ezagutuenak dira Euskal Jaiak, urte oroz antolatzen dituenak 1851tik 1896ra. Horietan agertzen dira orduko euskal kulturaren sail guztiak : olerkia, bertsoa, kantua, musika, dantza, maskarada, pastoralak... euskal kirolak, eta lehenbizi pilota bistan dena, gero aizkolaritza, belar ebakitzeko lehiaketa... kabala primakak ere bai, selekzioaren hastapenak izanen baitira. Irabazleak bere sakelatik saristatzen ditu d'Abbadiek, prima ederrak emanez.

Ordukotzat ikusten du bidean datorrela berantago « mundializazioa » deituko dugun hori, eta euskal mundua mehatxatzen duela usnatzen : Antoinenek euskal gizartea lagundu nahi du sail guzietan, ekonomia barne, bere ahalen arabera, XIX. mendeko era paternalistan alabaina. Laborantzasz arrangura handia du, hartarik bizi baitira orduan euskaldun gehixenak. Ameriketara joatea baraxtu nahi du, ez dezan jendez huts Euskal Herria.

Idazleak sustatzen zituen aholkuz eta izkirioz, bai eta liburugintzan diruz laguntzen. Louis-Lucien Bonaparte jakintsunaren ikerketak bermatu zituen, orduko euskalkien aztertzeke urgazleak aurkitu zizkion idazleen artean : holaz egin zituzten euskararen atlasa eta mapa (karta).

Euskara eskoletan sararazi nahi zuen, baita Baionako apaizgaitegi handian, han ere debeku baitzen. Baina sail horretan ez zuen arrakastarik ukan, nahiz seminarioan bederen bere sositik eman gogo zuen irakasleen saritzat. Beraz kontsolatu zen haurrei primak emanez, lehen komunioneke adinean euskaraz ongi ari balin baziren.

Artetik Hendaiako auzapez izan zen (1871-1875), obra asko eginez hirigintzan. 1892an, Donibane-Lohizungo euskal festa handietan, azken mezu bat bota zuen : « Zazpiak bat » oihua, oraiko euskaldungoari bidea irekiz. Gauza franko utzi zuela egiteko, bistan dena ! Jainkoak ere bai... Eta guk ere utziko ...

Bere itzalak bazituen Antoinenek, haien ikertzaileak izanen dira. Baina Euskal Herriari begira guti egin zuela ? Ez, hori ezin daite oihusta, haren historia doi bat ezagutzen delarik. Zuhurki bizi izan da, fraide bat bezala, saluntarik bazter, lo egiteko ere denbora guti hartuz. Bere orenak, indarrak eta sosak higatu ditu jakintzaren zerbitzuko (eginbidez) eta euskaldunen alde (maitasunez), fedea lagun. Ber bidetik goazela.

Ber gauzak erran ditut, arte gutiñorekin, baina zubereraz, abendu bartako « Zei-ñützülian », ondoko frantses laburpena gebituz.

Après avoir exploré l’Ethiopie avec son jeune frère Arnauld, de 1837 à 1848, le savant géographe et astronome Antoine d’Abbadie (1810-1897) a délaissé Paris pour consacrer près de 50 ans de sa vie à la science et au Pays Basque. Le château-observatoire « Abbadia » de Hendaye n’est que la partie la plus visible de son œuvre. Il a constamment soutenu la culture basque, dans ses divers aspects, par ses encouragements, sa propre écriture et ses subventions aux Jeux Floraux et autres Fêtes Basques, à la recherche linguistique (atlas et carte des divers dialectes basques), à l’enseignement (mais sans succès), au recueil des textes littéraires, à l’édition de nouveaux livres, etc. . .

L’économie, essentiellement agricole à l’époque, était aussi l’objet de ses soins attentifs, notamment par les concours de bétail qu’il intégrait à ses Fêtes Basques. Bref il est entré dans la culture basque, au sens large, comme on entre en religion : nous sommes loin d’avoir fait le tour de son immense œuvre basque. Donc au travail, suivant son exemple !

1 – Geroztik jakin da, Manex Goyhenetche zenari esker, Jean-Philippe de Bela mauletar zaldunak XVIII. mende erditsutan idatzi zuela : « On divise les Basques en sept provinces ou païs particuliers. »

LE PERE DES BASQUES

(Enbata, iritzia, n° du 22-12-1997)

Antoine d’Abbadie est le père du mouvement culturel basque, qui renoue avec lui par dessus les guerres du XX.ème siècle.

En cette année « Antoine d’Abbadie », l’on a honoré à juste titre la savant et le basquisant. Ici j’insisterai sur ce dernier aspect du personnage, car il a beaucoup fait pour le Pays Basque, ses habitants, sa langue et sa culture. Pourtant, il était d’abord irlandais par sa mère, par sa propre naissance à Dublin et par les dix premières années de son enfance, années capitales dans la vie de tout homme. De plus, c’est à l’Irlande qu’il doit sa belle fortune parentale. Mais c’est au pays de son père qu’il consacrera son existence, autant que le lui permettront ses travaux professionnels.

Il restera très attaché au village d’Arrast et à toute la Soule, mais dans sa vie d’adulte, il sera essentiellement labourdin, car il délaissera Paris, puis l’exaltante aventure éthiopienne (vécue avec son jeune frère Arnauld), pour vivre près d’un demi-siècle entre Urrugne et Hendaye, où il construira le château-observatoire astronomique d’Abbadia ; et c’est en dialecte labourdin qu’il

écrivra ses quelques lettres de langue basque. Il s'exprimera davantage en français, quelque peu aussi en espagnol et en anglais, en faveur de tout ce qui est basque.

Sa première œuvre connue sera un travail de grammaire, « *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne* » publié en 1836 en collaboration avec Augustin Chaho, malgré leurs différences idéologiques bien connues. Ils la dédient aux Basques des Sept Pays Basques (*Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner*). C'est un des deux cents titres de livres et d'articles commis par Antoine d'Abbadie. S'y ajoute un immense courrier, dont les copies sont réparties entre la Bibliothèque Nationale de Paris, le château d'Abbadia et les archives départementale. Parallèlement aux travaux scientifiques, cette œuvre colossale comprend de multiples interventions concernant la langue basque et ses rejets culturels. Mais plus que par la plume, Antoine d'Abbadie les sert par ses conseils, encouragements, incitations, suggestions, initiatives et subventions, notamment en faveur de la recherche et de l'édition basques.

Il interviendra aussi, mais sans succès, pour introduire l'euskara dans l'enseignement public et catholique. Même le grand séminaire de Bayonne fermera sa porte au mécène « *euskaldun-fededun* » qui pourtant ne ménagera jamais son soutien à l'église et au clergé : il proposait de financer lui-même la chaire de basque. Nous voyons que les pouvoirs constitués n'ont pas attendu la République pour exclure l'euskara de l'école...

Antoine d'Abbadie aidera puissamment Louis-Lucien Bonaparte dans ses recherches sur les divers dialectes de la langue basque, par exemple en lui trouvant des collaborateurs compétents chez les écrivains des différentes provinces : il sera donc pour beaucoup dans l'atlas linguistique et la carte qui en résulteront.

L'œuvre maîtresse d'Antoine d'Abbadie sera l'institution des Fêtes Basques qu'il organisera chaque année, de 1851 à 1896, d'abord à Urrugne (1851-1863), puis à Sare (1864-1876), enfin alternativement des deux côtés de la frontière. Y figureront tous les aspects de la culture basque de l'époque : poésie, improvisation, chant, danse, musique, théâtre, sports (pelote, aizkolari, faucheurs..) et même des concours de bétail. Pour les prix aux vainqueurs, il en sera largement de sa poche. C'est là que naîtra le mouvement culturel basque...

Il aura aussi le souci de la vie économique, essentiellement rurale à l'époque : modernisation des techniques sur les terres d'Abbadia, concours de bétail évoqués ci-dessus initiant le travail de sélection qui a mené aux races animales d'aujourd'hui...

Le mouvement politique aussi lui doit quelque chose, car c'est par amour des libertés basques qu'il soutient la cause des Carlistes ; et surtout il vulgarise le slogan « *Zazpiak bat* » (7 = 1), mis au point semble-t-il par le Navarrais Arturo Campion, mais sous l'inspiration du « *Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner* » de Chaho et d'Abbadie.

Antoine d'Abbadie verra très tôt se profiler à l'horizon le phénomène de la mondialisation à la faveur de ses voyages scientifiques (le bateau à vapeur précédera largement le train), et il essaiera d'y préparer une réponse globale par le vaste éventail des épreuves constituant ses fameuses Fêtes Basques, qui ne se limitaient pas aux Jeux Floraux : réponse culturelle d'abord, mais tout le reste en dépend.

Effacé au cours du XXème siècle par les guerres mondiales et coloniales, Antoine d'Abbadie revit aujourd'hui dans le mouvement basque renaissant. Il l'a bien mérité pour avoir consacré tous ses efforts, ses moments et ses moyens financiers à la science et au Pays Basque. Ce n'est pas en vain qu'on l'appelait « *Euskaldunen Aita* », le Père des Basques !

ANTON ABBADIA

(Gara, gehigarria, zazpigarren leihotik, 1999-V-31a)

Antoine d'Abbadie jakintsuna (1810-1897), lehenik irlandarra zen : Dublinen jaioa, hangoa zuen ama eta han pasa zituen haurtzaroko lehen hamar urteak. Gainera Irlandatik zuen, eta ez aitaren Ürrüstoi sorterritik, aita-amenganiko fortuna ederra. Eta bizkitartean, Euskal Herriaren zerbitzuko xahutu zuen, bere denboraren eta indarren zati handi batekin. Zein ote zen haren aberria nabarian uzten dute bi aldarrikapenek ; lehenbizikoa, Xahorekin argitaratu zuen gramatika lanaren atarian agertzen da : « *Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner* ». Garaten hiru eta lauen ondotik, hara « *zazpi* » zenbakia... Bigarren aldarrikapena, 1892an Abbadiak Donibane-Lohizungo Euskal Jaietan bota zuena : « *Zazpiak bat !* ». Festa horien leman zen hain zuzen ere, kartel-afixen goian emana.

Aberri horren edukia euskara zen : euskaraz guti bazuen idatzi, horren alde asko predikatu zuen Abbadiak, eta oraino gehiago egin. Haren euskal obra ezagutuenak, Euskal Jaiak dira. Urte oroz antolatzen ditu 1851tik 1896ra, sariak bere sakelatik emanez. Hor agertzen dira orduko euskal kulturaren atal guztiak : olerkia, bertsoa, kantua, dantza, musika, maskarada, pastoral... baita kirolak, bereziki pilota eta nekazari lanen inguruko lehiaketak : aizkolaritza, segalaritza... Ganadu primakak ere bultzatzen ditu Abbadiak. Labo-

rantzaz arta handia du, hartarik bizi baitira orduan euskaldun gehixenak.

Ordukotzat jakintsuak ikusten du bidean datorrela berantago « mundializazioa » deitzen dugun hori, eta mehatxu horren aurka euskal gizartea lagundu nahi du sail guzietan, ekonomia barne, bere ahale arabera, XIX. mendeko era paternalistan alabaina. Kontserbatzailea zela ez dago zalantzarik, nagusiki politikan. Baina ez zen gizon gogor eta hertsia, espiritu gora eta zabala zaukan : bere jakintzari eta kulturari esker, bide berri batzuk ireki zituen, batez ere baserritarra zen Iparraldeari aspaldidanik hiritarragoa zen Hegoaldeko Euskal Herriaren ateak erakutsiz. Baina txikiago batzuek hetsiko zituzten.

ABBADIAREN IBILALDIA KOPLATAN

I

Heben ürrentzen beita, Ühaitzaren esküin
Mendixka ñapürretan gure Zuberua
Erroak sano lapitz eta sokarroan
Azken etxeak dütu orano eüskaldün.

2

Ürrüstoi-Larrabile, zoin herri txipia
Pettarraren hegian zaintzale haütüa
Eginbide hortako barna lantatüak
Hor daude bi Gaztelü, bai et(a) Abadia.

3

Ürrüstoi Abadiak gizon famatüak
Eman (dü)tü lehenago Eüskal Herriari
Mixel, Arnould, Xarles et(a) Antoni deitüak :
Aipü berezi bat zor dügü azkenari.

4

Aita ürrüstoitarra beitzüan Antonik
Frantziako iratültzan Eirera joanik
Hanko neskatila bat egin züan ama
Zortzi jente ützüli gero guregana.

5

Geograf(o) astronomo zinez jakintsüna
Mintzaje hanitxetan bardin bazakiana
Brasilen urte betez bazüan lan egin
Etiopiala joan zen anai Arnauldekin.

6

Hanko errege batek ürgatzi zütüan
Jakintzako ikertze (e)ta txerkatze güzian
Eta hura lagüntü züen haiek ere
Barneko (e)ta kanpoko etsaiaren kontre.

7

Aberaski sortürrik, beren hontarzüna
Baliatüko düe üskaldüenen alde
Antonirena phürü güzieren fortuna.

8

Lapurdin jarri ziren biak beren alde
Arnauld Ziburun, aldiz Antoni Hendaian
Eta han eraiki dü gaurko Abbadia.

9

Berantean ezkontü eta haurrik gabe
Baratü zen hau eta lagüna xoxotü
Arnauld anaiaganik hark bereiziko dü.

10

Frantzian Jakintzako Akademibürü
Izentatü beitzüen, han zabilan üsü
Eta Parisen hil zen oso zahartürrik
Hendaiako etxean dago ehortzirik.

11

Hendaiako auzapez leiala izan zen
Herriko etxe, argi, zübürü, ondartza
Karrika eta beste zütüalarik hontzen
Zernahi lanetako beitzüan ondatza.

I2

Napoleon hiruren adiskidea zen
Erregetiarra zela gütitan agertü
Politikaz ez beitzen hainbat axolatzan
Jakintza et(a) eüskara zütüan haütatü.

I3

Eüskaltzalea beitzen ororen gainetik
Xahorekin bi obra бүрүтү zütüan
Bat eüskaldün Karlisten fabore, bestea
Eüskal gramatika bat, jakintzaz beterik.

I4

Pelotakari eijerra, eskü hüska phürü
Jokü hori lagüntü dü bere diharüz
Arrabotüak bete, lehenik Urruñan
Eta han arren hasi Besta Eüskaldünak.

I5

Euskal Jai horietan olerki sariak
Bere sakolatik (dü)tü ederki ezarriak
Han agertzen dirade Ibarrart, Etxahon,
Elizanburu eta hainbat poeta hon.

I6

Eüskaraz aski ontsa mintzo ziren haurrak
Saristatzen zütüan, lib(ü)rüak lagüntzen
Eüskaldünen Aita hon, orok züen deitzen
Eta zinez hala zen gure herritarra.

I7

Egün Eüskal Herria, Iparrean phürü
Zer heinetan gүнүke, geroari бүрүz
Ildoan ez baleikü barnatü goldea ?
Errorik balükea eüskaldün oldeak ?

I8

Esker eta ohore zuri Abbadia
Mezena jakintsüna, eüskaldün handia
Baserria Ürrüstoin bürgoi dago zütaz
Jauregi ospetsua Hendaian orobat.

I9

Zureki dügün arren denetan oihüsta
Eta obretan egin gure Zazpiak-bat !

BIBLIOGRAFIA

- 1- (d') Abbadie d' Arrast, Bernard : *Epopée d'Arnauld d'Abbadie d'Arrast « Ras Mikael » en Ethiopie*, monographie, 1975.
- 2- Abbé Guilhem d'Abbadie d'Arrast : *Monographie de la famille d'Abbadie d'Arrast*, imprimerie Fanlac, Périgueux, 1982.
- 3- Académie des Jeux Floraux, hôtel d'Assézat, Toulouse.
- 4- Association des Amis d'Abbadia, maison Nekatoenea et maison Larretxea, rue / Armatonde / karrika, Hendaye / Hendaia.
- 5- Bernadou, Charles : « *Azpeitia , les fêtes euskariennes de septembre 1893 / par Charles Bernadou / suivi de la Marche de saint Ignace et autres poésies basques avec musique* », Bayonne, 1894.
- 6- Bilbao, Yon : *Gran Enciclopedia ilustrada del País Vasco*, ed. Auñamendi argitaletxea – *Literatura*, I, pp. 58-59, 328-336, 358-368, 408-558 or.
- 7- Contemporains (Les) : *Abbadie (Antoine d'), 1810-1897*, Paris, sans date, urterik gabe.
- 8- *Correspondance* d'Antoine d'Abbadie (*gutuneria*) : Abbadiako liburutegia (bibliothèque d'Abbadia), Archives départementales, Bibliothèque Nationale de Paris.
- 9- Darboux, Gaston (secrétaire perpétuel de l'Académie des Sciences) : *Notice historique sur Antoine d'Abbadie*, Institut, 1907 - 20.
- 10- Davant, Jean-Louis :
- Discours d'entrée à l'Académie de la Langue Basque, Euskaltzaindian sartzeko bitzaldia*, Euskera (aldizkaria, revue académique), XII (2), 1977, Euskaltzaindia, Bilbao / Bilbo (eta Separata).
- Abadia Ürrüstoi pastorala*, Durango, Euskal Jaiak, 1986 (testu osoa, texte complet): udal horren sari berezia, prix spécial de cette ville au centenaire des Fêtes Basques.
- Abadia Ürrüstoi pastorala*, Xiberoko ikastolak, Maule, 1990 : testu laburtua, hiru hizkuntzetan emana (teste abrégé mis en scène en 1990, livret trilingue).

-*Zuberoako literaturaz antologia laburra*, Bilbo : Euskaltzaindia, 2008 (Euskaltzainak bilduma, 9).

11- **Editions Haize Garbia**, 73 bd de la Mer, Hendaye / Hendaia : a consacré divers numéros de sa revue périodique à d'Abbadie et au château d'Abbadia, Antoine eta jauregi-aldizkari andana.

12- **Elhuyar** aldizkaria, revue scientifique en langue basque, N° 73-74, 1993, dosiera : *Antoine Abbadia XIX. mendeko zientzilari eta euskaltzalea* (savant et basquisant du XIXème siècle).

13- **Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia** : « *Antoine d'Abbadie 1897-1997* ». Livre du Congrès International de 1997 organisé en collaboration par la Société d'Etudes Basques et l'Académie et la Langue Basque à Hendaye et Sare. « *Eusko Ikaskuntza. Ezobiko Kongresua / Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra* »

14- **Haritschelhar**, Jean : « *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchabun* » – Euskera , XIV-XV, 1969-1970 , Bilbao (Euskaltzaindia / Académie de la Langue Basque).

15- **Irazabal Agirre**, Jon - Gerediaga Elkarte (Association Gerediaga) : « *1891. Iurretako Euskal Jaiak (1891. Fiestas Euskaras de Iurreta)* ». (« *Iurreta Euskal Jaiak 1891-1991* » Batzordea , Comité du centenaire).

16- **Les Cahiers de l'Histoire**, N° 76, mai 1968 : *L'Histoire de l'Irlande des origines à nos jours*.

17- **Loidi Bizkarrondo**, José Antonio : *Euskal Jaiak / Fiestas Euskaras*, Irungo Udala / Ayuntamiento de Irun, 1985.

18- **Petit**, Charles : *Antoine d'Abbadie*, in la Tradition au Pays Basque, 1899 – Elkar, 1982. Gros recueil d'articles et de textes de conférences : artikuluz eta mintzaldiz eginiko liburu lodia.

19- **Urkizu**, Patri :

- A l'occasion du Congrès International de 1997 / ko Biltzarraren kariara, trois ouvrages, hiru liburu *Antoine d'Abbadie* sortan : – 1) *Pensées, études et voyages de 1835* – 2) *Recueil de textes* – 3) *Koplarien guduak* (Les combats des versificateurs).

-Bestalde *Anton Abbadia, 1810-1897, Biografia saioa* (essai de biographie), Bilbo, 2002 : Bilboko Udala / Ayuntamiento de Bilbao. « *Liburu honek Miguel de Unamuno III. saiakera lehiaketa jaso du.* » (Ce livre a remporté le IIIème concours Miguel de Unamuno d'essai).

20 – **Collectif** sous la direction de Jean Dercourt, Secrétaire perpétuel de l'Académie des sciences, Coordination éditoriale Michel Hurel : *Antoine d'Abbadie (1810-1897) de l'Abysinie au Pays Basque, voyage d'une vie* –Atlantica, Biarritz, 2010.

